

Lauaxeta

AZALPENAK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Azalpenak*, Estepan UrkiagaLauaxeta (Jon Kortazarren edizioa). Labayru, 1982

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00221.htm>

1. IPUIÑAK

Ziñaldaria

—Baiña goserik ez dozu ala? Aspaldian jakan zagoz, ene andra ori, eta osagille bateri dei egin bearko deutsogu.

—Jakan be ez nabil, baiña gitxiaz naikotuten naz. Emakumeak ez dogu bear zuek aiña. Ba dakizu urde goseak ezkurra amets dauala; gose banintz, patatak eta indabak jango neukez.

—Zurbil ikusten zaitut ganera. Jan egizu gura dozuna. Olakoxe barriketa erabilli giben etxean Mendigoiko ezkonak. Andreak ez giban jatorduetan ezer be jaten eta gizona larri egoan. Egunak joan egunak etorri, beti bardin. Solora zuzendu ziran ba. Atxurrean ebiltzan bitartean, emakumeak deadar egiten eban baten bategaz izketan balegoan: —Bai, oraintxe noa; itxaron egizu, or etxean daukot eta.

Arin etxera zuzenduten zan, gizona soloan itzita. An iñor ez egoan, baiña sartu sutondora ta oillo zuriaren gorringo biko arrautza ta txarriaren urdaiazpikoa prijiduten ebazan. Ogi apatzagaz

gero txurrut be edanik, betebete egiten giban urdailla.

—Or bestaldeko Petra etorri jat umearentzako mantzanilla billa, gaixorik dauko bata. Emon deutsot etxean egoan apurra. Osatuko al jake.

Senar gaixoak dana siñistuten eutson.

—Bai, zoritxarrekoa izan da Petra ori bere umearekín, beti gaixorik euki bear.

—Ori esan egizu ba.

Egunero egiten eban emakumeak olako tranpea. Gero ezin jan indabarik eta patatarik. Gaztaiñak eta azak gizonarentzat; berak esne epela, garabantzuk eta gaztaia bakarrik jaten ebazan.

Egunero solotik etxera joaten zalako, gizonari zurrumurru sartu jakon barruan, ainbeste joan—etorrigaz. Egun batean atzetik jarraitu eutson eta sutondoan zer egiten eban andreak ikusi be bai. Ixillean itzi eutson eta gabean jakan egoala ikusi ta esan eutson:

—Marija, kolore txarra daukozu. Agoan barriz, usain txarra nabariteten deutsut. Zatoz onantza ea.

Eta suurra arrimau eutson agoraiño.

—Zuk gero arrautza usaiña dariozu, baita txorixo ta txarriaren urdaiazpiko giarrena be. Ez da olakorik izango gero?

—Jesus milla bidar, pentsau be olakorik. Zer uste dozu gero. Ai ene bada, ni naz errukarria. Etxekaltea nazalakoan zagoz eta.

Aren negarrak eta zizpuruak! Senarrak bakeak egiteko usaiña bakarrik izango zala esan eutson, berak be trabenan jan ebala arratsaldean txorixoa eta.

Urrengo egunean ez zan atrebidu gure Maria solotik etxera etorten, baiña laster barriro leengoak egitera jo eban.

—Bai, oraintxe noa. Jesus, beti neuri gedarrez dabiltz orreik. Bakean be ez deuste itxiko. Geure soloan bedarra ta kardua izango da urrengoan ba. Uiñutzako Kasilda dalakoan nago.

Eta tanpatan-tanpatan, etxera joan zan. Aren poza barriro sutondoan, eskaratzean aurkitu zanean. Bakean oillo zuriaren arrautza jango eban. Prijidu ebazan txorizo bi, arrautza eder bat gorringo bikoia. Baiña leenago illenti bat, suak gorritu dauan zotza artu eta asi zan onelatxe:

—Urdail ori barriro be salatari izango ete az? Salatari malatari, apez—usku milikari.

Zotza agoraiño eroan eban. Baiña leiotik senarrak ots egin eutson:

—Maria, zer da ori? Urdaila ez jatzu salatari, neure garrote au izango ja tzu salatari. Jakan e? neuk emongo deutsut zuri jaten. Ea solora. Konke gaixorik bestaldeko umea, ezta? An izan ziran garrantziak eta deadarrak. Soloko karduak kendu ebezan bai, laster eta emakumeak jaten ikusi be bai. Azak, patatak eta indabak ederto jaten ebazan gero.

Andrearen tranpak etxeko ondamenak. Emakumea ta katua beti non sartuko mosua.

1931-VIII-11

Buruko miña

—Zer jazoten jatzu aspaldion? Artega gauko-zuz zeure buruko miñak dirala ta ez dirala. Itxuraz barriz, ez daukazu antz txarra.

—Zagoz ixillik, Josepa, zagoz ixillik! Nireak egin dau. Jakan nabil, iztarrok joan eziñik, eskuak luzatu jataz, begiak zorroztu, matraillak zurbildu, ezpanak zuritu,

bularrak txikitu, uleak jausi, eta soin guztia auldu, otzitu, argaldu eta ezereztu.

—Ene bada! Ez daukozuz samintasun txikerak be sorbaldan, esan dozuzanok badaukazuz. Baiña non dozu oiñazerik gorriena?

—Buruan, ezin igitu daiket bururik, orratzakaz zulatu deustela dirudit eta. Zori txarrean nabil.

—Osakai batzuk aurkitu bearko doguz ba, osatu edo sanotu zaitezan. Orrela ezin aurrera iraun geinkelako. Emakume batek zeregin andiak daukoz etxean eta gaixorik zagozan artean dana alde batera lagata daukazu.

—Ori esan egizu ba. Neure etxeak ez dauko etxearen antza be, ezta urrik be.

—Eta osagilleak zer esaten deusue, ba? Ez dauke osakairik? Jaten zer agindu deusue?

—Arrautzak eta opiltxo beroak jaten dodaz. Esnea be bai. Natilla apur bat ez jat txarto etorten. Edari gozo batzuk be atsegin jataz. Ardao zuria edo jereza goizetan, eguerdian be klarete tragotxo batzuk. Arratsaldean txokolatetxo gozoakaz artzen dot. On egiten deustala uste dot. Gabean be gauzatxo fiñak jaten dodaz. Oillaskoa, txoriak edo, gizonak badakarz eta okela bigunak.

—Ez zara txarto be bizi gero! Eta orrelako gauzak erosteko txinditan be eralgiko dozu askotxo, ezta? —Ondamendia auxe jaku! Osatuko banintz ostera. Erremediorik ez ete dakizu zeuk?

—Bai, erremedio batzuk ba dakidaz, baiña salneurri andikoak dozuz. Zeure gizonagaz leenago egon gura neuke. Karuegi diralako edo, ez dakit atsegin izango jakozan.

—Ezta, gixajoak neuk gura dodana egiten itxiten deust eta.

Barriketaldi au euki ostean, Josepak eta emakume gaixo-izunak Martolori agertu eutsozan zelako erremedioak bear ebazan bere emazteak. Buruko miñik kalabazarik arek ez eukon, aitzakiak ziralako guztiak.

—Itxi egistazu bai, eta neuk laster osatuko dot ori.

—Baiña zelan osatuko dozu zeuk ba? Antziñatik txarto badago?

—Orren koplak laster kenduko dodaz. Neu be emakumea nazana ez dakizu ala? Olako txarpatxoak ondo dakidaz. Baiña ara, neuk eroango dodazan osakaiak karuak dirala esango deutzazu; bere onerako diran ezkerro, barriz, zeuk ontzat artu dozuzala. Injeziño batzuk emongo deutsodaz uragaz bakarrik. Karuak diralako autua baiña, sarri esan bear jako.

Esan eta egin, urrengo egunean eldu zan geure Josepa bonbiltxo batzuk eskuetan ebazala. Agur eta agua maitekorrak alkarrerri egin eutsozan.

—Eta badakarzuz ala? —itaundu eutson gizonak—, emen dago neure emazte on au buruko miñakaz. Esan deutsot osakai karuak dirala

dakarzuzan oneek, baiña pozik ordainduko dodazala onerako bajakoz.

—Bai, ementxe dakardaz, Mari maite ori. Karuak diran arren, osatuko zabez. Ez bildurrik euki, injeziño batzuk dira. Bakoitzak ogerleko asko balio dabenak. Oneetariko bat artzen dozu ezta? ta iru egunerako ondo zagoz, buruko miñik ez koplarik ez dozu sentiduko.

—Eta zelan emongo deustazuez ba? Bildur be ba naz... —Ara, besoak erantzi egizuz bái? eta ortixek ondoen artuko dozuz.

Gizona, gaixoa eta Josepa alkarrekin larri ta artega ebiltzan injeziño garrantzitsuak emoteko egozan ba ta. Mari gaixoak besoak erakutsi ebazanean rik-rik sartu eutson injeziño ori. Ai ene ta ai ene! asi zan gaixoa, baiña alperrik. Sartu eutsoen osakai ederra. Andik ordu erdi barrura bestela ei egoan Mari andrea. Olan be, zelako bakean egoan. Buruko min barik.

—Milla esker zeuri Josepa laztan orreri osakai eu ekarri dozulako.

Olantxe zortzi egunean emon eutsoezan urezko injeziñoak eta geure gaixoak buruko

miñik ez eban nabarituden. Olako baten gizonak ots egin eutson.

—Mari, ondo zagozala orain diñozu ezta? Jan bearko dozuz ba, gaztaiñak eta indabak eta gaiñerakoak, besteok jaten doguzan legetxe. Koplak baiño ez dozuz euki.

—Ene, olakorik esatea be. Eta artu dodazan osakaiak ezer ez badot euki, zergaitik ekarri deustazuz ba?

—Ba dakigu zer izan diran zeure injeziñoak? Ur utsa. Uragaz osatu zara!

Zortzi kolorek aurpegira urten eutsoen. Josepa atrapau baleu, eskuetan berton erailgo eban. Aren amorrua!

1931-X-28

Iruzurra

Bidasoa ertzetatik Espaiña barrura gauza askotxo sartzen dirala, guztiok dakigu. Kontrabandistak zuurrak dira gero. Euzkotarrak dirala badiñogu, zuurrak dirala esango dogu.

Gaur seda pillo galanta ei dakarre kontrabandista batzuk.

—Entzun dot zeredozer, baiña ez dakit ba.

Onela izketan jardun eben mikelete bik. Barrabanak ei ziran ba karabineroak eta! Gizon orreek ei ziran kontrabandistarik gorrienak. Gipuzkoako jagole oneik ostera zuur egozan, besteai tunda andi bat emoteko. Bide ertzetan jarri ziran mikelete aldrak eta notin bakoitzari burutik oinetaraiño azterketak egiten eutsoezan. Alakorik! Iñondik iñora ez eben sedarik idoroten. Beste bide batzuetatik joan ete ziran ba? Mendiak igaroteko ez egoan egun argi. Errekak oster, urez beterik joiazan eta gauza erreza ez zan kontrabandistak Albogain ondotik bage beste zidorretatik joatea.

Egonak zeredozer onik ekarten dau bai?, eta an egozan gazteak. Ordu bat, ordu bi. Alperrik baiña.

—I, ez dok gurdi bat ikusten an urrenean?

—Bai, antxe jatorrek, baiña galtsua jakark, besterik ez.

—Zer jakarken ikusiko joguk. Baserritarrok ez dozak makalak gero, gizon argiak baiño. Leengo batean ilkutxa batean ez ebezan igaro bonbil batzuk edo?

Gurdia geldiro aurrera etorren: Astirik naiko eukolako edo. Bide ertzetan mikelete batzuk egozan. —Eta gizon, zer dakark gurdian ba?

—Zer uste dozue, ba? Urregorria dakardala? Ez, ba. Ona neuretzako urrea ekarriko baneu orain!

—Galtsua ekarteko ordua dozu ala?

—Bear dan gauzea ekarteko ordurik ba dago ala? Ez ba. Gosea ez da guzurraz kenduten ezta?, eta geure etxeko abereak ez dauke besterik auxe baiño.

—Ederto, zoaz aurrera. Eta itauntxo bat: ez ete dozuz ikusi or bidean kontrabandista batzuk edo?

—Ezta, orreek gau txoriak dira. Ez dira edozein tokitan idoroten.

Leenengo mikelete orreik itxi eutsoen bakean. Bigarrenak ostera, zuurragoak ziran. Arek ez egozan kokolo-mikolo egin eta.

—Kaixo morrosko!

—Gabon. Erre gura dozue edo?

—Ez ba. Naiko erre dogu. Ganera or dakarzun galtsuak sua artuko baleu, laster autsa biurtuko litzake.

—Bai eta —bigarren mikeleteak— azpian dakarzun sedeak...

—Bai, azpian koplak. Karabiñeru asko dago or bide ertzetan sedak igaroteko. Oba izango litzake guztiontzat orreik ez balegoz. Barrabasaran semeak dira. Betiko loak atrapauko al dauz!

—Tira ba, asarre andia agertuten dozu karabiñeru gaixoen aurka.

—Bueno, arin ibilli bear dot. Aurrera joango naz edo ez? Zer gura dozue?

—Itxo, itxo. Emen galtsua ikusten dogun arren, azpi ezer danentz begiratu bear dogu.

Esan orduko mikelete orreik asi ziran dana ikusten. Galtsua kendu eben eta gurdi azpian zer idoro ebela us dozue?

Alakorik! Azpiko sedak zainduten karabiñeru etorzan. Ikaratuta geratu ziran geure mikelete gaixoak. Urrengoan be bide ertzetan egon bear-ko eben luzaro baserritarren begira.

1931-XI-3

Argirako

Euzkadiko erritxo batean jente elizkoia daukagu. Emakumeak batez be beti eleizan sartuta dagoz. Alagalako txanagusiak emoten dabez emon be, deunen argitarako. Gizonak ostera argitarako barik, ardaotarako naiago dabez diruak.

Orain be Luke deunaren oindian edo altarean kandela barriak imiñi bear ei dira. Emakume bakoitzak lauerleko bana emon ezkerroan, naiko litzake.

—Zer, ba? Zuek gizonak ez dozue eralgiten nai aiña? Geuk be deunai argiak biztuten edo zer edo zertxo eralgi daikegula uste dot.

—Eta umeak gosez. Prakak apurtuta daukodaz zuloz beterik. Inork zer esango be. Kosetxuk ostera epertxuntxurra be agirian darabil... Deunai argia diñozu, argia?

—Siñiste bako ori, zagoz ixillik. Jaungoikoak emoten deusku eguneroko ogia ta aurrera be emongo deusku ta...

—Tira ba. Biar igandea dalako, neronek emongo dot deunarentzat txindia. Ikusiko dozu zelan jaurtiko dodan neure emontxo Mikel deunaren kutxara.

Emaztea poztu zan senarraren esanagaz. Sikeran be, iñoren aurrean lotsatu bearrik ez eban eukiko. Gabean amets egin eban Mikel deunak pozik barre egiten eutsola limosnatxo aregaitik eta. An ikusi eban bere senarra oindi aurrean auspeztuta bularreko galantak artzen. Amets orrek ez eutson atsegin txarra be egin.

Eleizako joaleak dingilin-dongolon asi zireneko, izarrik egoan geure Papatxo.

—Eup, Jose! Jaunaren izenean gora jaiki zaitetz. Ordua da eleizara joateko ta.

—Zer gora ta gora ez. Itxi egistazu bai? bakean, logura daukot eta.

—Eta atzo esan zenduana noiz egingo dozu, ba? Mikel deunari txindia emongo zeuntsola ez zenduan esan ba?

—Gora ba, ta goazen eleizara.

Esan ebaneko jagi zan geure gizona. Aurpegia garbitu ta jantzi zan arin-arin, eleizara eldugura ebalako.

—Aurrerengo jarriko zara gero, e?

—Zer, ba?

—Orrek bestaldeko emakume lotsabako orrek esaten daualako geuk ez dogula iñoiz deuenentzako txindirik emoten. Ikusi dagiala zelan emoten dozun! Asko emon gero!

—Bai, bai, aurrean jarriko naz. Laster dozuz emen andra guztiak zeure zorionak egiten.

Emazteak amets samurrak ebazan: «Oraingoan benetan doa. Au poza daukadana! Neure buruan ez da ikasi bearko geienetan».

Eldu zan ba Jose eleizara ta leenengo jarlekuan jzarri zan. Elizkoia ez zan ta guztiak bere adi egozan. Jaupa edo meza ostean euren plati-lotxoak artuta diru eske dabiltz mutikotxoak. «San Antonioren argientzat», «San Jose argientzat». Onela ebiltzan deadarka eleiza zear. Jose egoan ondora eldu zan ba mutikotxo gaixoa. «San Mikelen argientzat» Gaixoak begi errukarriekaz begiratu eutson Joseri. Zeredozer emoteko edo be!

—«San Mikelen argientzat».

—I, txotxo, esaiok San Mikeleri, goixetiago joan daitela oera ta ez dauala bearko argirik. Zer

argirentzat edo zer barrabas eskatuten dabe
emen! Oera goizetik joan eta bakea! Orixe esaio-
zu deunari neure partez.

Ikaragarrizko barre algarak egin ebazan
mutikoak. Baiña Papatxok negar egin eban
entzun ebanean erriko guztiak bere lepotik
barreka egozala.

Zer egingo dozu, ba, munduko gauzak onela
dira.

1931-XI-27

Endore jauna

—Endore jauna bear dogu. Nor baiña jarriko ete? Arlote bakoitzik ba dago erri onetan! Endore izateko barik artajorran ibilteko obeak dozuz.

—Gizon asko dagoz eta batek edo batek balioko dau endoretzat be.

—Zeuk edo?

—Neuk ez, etxean be nagusi barik, menpeko nazalako. Iñoren agindua egin bear dot nik, iñorena, neurea barik.

—Emakume prakaduna ezta?

—Prakarik ez dauko, baina bigotea bai. Bizarkentzale bateri lan asko emoten deutso. Astean bi bidar kenduten dau bere bizarra.

—Tira, tira, zeure emaztearen bizarrari bakean itxi dagiogun eta endorea nor izango dan erabagi dagigun. Ziñegotziak garan ezkerro, erriaren onari begiratu bear deutsogu. Anton zarra edo ona izango litzake?

—Anton zarra ez, zorrez beterik dagoalako. Aren sakelean zorrik ez eta udaletxean bai jazoko litzakelako.

—Peru bere ez da gizon txarra, baiña...

—Bai, baiña ardaotan edango leuke upela bete. Amaikatxo oturuntz edo bankete egingo geunke erriaren lepotik.

—Errian ez dago iñor, au ezkerro, endore iza-tekorik.

—Batzarra egin dagigun eta antxe erabagiko dogu ondoen.

Gure ziñegotzi argiak deitu eutsoen erriko guztiai ta batzar galanta batu zan. Baiña abade ikasten edo ibilli zar barrabasa be an egoan. Onek ixillean entzuten ebazan gaixo arein izketak. Azeri txarra ez zan, azeri txarra. Guztiak ba etxera joatea erabagi eben. Ordu erdi bat etxean egin ostean barriz bakoitzak urtengo ebala eta leenengo erriko Eleizan egoan kanpai andia joten ebana, axe izango zan endore. Txalotu eben guztiak erabaki au. Tripili-trapala etxeratu ziran. Baiña abadegai barrabasa ez zan lotan geratu. Neu ez nok izango ezta?, ta ikusiko dozue zelako endorea eukiko dozuen. Asto zentailleak, ez dozue merezi gauza onik, zuek, jan eta porrot egiteko baiño ez zareelako.

Arinka eldu zan eleizpera ta esku bete bedar lotu ebazan kanpaiaren sokatik. Bee barik goitxo ipiñi eban soka ori.

Iges egin laster batean eta ostondu zan eleizpe ertzean. Andik ordu laurden ingurura kanpai otsa entzuten zan. Dingilin-dongolon, dingilin-dongolon. Ortxe dago geure endore jauna. Nor ete da leenengo kanpai jotera eldu dana? Arnas estuka guztiak etorzan, bakoitzak endore izan gura ebalako.

—Kendu deuste peste orreik endore izatea. Zuur ez naz egon ala? Bai orixe, zuur egon naz neu baiño leenago inor eldu ez daiten, eta kanpaia jo dabela. Burua be zorotuko jat.

Ango aztrapalak eta korrikak! Guztiak eldu ziran eleizpera ta antxe egoan endore izateko zana.

—Nor, baina?

—Nor? Bartolo zaarraren astoa! Bedarra ikusi eban bai? eta arin joan zan jaten. Sokari tira ta tira, endore izatera eldu zan.

Ikaratuta geratu ziran errikoak. Ordurik ona esanak:

Endore bear dozu?

Janaria ipiñi egiozu.

1931-XII-5

Emakume izkerak

Bultzian etorri nintzan atzo erritxo batetik. Zelako egoerea, ostera, bero-berotan! Kanpoan aize otza, euria ta kaskabarra.

Zigarro bateri gogor egiten neutson eta keak goruntz egitan ebazan zirriborro meeai begiratu-ten aldia igaroten neban. Kea lakorik ez dago amets egiteko. Errezaleak ondo egiten dabe euren bide luzeetan zigarrotxo batzuk erretzen.

Baina neure amets artetik laster atera ninduen emakumetxo batzuk. Bi ziran. Dotore jantzita be ez egozan, erdiz erdi baiño. Burua estalduta eleiz zapi batzukaz. Aberatsak barik, txarto ez egozan antza aurkitu neutsen. Txir-txor, areik ekarren barriketa! Ez zan gero areen alkarrizketa edozelakoa.

—Eta zer uste dozu ba, bizitzeak orain eskatuten dabenantz? Geurean beintzat egunean amar edo amalau lauerleko bear dozuz.

—Geurean be orrenbeste eralgiten dogu. Janak daroagu geiena.

—Janak, dinozu, janak? Seme bakoitzari janari desbardiña egin behar. Neskatoak barriz, gauza meeak eta onak bakarrik jaten dauz.

Gaur berton zer uste dozu jan dogula? Bildoski atal bana, gero lebatza ta azkenean arrautzazko postreak eta igaliak. Ardoa be ez da gero txarrena ekarten, gutxi bada be ona.

—Bardin antzean geuk jan dogu. Oilloskoa ta bisigua. Seme txikerrak barriz, langostea jan bear dauala ta ekarri deutsot oi dalako zati bat.

—Patatak edo lapikokorik ez dau geurean iñork jan gura...

—Eta geure gizonak? Zitza dozu a, zitza. Bere naia egiteko be! Ez dakizu zer gertu, ez dakizu zer atsegin izango jakon. Zeira noanean an nabil gauzarik onenak erosi eziñik, baiña guztiai akatsak idoroten deutsez. Neu edozegaz ederto nago, baina etxeakoak ez.

—Neu be olakoxea nozu. Porrusalda bategaz, lapikoko puntarengo nabil.

—Bai, geurean lapikokoa aituten badozu, ona zagoz. —Lapikoko ona ez bada ezin jan leike, jan be ta. Nik txarri anka bat edo bi, okela zati ederra, lukainka bat ta abar, sartzen deutsodaz.

Olantxe jan geinke, bestela ezta ezta... —Eta igalian zer uste dozu jaten dogula? Amabiko bat edo bi egunean artu bear izaten dodaz. Olakorik! Igaliak ez dagoz merke be!

—Oraingo umeak mizkatuak dozuz, mizkatuak. Lengoan be, oillaskoa, txarri azpikoa eta lebatza neukozan mairako. Geure umeak barriz, pertzebe batzuk bakarrik jan ebazan. Gero the ona egin neutson, txarto jarri ez eiten be.

Barre naiko egin neban, emakumetxo oneen izketak entzutean. Nondik nora ataraten dabez oneik, orrelako jakiak jateko? Egunean ogetaka lauerleko irabazi arren be, ezin olako bizikera egin daikegu. Etxea ordaindu bear da ogeitamar ogerleko, ikatza, esnea, argia eta abar.

Langille batzuren emakumeak ziralako antza eukoen barriz, areik. Txindirik ez dagoala entzuten dogu, baiña an edo or badago. Eskerrak alkarri agur samurkiro egin eutsoenean, korapillo onen ertza idoro neban.

Geltoki batera eldu gintzazanean, jagi zan bata, antxe jatsi bear ebalako.

—Agur eta gorantziak etxekoak.

—Mosuak umetxoari. Agur eta etorri gura dozunean geurera.

Aldendu zaneko emakume argalena, besteak bultzian zirt-zart igi batzuk eginik, abots gogorragaz esan eban:

—Mamala orrek uste dau, janaritzaz esan dauana siñistu dautsodala. Ondo dago, neuri guzurra sartu deustela uste badau!

—Zeuk be ez neuri —erantun eutson besteak kanpoko leiotik.

An izan ziran zaratak eta deadarrak entzutekoak izan ziran! Zelakoak esan eutsezan alkarre-ri! Guzurti, arroputz, mamala, ganorabako, koi-pestona, gangarra, sarjentona, gonerre. Alako-rik!

Eskerrak bultziaren otsa entzun zana. Tra-tra urten gintzazan Bilbaorantz. Laster beste zigarrotxo bat izotu neban. Emakumeen ametsak zelakoak diran oldoztuten joan nintzan.

1931-XII-10

Ezkontza

Etxezuriko neskatilla ez zan motza, polita baiño. Aren ederrari nengoan aldi luzeetan, baita beste bat be. Basetxe andiko semea zan ezkerro, Joseberen amek ez eutson begikuna txarra egiten, ezta erdirik be! Alabeak osterara neuri begiratu eustan, beste morroskoari baiño kutunkia-go.

Zelan baiña, bidetik kenduko neban jauntzaren semea? Ez zan erreza be. Amek ez eutson itzai ardura andirik egiten, txindi otsai baiño. Landa zabalak ikusten ebazan neure arerieren eskuetan. Mendietan be; nai aiña, beiak eta idiak eta erdiak, bazkatuteko. Zaldi zuurrak eukazan arek, aizea be atzean itxiten ebenak.

Burruka gorria asi genduan ba, bion artean.

—Kenduko zaitut, laster kendu be, astotzar ori —esan neutson olako baten.

—Tximiño aurpegi orregaz nor kenduko dok ik! Joten ba aut...

—Uste dok lau txanpon daukokalako erregea baiño gorengoa azala... Lelotzar jebo ori.

Egunak aurrera egiten eben eta aldia galduten egoteko gurarik ez neukon. Erabaki bear zan gauza a. Joseberi itz asko esan neutsozan, baiña alperrik. Ameak esaten eutsona egin bear ebala, berak iñostan.

Amaikatxo gauza bururatu jatazan. Etsai areri tiro bat emongo ez ete neutson? Ez zan bidezkoa ori. Ezkongai ostu eta neurekin eroango ete neban urrusera? Txakurkeri bat zan au be. Txindi billa urrunera joan eta aberastu ostean eskatuko neban aren eskua. Baiña artean ezkonduten bazan? Buruko min asko nerabillan. Azkenean auxe egin neban. Ondo edo txarto egiña dan zeuk erabagi, irakurle.

Gaba askotan neure aurkakoa joaten zan Joseberen leiora, neu be bai batzuetan. Aren ameak laster susmatu eban ni an negoala ta deadarka jaurtiten ninduan. Bestearentzat labankeri asko eukon.

Olako baten eldu nintzan leiora, baina otsik ez neban egin. Eta an atzamar luzea sartu agora ta tripak jaurti arte ekin neban. Gomitau neban guztia. Ardao askotxo edan nebalako, dana

egoan loi ta zikin. Mozkorti galanta izango zan an
oka egin ebana.

Urrengo egunean goizetik jagi nintzan eta
Joseberen etxeruntz niñoian. Jaupatik etorren
neskatilla aren amea.

—Egun on.

—Jaungoikoak emon.

—Etxera ezta, etxera?

—Bai etxera.

—Aro ederra dauko ta.

—Bai aro ederra daukagu.

—Eta bart zer jazo zan zuen etxe ondoan
edo? Lotsagarria da gero olako bateri etxe ondo-
ra etorten itzitea be!

—Zer dinostazu? Bart zer jazo da geure
etxean ba?

—Ez dakizu ezer? Alabearen ama ona zagoz!
Erri guztian zabaldu da or jazo dana.

—Mesedez esan egistazu. Larri-larri nago.

—Oraintxe ikusiko dogu zer jazo dan. Goazen
zuen etxe ondora. Antxe idoroko doguz atzoko
jazokunaren urratzen batzuk.

Arin-arin egin genduan Joseberen etxeragiño. Ama gaixoa larri etorren neuk esan neutsozanak entzun ostean.

—Ikusten dozu au? —Joseberen leio azpira begira esan neutson.

—Au da txarrikeria! Mozkorti galantak ibilli dira bart emen. Jesus! Nortzuk baina ausartu dira neure etxeragiño etorten olan?

—Ara an goian dagoan jauntzea. Ango mutilla emen izan zan bart. Illuntzean ikusi neban mozkor ikaragarri bategaz. Oka egin dau emen gero. Lotsarik be ez dauko. Igande guztietan mozkortuta dabil.

Joseberen amek ixillik entzun eustan guztia. Ikaratuta egoan. Bere alabearentzat autatu eban mutilla mozkortia zala jakin eban. Ziñaldari antxe egoan txarrikeri guztia.

—Gura dozu geure etxean sartu?

—Pozik be bai!

—Erdu ba, batek edo batek pozik ikusiko zaitualako.

Alantxe izan zan. Josebek pozik artu ninduan. Laster ezkontzako arazoak zuzendu ta bakea. Martin neure etsaia ikusten dauan bakoitzean

amaginarrebak «pug» egiten deutso. Mozkorti
bat dalakoan dauko. Egia baleki!

1931-XII-13

Gai barik

Arraintzan amorratua Joseba auzokoa. Igan-de goizetan zarata andiak izaten dira euren etxean.

—Gosaria gertau deustazue edo? Sua be ixotu barik oindikarren? Lotsarik be ez daukozue, lotsarik be ! Arrain asko ekartea atsegin jatzue gero?

—Zagoz ixillik gizona, emen daukozu gosaria prest eta.

—Arin urten gura neuke ta...

—Eguerdirako ostera lukainka bi, tortillatxo bat, lebatza ta igaliak ipini deustudaz. Ardoa bonbillatxo baten daukozu.

—Ederto dago, andratxo, ederto! Ikusiko dozu zelako arraiñak ekarriko dodazan.

—Ez dakit ba arraiñik ekarriko dozun, baiña bai oidalako jakiak daroazuzala. Ez zara txarto bizi, zeure arraintza kontuakaz.

—Ez ikaratu, danerako atarako dogulako. Mungiako ibaira noa bai? eta an diran arrankari ederrenak ekarriko deustudaz. Aste guztirako

janaria eukiko dogu. Okelarik ez arraiñik ez dozu zeiatik ekarri bearko.

—Ea ba ekarten dozunentz askotxo, gero?

—Agur. Ba noa arin be arin, bultzia artu dagidan be. Bultzi arek arin egiten dau.

—Ba daroazuz gauza guztiak gero?

—Bai. Ementxe daukodaz janariak, beste sakel orretan edaria. An barriz oiñetako batzuk. Ez dot ezer uts egingo

Tripi-trapa urten zan bere etxetik. Askao txaide zear laster eldu zan Mungiako geltokira. Sartu zan bultzian eta dri-dra dri-dra an joian goizeko ozkirritan. Erandi-Goikoa, Asua ta Artebakarra inguruetan eiztarien tiroak entzuten ziran. Artaxori bat ikusi ordukoxe, milla eiztari urtetzen dira Bilbaotik. Txakur zuurrak, ausika ebiltzan. Eta bultziaren kea zeruan ikusten zan luzaro, goizeko laiño artean ez zelako ostenduten.

Bizkargi ganetik agiri zan eguzki argia. Landa zabaletan beiak eta idiak egozan bedarra jaten. Esne saltzen dabiltzanak beean ikusten ziran euren kaikutxoakaz.

Txori—Erriko landak baizen ederrik ez dago iñon, batez be goizalde argietan. Zoratuta joian

geure arrantzale argia be. Leioko leiarrak laiñoa eukolako edo, idigi ebazan guztiz. Baiña atsotxo batek mesedez zarratu egiala eskatu eutson.

Mungiara eldu zaneko, tripi-trapa abiatu zan ibaira. Maketo antzeko batzuk be urgarisoak atrapatzen edo, an etorzan. Arraintzan etorzanak baiño geiago ziran eiztariak. opatxo bana artu eben, barrua poztuteko be...

Eta geure Joseba arro-arro muna ertz batera joan zan. Erreka ertzean altzak dagoz, zumel eta bedarrak. Angira asko dagoela diño, baina ez arrankaririk. Josebari ardura ez eutsun ezerk be. Jezarri zan patxada ederrean, atara eban lukainka mustur bat eta ardaotxo gozoagaz ondo jarri zan. Rist-rast, gora ta bera, uretan loiñak ebiltzan. Arein zillarrezko ziztak ikusgarriak ziran. Barre egiten geure gizonak: Laster jausiko zaree, laster; ibilli orain, ibili, gero neure sakelean artuko zaituet eta!...

—Eta zer dakarzu ba? Arrain asko edo?

—Zagoz ixillik andrea, zagoz ixillik...

—Zer jazo jatzu ba? Ezbearren bat...

—Amuak eta kainaberea ez jataz aitzu ba!

Apareju barik joan naz, etxean dana itzita!

1931-XII-20

Intxaurrak

Ezkontza egin bear zala ta, ezkontza eratu eben Kortabarriko eta Etxegoiko sendiak. Neska-mutillak ez ziran ezagututen, baiña gurasoak alantxe gura ebelako, euren be pozik egozan.

Igande baten Mungiako ardandegi koskorrean alkartu ta ezagututeko, alkarrerri dei egin eutsoen. Arro-arro jantzita etorri ziran guztiak. Neskea puntillazko gonakaz eta guzti.

—Egun on. Zelan bizi gara edo?

—Ondo ta zeuek? Au dozue alabea ezta?

—Bai, auxe dogu.

—Ara Mikel, auxe dozu ezkongaiia. Itz egizu beragaz. Alkar ezagutu dagizuen be. Neska-mutillak alkarrerri arrera biurra egin eutsoen. Bil-durrez antzo urreratu ziran. Gorrigorri eukon bere aurpegia neskeak. Mutillak be itzik ezin egian.

—Poztuten naz zeu ezagutzeaz.

—Neu be bai, zeu zaran ederra ikusteaz.

Ez eben beste itzik egin geure ezkongaiok. Gurasoak ziran an guztiak. Areik rasta-rasta

berba egiten eban. Zelako dotea eroango eban neskatileak eta noiz ezkonduko ziran.

Amak emoten eutsozan izara barriak, oe bi, lau oeganeko, azpillak, suteko tresnak. Ganera antziñako kutxa zarra be emongo eutson. Usui-lla, bururako zapia ta pare bi oskin. Ez zan gitxi be. Txinditan bosteun erreal naiko izango ziran.

Mutillari ostera idi bi ta beiak, gurdi bat, area, goldea ta astotxo bat. Txinditan askorik ezin emongo eutsoen, beste bost neba-arreba eukozalako. Millatxo bat erreal emongo eutsoezan, itxurarako be.

Konforme ziran guztiak eta bakean bazkaria jaten asi ziran. Areen barriketak eta zeresanak!

—Ta Kasilda, zelako iruditu jatzu ezkongai edo? Ez da morrosko galanta?

—Mikel berak be ez daroa edozelako neskea. Berakata baiño be fiñagoa dozu au.

—Bai, gurasoen antzekoak dira— an egoan batek ots egin eban.

—Ola, ta gauza txarra al da gurasoen antzekoa izatea?

—Ez ba, orrexegaitik esan dot...

Jan eta edan ostean jagi ziran maaitik. Txor-txor izketan ebiltzan guztiak. Ezkongaiok alkarrekin barbarik be ez eben egin eta urreratu ziran.

Mutillak misterioz esan eutson:

—Kasilda, erdu ona. Gauzatxo bat daukot zeuretzako.

—Zer gura deustazu edo?

—Egia esango deustazu, egia?

—Esan egizu ba, esateko ori.

—Gustaten ete naitzu? (Au esatean lotsaz geratu zan morroskoa).

—Ara, erantzungo deustut zortzi egun barru. Pentsau bear dot leenago, pentsau.

Ondo dago. Orain artu egizu nekartsun erregalutxo au.

—Ene! erregaluak ekarten ibilli zara?

—Bai, eutsi.

Eta bere sakela zabaldu eban Mikelek. Zer uste dozue emon eutsola? Amabi intxaur erregalutzat emon eutsozan emaztegaiari geure Mikel orrek.

—Asko be ez da, baiña borondate onez ekarri dodaz. eta...

Olantxe ezagutu ziran geure gazte apalak.
Gaur sei umeren gurasoak dozuz eta pozik bizi
dira.

1931-XII-23

Idazlea

Illargi ederra ikusten zan lorategian eta zeruko izarrak zugatzean kiñu egiten eben. Bake zoragarria sentiten zan alde guztietan. Loren usain bigunak joten ebazan Karla eta bere emazte zan Pilare. Antxe egozan urruti aldera adi. Itz ez eben egiten, zerura begira egozan eta.

—Lo zagoz, Pilare?

—Ez, itzarrik nago, baiña amesetan egiten dot. Ez dakit jazoten jatan.

—Zergaitik ez ete zoaz zeure gelara ba? Antxe atsenduko zara.

—Zoaz nai badozu, ementxe nago ederto illargi beteari adi.

—Ba noa, ba. Otzak ez deust onik egiten.

Eta joan zan Karla. Bere emaztea geratu zan lorategian eta amets egiten eban. Begiak zeru urdiñean eukozan. Zegaitik orren itun? Berak be ezin igarri izan eban.

Idazle ospetsu bategaz ezkondu zan, irakurgaietan irakurten ebazan gauza ederrak sentidu

nairik. Karlaren idaztietan agertzen diran maitaleak eta jazoerak ikaragarriak ziran

Gizona barik idazlea maitatu eban. Alako idaztiak ebazan gizona maitagarria izan bear. Mundurik mundu ibilliko zan, toki guztiak ikusten. Eta ez jan eta ez edan beti zoro baten antzean ibilliko zan alde danetatik. Amets onek ezkonduazo eban, baiña idazlea beste gizonak lakoa zala ikusi eban. Goizean jagiten zan oetik, gosalduta ostean idazten jarten zan. Gero bazkalduta eban, akeita artu, abaro egin eta gaberarte idazten iñarduan.

Nekegarri egiten jakon Pilareri bizitza a. Zoratuta bizi gura eban. Irakurgai bateko andereñoa edo izan gura eban. Baiña etxean ez eban ikusten ezer be. Eta urrun joateko asmoa sortu jakon. Betiko aldendu etxetik.

Sartu zan bere senarraren gelara ta lotan egoan. Lotan idazle ospetsu a. Nork siñistuko eban alakorik. Jazki lodi bat artu ta urten zan etxetik. Landak eta aranak zear joian. Gau gardena zan eta ugarisoen karkarkarrak entzuten ziran.

Ibilli ta ibilli aintzira ondora etorri zan eta an lamiñak bailiran dantzan ebiltzan lorak, aizearen mosura. Gau zoriontsu aretan benetan nabaritu zan irakurgai bateko anderea.

Eta gabeko lilluragarri aiekaz arin baiño ari-ñago etxera itzuli zan. Urrengo egunean bere senarrari guztia esateko asmoa eroian. Oi zelako idaztia egingo eban gauza areikaz.

Bizitza nasai billa doian emakumearen larriak, izentzat jarriko eutson idaztiari. Gabero urten bear eban ba, urrengo egunean guztia edestuteko.

Senarrak entzun eta entzun egiten eban.

—Baiña noiz idatziko dozuz neure jazoerak ba?

—Zagoz bakean, egingo dodaz eta.

—Benetan izango da irakurgai zoragarria egingo dozun ori. Gabeko illazkara emakume bat bakarrik zelai zear abesten, abesten. Aintzira urdiña bere ondoan eta gautxoriak gaiz. Noiz olakorik ikusi edo entzun dozu gero?

—Ez, gauza ederrak dira idazlari batentzat.

—Ea ba laster egiten dozun.

Eta egin be egin eban. Ots egin eutson emazteari ta ingi pillo bat eskuetan ipiñi ostean, esan eutson:

— Tori, zeure irakurgai ori.

—Ene bada, auxe poza.

Zabaldu eban lenengo ingia ta ona zer irakurri eban:

«Emakume zoro baten ibilketak» Ikerearen ikerea eskuetatik jausi jakon ingi pilloa. Irakurgai bat idazteko gai billa ibilli ta zoratzat artu bera. Senarrak igarri ebazan aren gogaiak eta esan eutson labankiro:

—Idazteko ez da zoroaren eran ibilli bear, biotzera sarritan jo baiño. Barruan idoroko dozuz irakurgairik ederrenak, beste guztiak guzurra baiño ez diralako.

1932-I-27

Urrutizkiña

Bazkunetakoak asko giñan arren, beti adiskide batzuk alkarrekin batuten giñan Batzokiko areto baten. Ezkonduak batzuk, besteak ezkongaiak, amaikatxo barre egiten genduan. Alkarregaz gengoan bitartean baiña, bati edo bati ots egiten eutsoen urrutizkiñetik.

Ola e? orain be emakume liraiñen batek deitu deutsu. Beti castigador!

Arrotuten zan au entzun ostean, ezkondua zan arren, bere adi emakumeak egozala jakiteak atsegin egiten eutsolako.

Urrengo egunean be deitu eskuen batzuei. Neuri be iru edo lau bidar ots egin eusten, baiña izparringiko arazoetaz baiño ez zan. Gengoan guztioi urrutizkiñez deitu euskuen, bati ezik. Gizon ona zan, baiña itun antzean egoten zana.

1

Geure barriketak entzuten ebazan, berak itz gitxi egiñik. Etxekoakaz ondo be ez zala konpon-tzen esaten eben, baiña ez zan egia. Emazte maitagarria eukon bai? eta erranak be aurpegi

ona egiten eutson. Zergaitik egoan ba bekoki baltz? Berari urrutizkiñez ez eutsoelako deitzen? Amaikatxo ganorabakokeri esaten genduzan geuk urrutizkiñetik, bateko ezkongaiak, besteke emakume lirain bategaz itz genduala ta. Guzurra geienetan, baina alakoxe zoroak gara.

—Jauna, urrutizkiñetik ots egiten deutsue — batzokiko otseiñak iñoan.

—Emakumeren bat edo izango da— barreka esaten geuntson.

Itun egoan geure gizona. Olako baten bere etxekoai adierazo eutson jazoten zana adiskide on batek. «Ara ba, au ta au jazoten jako batzokian eta ondo litzake biar edo deituko bazeuntsoe urrutizkiñetik». «Laster ots egingo deutsogu ba, ori baiño besterik ez bada», erantzun eutson erraiñak.

Urrengo egunean ba alkarrekin izketan gengoan, abertzaletasuna edo politika arazoak geure agoan zirala.

Bakean gengozala, jartu zan batzokiko otseiña.

—Emen ete dago Z tar X?

—Bai, ementxe dago —guztiok batera erantzun genduan.

—Urrutizkiñetik dei egiten deutsoe.

An ziran aztrapaladak eta barreak! «Arrano-tan iñoiz ez deutsuela deitu? Ola! Bestela zagoz!

Urrengo egunean be urrutizkiñetik dei egin eutsoen. Laster joan zan eta emakume arexek itz egin eutson. Auxe siñistu eziña! Nor da baiña emakume lirain ori? Abots samurragorik ez dot entzun neure bizitzan.

Zorioneko urrutizkiñak egunero dei egiten eutson eta geure gizon ituna aldatu zan oso. Izketan amorratua zan ta iñork baiño berba geia-go egiten eban. Olerki batzuk be egin ebazan. Bere emazte eta erranak ikaratuta egozan. Tamalez eutson labankeri lar egiten emazteari. Bestearen abotsak zoratuta eukon. Itz egiten ebanean, aren goralbenak ziran. Emakume lirain ori aurkitu baneu neure bizitzan. Baiña orain belu da! Ez, jarraituko deutsot berak gura dauen tokiraiño! Zelako abotsa!

—Baiña nor dan ez dakizu?

—Ezin dot igarri. Laster jakingo dot...

Aste bi edo iru igaro ebazan amets atsegin-garri areikaz. Aldatu jakun gizona, ta beste bat zala esango zenduan. Pozik agur egiten euskun txaide zear. Akeita artzen leenengo etortzen zan. Egunak joanda baiña, bere emazteak igarri eban ari jazoten jakona ta dei egin eutson.

— Erdu gelara, neure amaren gelara, gauza-txo bat daukot zeuri esateko ta.

Ikaratu zan gizona, zer zan edo be.

—Joseba, aldatuta ikusten zaitut aspaldion — amaren aurrean esan eutson emazte aratzak.

—Ez ba, pozik nago zeure zorientasuna ikusten dodalako. Ez naz izango pozez ba, zeu lako emazte bat badaukot!

—Ez dakit ba. Orain iru aste dira ta aldatuta ikusten zaitut ta. Leen ituna ziñan, gaur oster, barritsu zabiltz. Abesten be ikusten zaitut. Olerki bi idoro dodaz zeure kutxan. «Emakume amesgarri bati» Buruan irakurri dot. Argitaldu egiskuzu zer jazoten jatzun.

—Ezer be ez!

—Ezertxo be ez? —samurkiro erranak itaundu eutson— Batek edo batek ez ete deutsu urrutizkiñetik deituten?

—Ez, ez ba... —zalantzan erantzun eutson.

—Ez, ezta? Eta batzokian zagozanean egunero neuk ez ete deutsut deituten eta neugaz ez ete dozu itz egiten.

«Seguru» be, batzokian iñork ez ei eban jakin gertakizun au! Erranak dei egiten eutsola egunero urrutizkiñetik!

1932-II-14

Zenbat bear dozu

Saltoki edo dendan egoten diran morroskoak, eroapen edo pazientzi andia euki bear izaten dabe. Onek au, besteak ori, andikoak, ostera, milla oiui! Eun edo tela atara eragiten deutsoez. Saltokiko mutillak ixillik guztia egiten dabe, zere-dozer salduko dabelakoan.

Sarri ostera, ordu bi egin ostean, emakumeak esaten deutsoe: Ikusiko dogu ba, neuretzat ez da oial ori ta. Neure adiskide batentzat dan ezkerro, esango deutsot ementxe daukola eunik ederrera. Urteten dira erosleak, ago zabalik dendako mutilla itxita. Olakotan asko ikusi izan dot aspaldion. Uri andiko andereak beste zereginik ez dabe eukiten eta goiza olan igaroten dabe. Au ikusi, bestea ikertaldu, ta itz txitxi-putxu egin alde guztietan.

—Olaberen saltokia au ete da?

—Bai, auxe dozu, emakume. Zer gura dozu ba?

—Panatxo gorri bat billa nator eta emen daukozuezala panarik onenak esan deuste. Atara egizuz batzuk ea.

—Bai, oraintxe atarako deutsudaz. Goian ere asko daukoguz eta uste dot aurkituko dozuna gura dozuna.

—Margo bakana gura neure ba...

Dendako mutilla asi jatzun atara au, bestea be atara. Saltokian egozan telarik geienak atara ebazan.

—Ez ete daukozue besterik? Ez jataz atsegin oneik.

—Bai, ba daukozuz geiago be. Oraintxe ekarriko deutsuguz.

Eskertuko zaitut ondo serbitzen badeustazu. Mutillak aalegiñak egin ebazan panarik onenak ataraten, baiña erosleak alakorik ez ebala nai ba, erantzuten eutson.

Ordu bi gitxienez egin ebezan panak ikusten. Alperrik, berak gura eban lakorik ez egoan eta. Beste emakume batzuk be an ziran saltokian eta eurai be arin serbitzeko eskatuten eben. «Tira arin-arin, gizona, egun guztian ezin egon geintek ez emen eta».

—Mesedez, itxaron egizue apurtxo bat, oneri serbitzen nagoan artean.

—Eske nik gura dodan lako pana gitxi dagoz eta... Erakutsi eutsozan pana guztiak eta gero an ebillan mutil koskor bati deitu eutson.

—Txo, ekarri egizak goian dagozan panak. Antxe dagoz ertz baten—. Aztrapalan igon zan mutikoa eta laster pana pillo bategaz beratu be.

—Emen dakardaz geienak. Panarik ederre-nak, iñon onak badagoz.

—Oneek be ez dira neuk gura dodazan lako-ak.

—Tira ba, ekarri egizuz beste guztiak be. Zor-tzi edo geiago dagoz eta...

Igon zan mutikoa bigarrenez eta etorri zan pillo galantagaz.

—Auxe da neuri atsegin jatana —zarata egin eban emakumeak, azkenengo pana gorria ikus-tean—. Noizedonoiz azertau, dozunean be!

—Poztuten naz zeure gustukoa bada.

—Bai, pana ederragorik ez dot ikusi iñon be.

Alboan egozan emakume guztiak batu ziran pana ori ikusteko asmoz. «Ederra da izan be» iñoen. «Akats batzuk be ba daukoz», iñoan beste

batek, sekulan ez zan bakonformetan ezegaz be ta. «Zer dauko txarrik pana onek ba?» itaundu eutson morroiak.

«Txarra be ez da egia esateko, baiña obeak be ba dira». Barre irritxo bat egin eban mutillak, zer egingo eutson ari ba!

Begiratu emetik, ikutu bestetik, ordu erdian ibilli zan panea erosten etorri zan emakume ori. Azkenean pozik egoala ba, tratu egiteko asmoe-tan asi ziran.

—Ara, salneurria zenbat dan jakin baiño leenago, zenbat bear dozun jakin gura neuke, asko eroan ezkerro merketxoago be egiten dalako.

—Askorik ez dot bear ba...

—Zenbat bear dozu ba?

—Ara ba, atzazala lakoxe ataltxo bategaz naiko daukot, etxean legortuta daukodan txori bateri gangartxoa ipinteko gura dot eta.

An izan ziran barreak munduaren azkenetik be entzungo ebazan!

1932-II-16

Antzokira

Neskatilla polita zan eta bere atzean baten baiño geiagotan joan nintzan. Aren begi ederrak biotzeragiño sartu jatazan. Itz egin gura izaten neutson, baiña itz egin barik beragandik alden-duten nintzan.

Olako baten neure lagun batek nor nintzan azaldu eutson. «Poztuten naz zeu ezagutzeaz». «Neure bizitzako egunik ederrena auxe izan dala uste dot nik...».

Andik egun batzuk, aurkitu gintzan egurastokian. Agur bana zinkatu ta aurrera egin genduan. Neure burutik ezin kendu barriz neskatilla aren begiak. Eta zelako biotza ete eukon gero? Aren begiak biotza be ona eukola erakusten eben. Apurka-apurka asi gintzan ba itz egiten be. Egun baten rasta esan eustan:

—Antzokira zergaitik ez naroazu? Zeu zaran gizona izan eta antzokira egun baten ez nozu eroango?

—Zeuk gura dozunean...

—Biar?

—Biar ba. Arratsaldeko iruretan itxarongo zaitut txaide ertzean.

Egun aretan itaundu neutson izparringiko buruari antzokirako sarrerarik eukonentz. Baietz ba. Ekarri egistazuz bi... Bi ez daukodaz, bat baiño. Tori. Artu neban eskuetan, baiña beste bat bear nebar ba. Neskatiilagaz joateko beste bat bear...

Adiskide bateri eskatu neutson antzokirako sarrera. Emon eustan berea. Pozik nengoan eta urrengo egunez joan nintzan antzokira. Neskatilea an egoan. Neure ikara antzoki barruan sarrera bat aulkirako ta bestea «oillotegirako» zirala igarri nebanean. Lotsaz neskatilla joan zan aulki ederrera ta neu oillotegira. Andik ez neban entzun ezertxo be.

Bitarteko baten gozoak saltzen dira antzoki aurrean eta joan gintzan ara. Zaldun baten antzera portau gura neban ba ta...

Laurleko bat bakarrik neukon sakelean. Besterik ezer be ez. Tira ba, neskatilleak ezer eskatu baiño leen, neuk eskatuko dodaz gozo batzuk, niñoan kolkorako. Olantxe laur leko baten gozakiak erosi ta kito. Zaldun eran geratuko naz. Eldu

gintzan gozoak egozan tokira. Lau gozo edo pastel... eskatu nebazan.

—Ez, nik ez dot gura gozorik —erantzun eban neskatilek.

—Zer gura dozu ba?

—Radio txol edo kopatxo bat eta Royal gozoak gura dodaz.

Izerdi beroa urteten asi jatan. Ene bada ta zer balioko ete eben gauza areik! Sakelera sartu nebazan lau bidar be neure eskuak, baiña an ez zan besterik aurkituten laurleko bakarra.

—Edari orrek gatx egingo deutsu.

—Ez, neuri gatxik ez deust ezerk be egiten —barreka erantzun eustan.

Atara ebazan geure serbitzariak edari ta gozoak. «Zenbat dira» itaundu neutsan eta bereala entzun neban: «Amar laurleko».

Zeruak eta lurak zelako itzulketak egin eustezan! Oraindik azkeneko ondartxoa edaten egoan neskatilea ta bertan bera itxi neban. Txai-de zear txerrenak daroan gizona baino ariñago galdu nintzan. Ez nabe beingoan aurkituko!

Neskatillaren begiak eta itzak ordutik ona ez
jatazan atsegingarri. Olako ordurik ez dot neure
bizian igaro!

1932-IV-3

On egin

Adiskide on bati mesede egitea baizen gauza atseginkorrik ez daukozu. Neure eskuan bada, pozik mesede ori egiten deusot. Izan be sari ona dogu geure adiskidetasunari opalpen bat egitea.

Baiña sarri ori egoki-egoki dadintzat, ondo betestu bear doguz zelako mesedeak egiten doguzan. Sarri ba mesedeak geure aurka edo ala biurtzen dira. Ezetz? Irakurri egizu emen idatziko dodana. Egia osoa dozu.

Ezkongaietan nenbillan neska lirain batekin. Eta beste ezkongai ziran gazte bi etorten ziran geurekin. Neure adiskide ona zan bai? eta ondo alkar artzen genduan.

Jonek egun baten esan eustan:

—Neure emaztegaiaren argazki edo fotografi bat euki gura neuke etxean.

—Ori ez dozu gauza zailla ba.

—Bai, neuretzat gauza gatxa da benetan, etxekoak ez dabelako neskatilla orren argazkirik ikusi gura izango.

—Eroan ez ta kitu.

—Baiña, ara zelan polito egin geinken gura dodan au...

—Esan egistazu ta orduan jakingo dogu.

—Zeure emaztegaia nor dan ez dakie neure etxekoak.

—Ez, nor dan ez dakie. Ni ezkondua banaz be ez dakielako.

—Ederto ba. Neure emaztegaiagaz argazki bat atarako dogu ta zeure izenpeagaz edo dedikatoria bategaz neure etxera eroango dot.

Etxekoai esango deutset zeure emaztea dala. Olantxe begi aurrean eukiko dot emaztegaiaren argazkia.

—Ori baiño ez bada, deitu egiozu argazkiak ataraten dauzan bati eta ementxe amaituko dogu argazkia.

Esan baiño leen, ara eldu jakun argazkiak ataraten ebillan bat eta neure adiskidearen emaztegaiakin atara eustan argazki on bat. Gero imiñi neutson izenpe on bat onelan. «Arkaritar Jon, neure adiskide onari opalduten deutsoe senar-emazteak, euren argazkian». Berebiziko iruzurra zan auxe!

Etxekoak arin itaundu eutsoen nor zan neskatilla.

—Ara ba ama, auxe da neure adiskide baten emaztea.

—Neskatilla polita da.

Jonek egun alaituak igaro ebazan bere etxean eukolako ba emaztegaiaren argazkia. Etxekoak ez eben uste izan tranparik egoala. Baiña munduko gauzak ez dira lurrerako. Txerrenak edo Jaungoikoak, ez dakit nork, neure emaztegaiaren aitea eroan eben bein Jonen etxera. Nere adiskidearen aitea ta neure emaztegaiaren aita ezagututen ziran. Alkarrekin itxaso zear ibilli ziran ta.

Laster ezkonduteko nengoan. Baimena be eskatutu geunkon. Ikaratu zan neure aitagiñarreba izatekoa zana.

—Norena dozue argazki au? —itaundu eutsoen.

—Ori ba X... jaunarena da. Bere emazteagaz dago.

—X... jaunaren emaztea au dala ziur dakizue?

—Bai orixe! Or atzean dauko bere izenpea ba.

Neure aitagiñarreba izango zanak ikusi ta irakurri eban bein ta birritan argazkiaren atzean egoan izenpea.

—Ondo dago, ondo dago. Ezkonduta barik ezkongaiia zala ta neukon mutil au.

Jonen etxetik urten zanean zuzendu zan bere etxera ba. Eta zoritxarrez bere etxean an nengotan. Amagiñarreba be neurekin egoan. Pozik izketan gengoanean sartu zan aitagiñarreba. Umore txarra ekarren, baiña ez neutson igarri zergaitik.

Izketan jarraitu genduan eta gaba zalako agur egin neutsen. Atera lagundu eustan. Pozik ni. Aitagiñarrebak lagunduten eustala ateraiño ta barrua alaitu jatan.

Baiña atean beste berbarik izan barik auxentzun neban:

—Geiagotan sartzen bazara neure etxean, burua kenduko deutsut. Baten ezkondutea ez ete jatzu naiko izan ala? Azalpenik asko emon neutson, baiña alperrik. Alabea uritik urrun eroan eben ta betiko galdu neban. Zoritxarreko gizon ez banaz!

Erdu geurera

Erriko jaiak ziran, Martoloma deunaren egunak. Erriko zaindari deunaren eguna oturuntz eder bategaz baiño ez dabe ospatuten geure errietan. Bai ba, urdaillari emon bear berea.

Baiña jaupa edo meza nagusira be joaten dira guztiak. Izlari dotoreak beti era batera goralduten dabe deuna. Croiset abearen «Vida de santos» edo irakurten dabe guztiak eta ristirasta izpar edo barri bardiñak beti. Bolandotarren idaztiak irakurteko eroapen andia euki bear da ta.

Erriko atsoak izlariak baiño obeto dakie zer esango dauan sermolari barriak. Orain auxe, gero bestea. Euren aulkitxoetan jezarrita dagoz ixil-ixil eta barre egiten dabe, izlariari ezer aaztuten bajako.

—Ara, ez dau esan zelan deuna eroan eben gaizkiñen aurrera ta zer erantzun eban.

—Bai, eta Asia aldean egin ebazan alatzak be aaztu jakoz.

Olan diñardue atsotxoak. Jaupa dotorea izaten da, Udala etorten da ba txistu ta tanboliñagaz. Bolanderak jaurtiten dabez eta umetxo guztiak jantzi barri usaiña dakarre. Iru jauparik mezea egiten dabe. Bazkari ederra jango dabe gero erretore jaunaren etxean. An dabiltz txauru jaunaren otseiñak edo lokak bazkaria atonduten.

Mezea amaituten da. Udala berriro doa bere tokira, ardao zuria ta gailleta batzuk artzeko, be. Jaupariak be sakristian artzen dabe leenengo tangadea. Emakumeak arin doaz etxera, batez be zaarrak. Gazteak erriko zelaian dagoz, euren buru ganeko oialak kendu eta tolestuten. Umeak barriz, txakur-txiki guztiak eralgiten dabez barkilleru ta gozodunak etorri diralako.

Gizonak barriketan dagoz. Au, ori ta bestea esaten. Kanpokoai be euren etxera etorteko erregututen deutsoe. Kasimiro Errotabarrikoak be orixe egin eban Josantonegaz.

—Bai gizona, geurean jango dozu bazkaria. Zertan joango zara erriko ardandegira ba?

—Ez. Urrengoan joango naz. Gaur ortxe jango dot ederto.

—Ezetz, ba. Asarratuko naz ez bazatoz geurera.

—Tira ba, ainbeste erregu egiten deustazun ezkeru, zuen etxera joango naz.

Au entzun ebanean Kasimiro larritu zan. Bai ba, alako erreguak beti dira guzurrezkoak: «Erdu geurera, antxe bazkalduko gara ta». Baiña barrutik diño: «Ez adi etorri».

Umore txarrean para zan geure gizona ba, bere adiskideak baietz erantzun eutsonean. Trapala-trapala etxeruntz joiazan. Estratza luzea zan. Onetan Kasimirak esan eutson Josantoni:

—Geure etxerako estratzea txarra da, an laster iztar bat apurtuko zeunke.

—Ez dago ardurarik, orregaitik igongo naz.

Kasimiro ez eutson ondo urten itzak. Zelan esango eutson eurenera ez etorteko? Buruan erabillazan gogai asko, baiña bat be ez eban ontzat artzen.

Azkenean auxe esan eutson:

—Geurean dagoan txakurrak iztar bat jango leuskio ezagututen ez dauanari.

—Zeugaz badoa be bai?

—Bai gizona! Batez be, jaietan bazkaritan iñor badator, laster igarten dau a ez dagoala bere tokian.

—Txakur zuurra daukozue.

—Zuurra da, baiña ez da gauza gaitza ori ulertzea. Ez dakizu, ba, txakurraki konbidau batek bere janaria kentzen deusola?

—Zer? Txakurraren janaria jango dodala uste dozu? Ez ori! Probetxo ona egin daitsula zeure bazkari ederrak! Agur! Ba noa erriko ardantegira. Antxe jango dot patxada ederrean eta.

Kasimiro larritu zala uste dozue au entzutean? Bai zera. Aren poza ikaragarria izan zan. Etxean be edestu eban jazo jakona. Barre galantak egin ebezan guztiak egin be. Konbidauten bazaitue, ez leenengoan joan bada ezbadan be.

1932-IV-24

Malmutza

Morroi malmutza (taimado) zan Jonek eukon morroia. Artzaiñak ziran ezkeru, mendian egoten ziran beti. Ikaragarrizko lapurketak egin ebazala morroi arek urikoak esaten eutsoen ugazaba jaunari, baiña onek ez eutson ezer siñestuten.

—I, Martolo, egia dok lapurra azena? Zelakok entzun joadazak igaitik, ikaratu be ikaratuta naiagok. Barrabasa az, egiak badozak entzune-koak.

—Barritsu asko dago ludian, jauna, barritsu asko. Neu ez naz orreek uste daben aiñako lapurra, ona nazan arren.

—Jakín gura neukek ba, zelako azar. Otsaren ziñaldari, errekan ura.

Bildots aroa zan ta Manu zaarra igon zan mendi goira, Joni erosi bear eutsola ta. Tripili-trapala igon zan. Izerdi galantak urten eutson beko-
kitik be. Bideko muna ganetan atsedén egiten geratu zan sarri be sarri. Urteak lepoan daroazanak, ezín ibilli igotika.

—Kaixo, Manu antziñakoa, zelan gabiltz edo?

—Txarto ez ta ondo be ez.

—Orduan ederto! Erarik onena, ondo zabiltzala esateko, orixe dozu. Ludion, ba, garaurik ez dago oso ondo bizi danik.

—Beste batzuk txartoago bizi diralakoan pozik nabil.

—Iñoren zoritxarrak geurea arinduten deusku, izan be.

—Bai, Urkoaren ogi gogorra ikustean, geurea uretan ipinten dogu, beratu daiten.

—Zoritxarreko bakar bat baiño ez balitz bizi-tokion, aren samiña lakorik ez. Baiña askoren miñak, guztion penak.

—Tira ba. Zeu be ondo zabiltzala ikusten dot eta.

—Bai ba, neure ardiakaz, neure mendiakaz bakean bizi naz. Iñori ezer zor ez, iñori txarrik ez deusut egiten, goikoagaz be bide lagun. Zer gura dogu geiagorik ba.

—Goikoagaz bakean ibilli ezkerro, ondo gagoz; beste gauzak ez dira ezer.

Agure biak barriketaldi luzea egin eben eta Manu zaarrak bildotsa erosi ostean, agur egin

eutson adiskide onari. Artu lepoan bildotsa ta bide zear joan zan, estratzatik.

Martolo zozo maltzurra atean jezarrita egoan. Jon be txabola aurrean, bidez joian Manuri begira.

—Ezetz ostu bildotsa agure orri? Ain azkarra baaz, egingo dok ori be.

—Ori bildotsa ostutea ez da gauza gatxa. Laster dozu ementxe arkume ori.

—Ikusiko joaguk ba.

Aurrea artu eutson Manu zaarrari geure morroi biurrak eta ertz baten, zapata edo oskia kendu ta itxi ebazan. Baiña ez biak alkarren ondoan. Bat itxi ta berrogei neurkin urrun txoago bestea. Manu zaarrak ikusi eban oskia, baiña ez eutson kasurik be egin. Joan eta joan bestea be ikusi eban. «Kontxo, zapata oneik onak dozak» kolkorako esan eta itxi eban bildotsa bidean. Bai ba, beste oski billa zuzendu zan! Bitartean ostenduta egoan Martolo gaiztoak artu bildotsa ta otartetik iges egin eban. Manu zaarra eldu zanean bere oskiagaz, ikaratu zan.

Bildotsik ez egoan an! Erdi negarrez joan zan Jonen txabolara. Jazo jakon guztia azaldu eutson.

—Beste bildots bat ekarri egistazu, bat be barik ezin joan ninteke ta.

—Merketxoago egingo deutsut au. Artu egizu amar laurlekoan ta zoaz. Eta gero au be ostuten badeutsue?

—Ez, au ez deuste ostuko.

Manu zarra aldendu zaneke, Martolok esan eutson ugazabari:

—Baietz ostu bildots ori be.

—Ezetz !

Tximista baiño ariñago joan zan morroi zitala. Estaldu zan bide ertzean eta asi zan beeka beeka, arkuma bat balitzan. Manu zaarrak bee areik entzutean itxi lepoan eroana ta bidetik at egin eban. Leengo arkume billa ta! Bitartean Martolok beste arkumea ostu eutson.

Ordu erdi egin eban agure zaarrak bere arku-me billatu eziñik. Azkenean bidera urten zan. Eta zelako negarrak egin ebazan berak, bildotsik aurkitu ez ebanean. Bigarrena be ostu eutsoen ta.

Joan zan Jonengana ta malkoz agertu eutson jazo jakona. Martoloren barriak ez ziran makalak

be! Azaldu eutsoen zer izan zan eta Manu zaararak negarrez barre egin eban.

—Ez az makala be; i lako asko badok ludion, galduak gozak.

—Baiña neu lapur ondrau bat naz eta ez nabil bide zear iñori gauzak kentzen. Ardiak jagoten pozik bizi naz, neure ofizio ori alde batera itxita. Batzuei Goikoak gosea emoten deutse, beste batzuei lapurretan egiteko antzea edo artezia.

1932-V-5

Idazkia

Gaztelerriko morrosko bi gudari eldu ziran geuré artera. Bilbao uri ospetsu onetan egozan. Ez ziran txarrak, baiña onak be ez. Txarrak zira-la esateko modu polita, ezta?

Euretariko batek irakurten ez ekian, besteak bai. Gauza arrigarria benetan gaztelar batek irakurten jakitea, geienak ba izkiakaz asarre dagoz. Gizon azkarrak ei dira Kastilla deritxon inguruetakoak, baiña irakurten ez dakie. Au gorabera, euzkotar astoak azten etorriko dira.

Gudari mutilok alkarren lagun onak ziran. Txindi askorik ez eben eukiten, baiña batek ezer eukon orduan, besteari emoten eutson. Biotz gaiztodunak ez ziran.

Nilo eritxon bati, besteari Jacinto. Nilo orrek ezkongai bat eukolako otsa be ba zan.

Olako egun baten idazkia jaso eban. Norena zan jakin gura eban eta ez eban zabalduten. Orixe dogu benetan gauza jakingarria. Idazkia zabaldu ordukoxe zabaldu geinkena igarri gurarik gagoz.

Nilo gaixoak zabaldu eban, luzaro egon ostean. Bere ondoan egoan Jacinto be. Onek ez ekian irakurten. Izenpea ikusi ebanean, biotzak taupada andia egin eutson Nilori.

—Zer jazo jatzu ba?

—Ezer be ez. Emaztegaiaren idazkia da ta.

—Ene ba! zer diñoan jakin gura neuke.

—Ia ba, oraintxe irakurriko deusut baiña gauzatxo batzuk zeuk jakiterik ez neuke gura.

—Ori gauza erreza dozu.

Asi ziran idazkia irakurten. Onetan sartu ziran buruzagi batzuk eta ara ikusi ebezan gudari biak idazkia irakurten. Baiña zelan irakurri gero.

—Zergatik belarriak estalduten deusozuz lagun ori?

—Ara ba jauna, onek ez daki irakurten eta idazki au irakurri nai deusot.

—Eta norena da idazkia?

—Neure emaztegaiarena da. Baiña adiskide oni irakurri nai deusot.

—Eta orregaitik belarriak estalduten deusozuz eskuakaz?

—Bai ba, neuk gura dodanik jakin ez dagian.

Buruzagiak egin ebezan barreak! Orrek jakiterik nai ez dozuna, ez egizu irakurri ta kito!

—Egia da izan be! Zergatik belarriak estalduko deutsodaz ba!

Geure gaztelar azkarra orduan konturatu zanean idazki bat irakurri datekean, besteak jakin barik gorde gura dozuna!

1932-V-6

Umeentzat ipuiñak

Uritxo baten, euzko mendietan galdu dan uritxoan osagillea zaar egin zan. Urteak agur egin eutsen eta obirantza makurtuten así zan. Betikoak ez gara ta.

Baiña uritxo aretako notiñak edo jenteak onak ziralako, bere antzeko osagille (médico) bat ekarri eutsen. Gaztea zan bai? eta onuak emoten eutsuzan.

—Jakintsua izango zara, baiña jakintsuak barik gizon zuurrak bear dira olako errietan. Larogei urte neuk legez eukiko dozuzanean, jakintza alde batera utzi ta errikoen esanai jaramon egingo deutsezu.

—Gura dozuna egingo dot. Osakintza ondo ikasi neban, baiña besterik ez dakit.

—Ara, ba. Gaixo bat ikustean, adoretu bear dozu. Kikildu ez dedin, pozik itz egingo deutsozu, laster osatuko dala ara.

—Ori ez da gauza gatxa.

—Eta gaixoaren gelan zer dagoan begiratu. Sagar azalak ikusten dozuzanean, igaliak onak

dirala esango dozu, baiña beti igaliak gaitz edo kalte egingo deusela.

—Gelan zer dagoan adituko dot, ezta? Gero aretzaz itzegin.

—Bai gizona. Gaixoak zer jaten dauan, zer edan eta abar olatxe igarriko dozu.

—Ondo betetuko dot zeuk diñautazuna.

Urten zan geure osagille gaztea gaixo bati ikertaldia egiteko. Eta bat barik lan egin ostean etxeratu zan. Izerdiz ekarran aurpegia.

—Eta zelan ibilli zara?

—Ez ondo. Zeure esanak egin dodaz, baiña alperrik; ikaragarritzko okerrak egin dodaz.

—Zer jazo jatzu, ba?

—Gauza andirik ez.

—Esan egistazu...

—Ara. Urkiaren etxean sartu nintzanean toki-ko alde guztietara begiratu neban. «Zeuk leoia jan dozu» esan neutson. «Leoia jan dodala? Zoratu jatzu?».

—Zergaitik esan zeutson, ba, leoia jan ebala?

—Oe azpian leoi narrua eukolako.

—Ez dago txarto. Eta besteakaz olakorik jazo jatzu?

—Bigarren gaixoagana eldu nazanean esan deutsot: «Elefantea jan dozu». «Elefantea jan dodala? Ez da egia, neure bizitzan ez dot ikusi orrelako piztirik eta.

—Ori esango zeutson.

—Bai, oe ondoan elefante agiñak egozan eta.

—Bide orretatik jarraitzen badozu, laster zara gizon ospetsua.

—Iruugarrenari esan deutsot: «Emaztea jan dozu?». Zigor bat artu dan eskuan ori entzutean. Zuur ez banabil, joten nau.

—Baiña zegaitik ori esango zeutson ba?

—Oe ondoan ule batzuk egozalako. Emaztearen uleak izango ziran.

Barre egin eban geure osagille zaarrak eta erantzun eutson gazteari.

—Mutil, jakintza andia eukiko dok, baiña ez dok balio uritxo onetarako. Jakintzagaz uri andietan nagusi izango zara baiña emen beste gauza batzuk jakin bear dira. Zoaz bakean uri andira, antxe dago zeure tokia ta. Olantxe agur egin eutson osagille gazteari. Oindiño ez ei da eldu urira zaarraren antzeko osagillerik. Itxaroten ei dagoz.

Muslariak

Geure erritxoetan musean ondo jokatuten dabenak eurrez dira. Txapelketak sarri izaten dira. Igande arratsaldeetan arandegian sartuten jatzuz agureak eta txikitotxo bana artuten daben artean eta pipeari tiratu, or dabiltz mus ta mus.

—Lau txikerrera! batek esaten dauanerako, besteak, lau geiago, erantzuten deutso. Aundia pasoa jaonda. Iru errege daukozanak, txikira jodau, gero pareetara elduteko.

—Parea bai.

—Bai.

—Bost enbido! Bostak gura!

—Jokorik ez. Zer? Jokorik ez ta zeuk kendu eskua? Zelako muslaria zara zeu gero!

—Jokoa bai. Albokoak bere ba dauko.

—Orduan iru! Irurak gura!

Olantxe igaroten dabe aldia geure agureak eta agure ez diranak. Amaikatxo tranpa ta ziri alkarri sartuten deutsez. Eta bapo arratsaldea igaro be. Baiña agure orreik gauza bat daukoe

begietan. Eurak baiño obarik ez dagoala ludian. Agure bati ez egiozu esan txarto jokaturen daua-
la. Asarre jarriko jatzu.

Euren panparroikeriak zabalduen dabiltz
beti. Olakoxe bat egoan geure itxasertzeko uri-
txo baten be. Gizon ona zan onik badago, baiña
muslari puntarengo zala ta, bere purrustadeak
anditxoak ziran.

—Ondiño batzokian akeita zenbat ordaindu-
ten dan ez dakit, esaten eban arrotxo. Eta egu-
nero akeita artuten eban. Itz orreikaz azalduen
eban berak musean irabazten ebala.

Bere lagun zanak be askotxori musean egin
gura izaten eutsen. Biak ei ziran txapeldun. Eta
erri guztikoak bildurturik eukezan. Olako baten
musean sekulan egin ez dauan gazte batek,
berak egingo deutzela esan eutsen.

—Kendu adi ortik, txotxo, i ez az guretzako
ta! —erantzun eutsen eurak.

Baiña artu lagun bat eta asi ziran musean.

Geure muslariak egun aretan akeita, txola ta
txokorra artu ebezan, besteak ordainduteko zira-
la ta. Gazteak be akeita ta txola, onen lagunak
ostera irurak.

Batzokikoak ez eban irabazte makala euki. Asi jatzuzan jokoan laurok. Zaarrak beti tranpakaz ta kíñuakaz. Eskuari beti kenduten eutsoen bada ezpadan. Asikerean eurak ziran buru. Arein pozak eta barreak! «Zoaze» esaten eutsoen gazteai, «zoaze ta ordaindu bakean, ezpabe emen galduko dozuez zeuen ogasunak».

Besteak ekin eta ekin. «Ez ba, zuei irabazteko aña ba gozak eta!» Joko bi ta baperez ziran.

Nork sosegau agureak? Alkarri begiratu ta barre egiten eben. Txola be iñoz baiño gozoago ei egoan. Alako akeitik ez ebela artu bizitzean esaten eben.

Irugarren jokaldian asi ziraneko, gazteok bizkortu ziran eta rapa-rapa irabazi eutsen. Bigarre-na be bardin. Zaarren zaratak! «Euk daukozak erruak. Joko barik kenduko dok ba! Iru errege daukozala ta, neuri esan barik pareetara gura izango eutsen ba!».

Alkarri errua jaurtiten eutsen.

Gazteak barre. Zer egingo eben ba? Barre ta ondo jokatu.

Iru jokoak erraz irabazi eutsezan zaarroi. An izan ziran barreak ta pozak kaian be entzun

ziran! Ixillik ordaindu eben, lenengoz seguru be,
akeita, txola ta txokorra. Propina andirik ez
eutsoen emon batzokiko neskameari. Tripak
jaten ei dabez orain.

Ikasi dabe eurak baiño obeak be ba dirala
ludion!

1932-X-23

Eztabaidea

Idi buzterria askatu eban eta golde ondoan itzi ebazan idi ta buzterria. Narru ganean oster, prontera biak euren borla gorriakaz. Soi galanta atera eban eta atsegiñez beterik geratu zan geure Peru. Oillo batzuk ar baten ebiltzan. Garia erein bear danean ixo-ixoka ibilli bearra dago, baiña oraingoan ez eben kalterik egiten.

Idi biok munaz muna ibilli ziran bitartean, gure Peruk, akulu kontra bere gorputza ebala, zuur begiratuten eutsen. Alboko sekulabedarra jan ez egien be. Naiko drogarik eukan Txomin Errotazurikoagaz!

Alako arratsalde epelak! Mendi areitako geriza jausten zan ibar ganetara. Etorriko ete zan abogadua? Orretan geratu ziran goizean ba. Aztrapalada utsa erabilli eben alkar artean. Eta guztiak solo ertz bategaitik!

—Papelak neurea dala diño.

—Zereko papelak! Iñuzentetzat naukozu ala? Neure aititari entzuna daukotsat solo au Errota-

zurikoena dala. Erremata baten errosia. Entzun dozu?

—Zer entzun eta entzun ez! Lur bazter one-gaitik ez deust ardurarik, baiña ez zara zeureaz urtengo. Ez, barrabas bazara be!

—Zeu lako astokillo batek ez deust ba burla-rik egingo! Kalabaza bi ereiteko aiña ez da lur au, baiña milla erreal gastauteko be prest nago.

—Nik bi milla gastauko dodaz.

—Bi milla ez daukozuz pintauta be!

—Ez, zeuenean dagoz! Ugerra baiño ez daukozue ta!

Olakoxe asarrakuntza gorria izan eben gure gizonok. Solo artean egoan gizalan lauren bate-gaitik burrukan ebiltzan. Norena zan? Ez dakigu! Baiña urrengo egunean gure Peru ta Txomin erri-ko estaziñoan egon ziran. Brusa be barriena eka-rren. Alkarri barbarik be ez eutsoen egin. Ondo ekien norantza joiazan! Zorioneko abogaduren baten billa! Demandea sortu bear zala ta...

Bilbora eldu ziranean, bata Askaotik eta bes-tea Arenal aldetik aldendu ziran. Non egon ziran ez dakigu. Somerako zein tabernatan bazkaldu ziran bere ez. Jakizu! Markosenean edo. Dana

dala, arratsaldeko irurak inguruan estaziñean egozan puru eder banari tira ta tira.

Alkarri egin eutsoen begirakuneak zeozer esan gura eban: Ikusiko dok txarri orrek! edo olakoren bat zan.

II

Ori jazo zanetik ainbat egun igasi ziran. Peruk gomutan eukan, orregaitik illun begiratzen eutsen idiai. Alboko solora sortu zan «Gorri» eta ikaragarritzko sokilla jaurti eutson. Tripe-tripean jo be egin eban jo! «Zentailla ori, joaten banok orra!» egin eta atera eban idia auzoko solotik.

Onetan dagoala, Txomin eta kapeladun bat agertu ziran. «Nora demoniño doaz eurok gero? Ori Txomin ori intentziño txarreko gizona da, izan be!» Esku zabala imiñi bekoki ganean eta urrunera begira jarri zan. «Zer? Orixe ez da don Bernardo abogadua? Bai zentailletan! Neure abogaduagaz jatork txakur peste ori!».

Olako pentsamentuetan egoan bitartean, gure Txomin eldu zan eta asi jakon solo bazte-

rreko kontuak kontetan beragaz etorran abogaduari.

—Ara jauna, auxe bazter au da. Papelak neurea dala diño. Orrek bestaldeko orrek, barriz, berea dala diraust. Deituko deustat ala?

—Bai, dei egiozu. Ia zer diñoan...

Gure Peru etorri zan idiak bertanbera itxita. Txapela kenduta:

—Arratsaldeon daukola berorrek jauna, esan eutson abogaduari.

—Baita zeuk be. Emen nator gero, bakeak egiten doguzan edo.

—Bakerik ez dago solo bazter au neuretzat emoten ez bajat, erantzun eutson Txomiñek.

—Ez orixe! Au ez da zuretzat izango, tatarrez eroaten ez banozu kanposantura! jardetsi eutson Peruk. Ganera nora zatorz zeu don Bernardokin, neure abogadua bada! Traiziñoa baiño ez da ori!

—Neuk ez neban elejidu ala! Bilbaora zetan joan nintzan ba?

—Eta neu?

Areen eztabaidari adi-adi, barre-barreka egoan don Bernardo ori. Gizon on-ona zan eta

drogarik ez eban gura. Bakeak egiteko prest etorran bai? eta bakeak egin bear ziran. Abogadu zelebrea zan izan be, batez be baserritarren artean, gauza andirik kendu be ez eutsen kenduten eta.

—Tira, erreitarik ez dot gura. Laster erabakiko dogu norena dan bazter au. Ni lako abogadu bat ez doa Bilbaora gauzak arteztu barik.

Txomin eta Peruk artega begiratu eutsoen. Onek abogaduok barrabasak daukez gero! Zelanyemoniño arreglauko eban ba!

—Txomin, esan eutson abogadu jaunak —salduko zeuskit solo bazter au?

—Neurea dan ezkerro, ekarri egistazuz eun peseta ta artu zeuretzat. Olantxe droga guztiak uxatuko dodaz eta.

Baiña Peruren zaratak ez ziran makalak izan!

—Ez dozu salduko, neurea da ta! Samea kendu bear izango deustazu, ori egin baiño leenago!

—Ez zaite artegatu gizona, jardetsi eutsan abogaduak —zenbatean salduko zeuskit zeuk ba? Beste eun pezetagaitik bai?

—Bai. Ekarri egistazuz eun peseta ta zeureztat soloa.

Don Bernardo abogaduak biai begiratu eutsen. Aren barre ixillak ernegatu ebazan geure baserritarrok!

—Bueno gizonak, eutsiez euna peseta bai? eta neureztat soloa. Olan ez daukozue demandan joan bearrik ba. Bere karterea zabaldu eta eun pezetako papel zuri eder bana emon eutsen. Gure gizonok bitsetan egozan. Areen poza! Baiña ondorengorik ez eben pentsau. Don Bernardo orrek barreka esan eutsen.

—Orain gizonak, neure kontutxoa egin bear dogu. Kotxean etorri naz onaiño, egun erdia galdu dot. Baiña zuek adiskideak zaree bai? eta gitxitxo kobrauko deutsuet. Euna peseta asko deritxazue? Ez, ezta? Tira ba, euneko papel banagaz nigazkoa eginda daukozue.

Peru eta Txomiñek atera ebezan atzera don Bernardok emoniko papalak eta belarri atzeai azka-azka, pagau eutsoen. Solo barik eta diru barik geratu ziran! Ederrak emon eutsezan Don Bernardo jaunak!

Baiña gizon txarra be ez zan eta esan eutsen:

—Tira mutillak, solo au neurea da ezta? Orduan neuk gura dodana egin neike.

—Bai ba, gure kokolo-mokoloak erantzun eutsoen.

—Solo bazter au neurtu edo medidu daigun soka bategaz.

Ikaratuta egozan gure baserritarrok! Ze barrabaskeri egingo ete eban arek! Idi buzterriari kendu ede bat eta arexegaz medidu eben solo ori.

—Erdia ez da auxe?

—Bai jauna.

—Txomin, zeuretzat. Alboko solo orregaz bat egin ta ederto solo osoa eukiko dozu.

—Eskerrik asko, don Bernardo, erantzun eutson Txomiñek.

—Eta Peru, beste erdi au zeuretzat. Pozik zagoz?

Txomin eta Peruk barre-barreka begiratu eutsoen don Bernardori. Arek eukon talentua! Euren drogea iñork baiño obeto konpondu eban! Antxe bertan adiskidetu ziran gure gizonok eta don Bernardokin bazkari eder bat egitera joan ziran, idiak bertanbera itxita joan bere gero! Txo-

miñen soloko sekulabedar guztia jan eta laskitu eban Peruren idiak, baiña orregaitik ez ziran asarratu geiago!

Oindikarren don Bernardoren talentua goralduen diñardue! Izan be ez zan gitxiagorako!

1934-IV-8

Ipuin barregarriak

Ezkontza bearrezkoa

Etxe onetako alabea zan, baiña arrokeritxo lar eukan. Alako neskatilla bati ez jagokon ondo «onenbeste daukot» esaten ibiltea. Mariparen berbak! Diruduna bazan, diruduna agertu jakon. Errota Baltzeko Erramonek be dirutxoak eukozan.

Asi ziran gure gazteok. Leenengoetan lotsaz, gero trunkiltxoago. Baiña ezkondu teko asmorik ez eukeela irudian. Eskerrak Mariparen amari. Au zan erremintea!

—Alabatxo, ba dakin zer pentsau joadan? Maiatzerako ezkondu bear aunat.

—Ez dozu alakorik egingo. Oindikarren gaztea naz ba ta.

—Ez ana! Ogeta iru urte daukazan. Ganera etxeko beiak eta jagotoko nonor bear joguna.

Egunean egunean olantxe ebiltzan. Ama ba ez zan makala. Ondo ekian alabea gaztetan saldu bear dala, osterantzean santuak jantziteko geratuko dala.

Baiña ama-alabek ezeze, Errota Baltzekoak be beste orren beste erabilen. Dirudunen entzutea euken, baiña txartotxo ebiltzan bai? eta Maripagaz ezkondu ezkeron, arka zaarrak betetuko ebezalakoan egozan.

—Seme —amak iñotsan—, zaar bere ba naz eta ezkondu zaite. Olan etxeko lanetan nor lagundu eukiko dot eta.

—Baiña ama, zelan ezkonduko naz ba. Mari-panekoak diru askotxo dauke, geuk oster, orrenbesterik ez daukagu.

—Zu ezkondu zaite bai? eta diru kontuak itxi egizuz alde batera.

Amen asanai jaramon egiñaz, geure gazteok igande arratsalde baten alkartu ziran. Erromeria amaitu zanean, etxerantza abiau ziran. Iñoiz baiño ixillako etozan. Zer ete euken?

—Illuntze ederra, Maripa, mutillak esan eutson.

—Bai, ederra dago.

Beste ordu erdian ixillik joan ziran. Izerditan etorzan biak. Albotik pasaten ziranak, oster, barreka ta zantzoka ebiltzan.

—Zu, Maripa, zenbat urte daukozuz?

—Ori da preguntea. Ez dakizu ala?

—Bai, ba dakit —erantzun eutson Erramon gaixoak. Koloreak be gorritu jakozan. Zergaitik itaundu ete eutsan alako lelokeria? Mariparen urteak ogetairu ez ziran ba? Aintziñatik ekian! Tripili-trapala, aurea jaiazan. Ia etxe ondoraiño eldu ziran.

Maripa gizajeak bere kolkorako iñoan «Gaur ez jat eskapauko ba».

—Erramon —esan eutson—, solte dabillen idia amarretan ba dakizu?

—Ez dot jakingo ba! Amaikatxo bidar lotu dodaz etxeko idi ta beiak.

Neskatilla liraina larri egoan. Baserriko gazte bati ori preguntauco eutsan ba! «Solte dabillen idia amarretan ete ekian». Jesus milla bidar! Burutik egoan bera.

Baiña zelan edo alan esan bear eutson ezkontza kontua. Olako baten Maripa orrek esan eutsan:

—Zer esango zeunzkio neskato bati ezkondu aurean?

—Nik? Ba auxe: Geurera etorri gura zara?

—Eta ezetz erantzungo baleutsu?

—Beste bategana joan ta kito.

Ene bada, laster zan ordua! Neska-mutilok larri egozan. Etxe aurreko soloetara eldu zira-nean, Maripak esan eutson belarrira.

—Neuri esango zeunskit?

—Zer esan?

—Zeuen etxera joateko!, gorri-gorri eginda erantzun eutson neska gaixoak.

Mutillaren biotza tapaudaka asi izan. Zer erantzun? Azkenean albora begiratu ta esan eutson:

—Maripa, etorriko zintzakez geure etxera?

Bai! esan eta karraderan sartu zan etxean. Alako lotsarik!

Sukaldean zan ama. Begi zorrotzakaz begiratu eutsan alabeari ta burruntziaz errautsa mobiduten eban artean itaundu eutsan:

—Eta ezer esan deutsozu?

Negarrari emon eutson neskeak! Baiña amak laster kontsolau eban. Eta olan geratu ziran gauzok. Neska-mutillak ezetan sartu bearrik ez eben euki, ama biak egin ebelako guztia.

Deierak joan ziran eta kontratua egin bearzan. Larunbat edo zapatu goiz baten eldu ziran

notarioaren etxera. Jezarri ziran gela nagusian. Arein larritasunak!

Agertu zan notarioa. Betaurreko edo antioju andiak eukozan. Bigotea bere bai. Eskuan artu eban lumea ta asi zan:

—Ia, zer emoten deutsozue zuek alaba orri? Mariparen amak erantzun eban: Amar milla erreal, ogei oillo pare, oe bi, suteko tresnak, izarak, oe azalak, erloju bat, komadea, erropa zuria.

Baiña Erramonen amari gitxitxo eritxi jakon.

—Ori baiño ez? —esan eutsan garratz.

—Gitxi deritzazu, gitxi? Zeuk zer emoten deutsozu, ba?

—Nik etxalde osoa, idi bi, bei bat, kortako gauzak, burdia eta milla erreal.

An izan ziran aztrapalak! Batak besteak baiño geiago emoten eutsela, ez eutsela, ez ziran konpondu. Asarre bizian urten ziran notarioaren etxetik zorioneko ezkontza apurtuta.

Gazteok negarrez banandu ziran. Olako baten, arratsaldeko seirak inguru ziran eta non datorren Mariparen amea. Errota Baltzen sartu zan.

—Arratsalde on.

—Baita zeuri be —erantzun eutsen barrukoak.

—Emen nator ba. Goizean asarratu gara, baiña bakeak egin bearko doguz.

—Ori zeuk ikusiko dozu.

—Bai, ezkontza au galtzeak kalte andiak ekarriko deuskuz eta.

—Zer ba?

—Gastu andiak eginda gagoz. Biar bodea izango zalakoan ainbeste gauza erosi dodaz.

—Zeuk esango dozu.

—Ara ba, pistolak be sopea egiteko artuta neukozan.

—Ene bada, olako gastuak eginda zagoze! Orduan pare bat milla erreal gora bera, ezkontza ori egin daigun.

Esan eta egin, geure amok konpondu ziran eta gazteak ezkontuta geratu ziran. Pistola batzukaitik ezkondu be gero! Olakorik!

1934-VII-15

Zangurru eder

Ibai aretan zangurru edo kangrejorik ederrenak aurkitzen ei ziran. Orixe esan euskun Martolo Baltzak. Aren arrokeria! Bere erria lango erririk ez zan, bertako kangrejoak baten ziran ba, Bilbaoko La Alcazaba jatetxean bere ta.

Barre egiten genduan. Zer egingo zeuntson ba? Baiña Mikel geure adiskide onak ez eban alako gauzarik sufriduten. Ederrak emongo deutesdaz! Ikusiko dozue zelako barre algarak egin bear doguzan euren lepotik.

Artu geure tarrantak eta joan gintzan Murua erritxora. Murua au zein erri dan igarriko dozue. Trokan dago, inguruetan bidalako atxak dauzala. Erreka txikerrak buelta osoa emoten deutso eleizeari.

—Nora zoaze ba? —itaundu euskuen.

—Nora goazen? Gura dogun tokira!

—Eta ori, flauta edo txirula ori zetarako dozue? Zoro galantak zaree gero!

—Flautea joten ei daki ez dakigu nongo astoak eta... Barre ta algara eldu gintzan erritxora,

Arratsalde alai. Piñu artean oidalako kerizpea zan, baina sagarrondo beteak atsegiñago jakuzan. Usoiño basetxera zuzendu gintzan, ango ugazaba zalako geure Martola Baltz.

—Eup!, egin geuntson. Eta ira ebagiteko erabilan zerrea itxi bertanbera ta geuganatu zan.

—Nora arraio zoaze? Beti broman zuek!

—Ara ba. Biar kangrejo edo zangurru batzuk koiu gura geunkez. Lagunduko deuskuzu?

—Zuek ezin zeinkee kangrejorik atrapau. Jan bai, jan!

Geure lepotik barre egin gura eban baserritar zozo arrek. Ez geuntson ezer esan, urrengo egunean bereak artuko ebazalako. Esan eta egin.

Igande goiz oberik ez zan ikusiko. Ira edo gano gorriskak zoragarri egozan eguzki argiaren mosupean. Mendi ertzak sugarretan egozan. Eta areen aldean baño zuria zetzan, maindira baten antzean. Idi-beien arran otsak entzuten ziran.

Martolo Baltzek iru adiskideri dei egin eutsen eta guztiok asi giñan zangurru billa. Areen barrezaratak! Bat atrapaten genduanerako ogei doze-na atrapetan ebezala ikusten genduzalako. Mikel

amorruez egoan, alako batzuk barre egiten ebela-ko.

Lotsaz gengoan, batez be euren kiñuaz. Neugandik aldendu zan. Nora joan zan? Ez dakit, baiña ura sakontxo eta loi egoan toki baten zer-bait jaurti ebala susmau neban. Zer egin ete eban?

Andik laster eldu zan. Pozik etorran. Gure baserritarrak joranez ebiltzan eta ezer atrapetan ez gendualako burla egiten euskuen.

Mikel jzarri zan eta txirula atera sakeletik eta txirula joten para jakun. Ederto joten eban! Aren firuli-firuli otsak!

—Zertarako joten dok ori? —itaundu eutson Martolo Baltzek.

—Dantzan egingo joguk ala? —beste batek jaurti eutsan.

—Zangurrurik ezin atrapau daike bai? eta txoriak atrapau gura izango dauz.

Beneno utsa ziran arein itzak. Baiña Mikel ez zan larritu.

—Au zertarako dan ez dakizue? erantzun eutsen. Onegaz baietz atrapau erreka onetan dagoan zangurrurik nagusiena.

—Au baiño aundiagoa? —galdetu eutsan Praiskuk, ikarragarritzko bat eskuan ebala— Olakorik gitxi dago gero!

—Ori baiño andiagoa atrapauko dogu. Bai orixe! Goazen ara.

Guztiok joan giñan. Ura loi egoan, sakona be anditxoa zan.

—Ementxe dagoz zangurru edo kangrejo arrak. Zuek atrapetan dozuezan orreik emeak dira. Noiz atrapau dozue zangurru arrik ba?

—Ez, ez dogu atrapau.

—Zeuk be ez dozu atrapauko —jardetsi eutson Martolo Baltzak.

—Txirula auxe jo bai? eta atrapauko dot. Entzun egizue.

Muga ondoan jazarri gintzan eta Mikelen txistu otsa entzuten zan lau kilometroan be. Aren soiñua! Olako baten esan eutson baserritar bati:

—I, tiratu egiok kordel orri. Astiro gero, bestela iges egingo dau arraiñak!

Goikolako Praisku asi zan indarka. Apurka tiratuten eutson kordelari. Besteak txirula jotzen eban. Zer zan a? Milagroa ete zan? Geure bizian ikusi dogunik arrain ederrena zan. Kangrejo lodi

ta zabala. Ikaragarrizko amarratzak eukoza.
Nondik barrabas urten ete zan?

—Asto batzuk zaree —erantzun eutsen Mikelek—. Kangrejo arrak olako leku illunetan dagoz, baiña txistu edo txirulaz baiño ezin atrapau dai-tekez. Aitearenka egozan geure lagunok.

—Eta emongo deuskuzu txistutxo ori? Bageunka!

Begiak be ñirñir egiten eutsoen, txistu axe gura eban ba.

—Artu egizue ba ta datorren igandean barri-ro etorriko gara. Ea ezer atrapetan dozuen gero.

Agur egin guztiai ta aldendu giñan. Mikel ezik beste guztiok ikaratuta gengoza. Zelan arraio atrapau eban otarraña? Otarrain edo langostea zalako, ez kangrejoa.

Baiña baserritarrak egingo eben jakin gura-rik, astelenez joan nintzan erritxo aretara. Leku ezkutu baten parau bai? eta kangrejotan ebiltza-nai begira nengoan. Muna ertzean ebiltzan lau baserritar. Euretarike bat asi zan txistu edo txi-rula jotan. Zarata galantak ateraten ebazan, baiña kangrejo arrik ez zan agiri. Egunero-egu-nero erri osoa joaten zan erre kara. Nor geratu

zan txistua jo barik? Jo eban Juanjo zapatariak, baita «Inpernu» anka-zabalak be, Narruako Josepa Ioditoneak berak be txistua jo gura izan eban.

Baiña zangurru arrik ez zan agertzen!

Urrengo igandea eldu zapean, Murua erri osoa antxe egoan. Agurrik egiten be ez euskuen itxi.

—Emen ez da agertu zangurru arrik gero —esan euskuen.

—Asto zaar batzuk zareelako —erantzun eutsen Mikelek. Lelo alako orreik!

—Ondo jo dogu txirula ba.

—Neure emazteak berak be jo dau.

—Baita geure Pedrotxok bere. Ganera korneta izan zan errejimentuan.

Ango berbotsa ta zokorruak burutik eragiten eusten. Baiña Mikel pozik egoan. Barre-barreka.

—Ea, neuk joko dot barrero. Goazen igandeko lekura. Erri osoa joan zan bere atzean. Aguazilla bera be antxe zan. Urtean ogei duro kobraten dauzan aguazil gaixoa. Besterik bear bere ez ta! Bolanderak botateko bear izaten dabe. Guztiak, jesarri ziranean, Mikelek artu eban flautea. Asi zan txiruli-txiruli.

Soiñu barregarria. Olako baten oiur egin eban:

—Tira sokeari! Or dago, or dago zangurru ar ederra. Eta begi guztiak zabal-zabalik ziran bitartean, ikaragarritzko zangurru bat jaso eban. Txalotsa, gora ta bibak baiño ez ziran entzuten.

—Non erosi dozu txistu ori? —itaundu eutson atso zaartxo batek. Neure Iñozentzirentzat ederto letorke olakoxe bat.

Baiña aren atzean beste guztiak itaundu eutsoen. Azkenean esan eutsen:

—Zoaze Bilbaoko Askogitxi kalera, bai? eta antxe eskatu egizue olako flauta dotore bat.

Esan baeban, esan eban! Murua osoa an izan zan. Dendan egozan txirulak saldu ziran, geiago eskatu ziran. Baiña alperrik. Granorik ez zan geratu! Eta ez bazan barregarria! Muruako biztanle guztiak erreka ondoan ebiltzan, txistu jotzen ibilli bere gero.

Baiña zangurru arrik ez zan agertzen. Andik egun batzuk barru Mikel etorri jatan.

—Ea, lagundu egistak alako arraindegira.

—Zetan?

—Langosta bat erosten. Gau gabeen joan bear joguk Muruara ta ango errekan langosta auxe jaurti. Sokan ondo amarrata gero.

Nire barre zantzoak entzun ziran Fikan. Orduantxe konturatu nintzan Muruan atrapetan ziran zangurru arrak zelakoak ziran. Mikel barra-basak eroaniko langostak ziran. Apur bat ixildu nintzanean, Mikelek esan eustan:

—Baserritar batek burla egingo deustala neuri uste dozu ala?

Igande aretan egin nebazan barreak! Murua erria erreka ertzean zan. Umekondoak eurak be firuli-firuli. Ikusteko be!

1934-IX-16

2. LITERATURAZ

Pizkundea

Itzaren gomutagarria! Atika deritxon erriko erleak samurkiro ezti gozoa egiten eben aldiko gomuta alaiak, itz onek burura dakarstaz. Antziñako ontzi edo zaagi zaarratan ardo barria eusko gogoaren jaietarako ekarri gura dabenaren elburu, bizitza barri eta joriagoa, orri zuridun idaztiak, biotz uts diran olerkiak, iturri ertzetako irudi lilluragarriak itz onek bat-batean bere edertasunez dikurz.

Pizkundea osoz loratu zan errietan Italia nausi da. Andra eta gizonak Greziako argiz argituta neurtitz samurrak, idazti ederrak landuten aldi atan iñarduen. Marmol zurietan gizon ospetsuen soin indartuak, deunen gogo zerutarrak agertu eta eleiz oroigarriak gunien jainkotasuna eta edert a zeruratuten eben aldiko pizkunde zorientzua. Aldi alaigarri arek erririk erri eroiazan asaben eredu kementsuak, gudate garaipenak abesten iñarduen imeurlari trebeak.

Bere elburuagan erriak itxaropena eukon. Uzkurtza, aberria eta edertia bat egiñik ebiltzan,

doipuruak euren laguntzarik iñoiz ukatu barrk, bakaldunen jauregietan abegi ona egiten eutsen. Illunpetik argira igaroteko zubi ederra Pizkundera izan zan. Aren mosuaz libururik aintzatsuenak argiratu ziran.

Eusko Pizkundera

Barri dan bazkun begiko au maitasun egoz gaztetasunak goi-gora daroa. Politika edo zizkizkizkietan bere kemena, oldargea eta sua jardueraziten ez dator, euskerazko idazti politikak, geure erriaren jakintza lortau daroien ipuin eta esaerak, eusko gogo barruan egoak zabaldu eziñik dagozan gurari samurrak euren kaiolatik atara eta zero urdin zear bialdutera baiño.

Bere altzoan Pizkundera deritxon bazkun onek idazleak ezeze, margolari, ereslari, euskaltzale, olerkari eta abar besarkatu daroiaz.

Norbera zer dan, noragiñokoa dan jakitean zorientasun guztien arroiña tente dagoala jakintzak esaten deuskun ezkerro, geure erriari zer dan eta zer izan bear dauan erakutsi daiogun. Kanpotik ez, barrutik baiño eusko zaletasunak urten bearko dau, egiazko igaliak jadetsi gura

badoguz. Zenbat diru eta kemen leengo aldietan itxasoan goldetu ete doguz!

Batek ba daki! Aizean erein ete doguz edo nago. Erriak ezeze, jakituntzat euren buruak orraztuten dituenak be, eusko edesti, oitura, elerti eta beste gauza askotzaz zer ete dakie?

Bere edertasun guztiak argi ezagututen dabezelako, Jainko beregan atsegin da. Norbera zer dan sakonetik dakianak, bere gauzetaz be zintzoen, sutsuen jokatuko dau. Erriak asaben egite aipagarriak, bere izatearen garbitasuna ezagutuko dabenerako, eurrez toki guztietan lora euskotarrak sortuko dira. Eguzkiaren mosua zelai eta latxinetan samurtsu lotuten danean, txiribita politez dana josirik ez ete dozue ikusi?

Pizkundearen mosu biguna Bizkaiko muru, egi eta lantzarretan zabalduatean, zinez ikusgarria izango da toki guztietan erneko diran lorak batutea...

Idazle guztiakaz txorta bat egiñik, anaitasuna ontzian orok itxasoratuaz, bakez, alai, kementsu eta azkar mendi goietan argi dagin elburua igo-tea, Pizkundearen zeregiñik ederrena izango da.

Euskera, euskeragaitik?

Izkuntza beste elburu barik ez, ori gauza ez da, aberriagaitik baiño. Euskera gure izatearen agerpen garaiena dalako, pizkundearen leenengo orrialdean arro-arro agertuten da. Uzkurtza eta abertzaletasunaren esiak iraun dagian, pizkundek euskera landu eta orraztuko dau. Elearen pizkundeari bakarrik naiko ez deritxolako, eusko gogoaren beste kutun guztiak be biotz ganean gordeko ditu. Euskera bide dala, erriaren txinparta biztu gura dau, suaren suak inguru guztietara gure izatearen zergaitia, aberriaren garrantzia eroan dagian. Gaur agintza baiño ez dan pizkunde onek, biar egun ederra izango dau. Bere ezpanetan abestia dager eta gaztetasunaren abestiak maitasuna edo itxaropena baiño ez dauz agertuten.

Pizkundera gaztea da eta gaztaroan egin ezin daitekenik ez dager. Euskera zaarrari gaztetasuna mosu bero bekokian emotera dator. Vicaire olerkari ospetsuak iñoazen neurtitzak pozik jarriko neuskioz:

Adorable et terrible, eblouissante et douce

Tu m'apparus, Jeunesse, une rose a la main.

Laguntza

Guztiakana bakez datorrenari ba, ez arri koskorrik bidera jaurti. Bertsoak dakarzan lan orok garaipen seaskan kulunkatu dagizan, gorroto kiñuak baiño maitasun txalo eta abegi bearragoak ditu. Artez jokatu gura dauanari laguntza ukatutea, aurka egitea samingorraga izaten jako. Diruagaz ezeze geure izenakin lagundu dagiogegu. Idazleak lumak zorroztu dagiez, dirudunak sakelak zabaldu. Pizkundeak guztien zale kutunak izan bearko. Laguntza onena, zintzoena, artezena bakoitzari maitasunak erakutsiko deuto. Maitasuna bizi-bizi biotzetan daroazun artean, egin gura dozun guztia, ez dozu biderik galduko eta. Nai izatea, aal izatea da; maitatutea esku artean gauzea euki bez, gura izatea eta maitatutea baiña erdia ezeze, amaia be bai dala esan daikegu.

Pizkundea deritxon bazkun onetan era guztietako anaiak batutea nire dei sutsua izango da. Guztiok bat izatea gauza ederra bai dala. Lorondo bateko larrosak milla badira, milla orritxo larrosa batean koiu badira, anaiok, zelan alkartuten ez garan.

Zeru garbi-garbia gabaren altzoan izarrez dabillen ordu urdiñean eozko txindak mendi goietan Pizkundearen abegia joten dau. Aizean dator gogo maitalaria mosu bailitzan. Abestiaren samurra!

EUZKADI, 1930-II-16

Eredua

—Zeure euskerarik ezin ulertu dot, iru begiak irakurri ostean be. Mesedez klaruago eskribidu egizu.

—Argiago esan gurako dozu, ezta?

—Bai, klaruago. Euskera barregarria darabiltzue eskribiente guztiak. Fazillago ulertuteko eskribiduko bazendue, zenbat periodiko leiduko leukeen.

—Zoritxarrez, guztien poza eta atsegiña ezin egin dogu, ba. Batzuk euskera garbian idatzi daigula eskatuten deuskue, besteak barriz, motroi-loan. Guztiai atsegin emoteko aaleginduko gara.

—Ez, batzuei bakarrik atsegin edo plazer emon egizue bakarrik. Periodiku onetan leiduten dabena konprendidu dagiela.

—Ulertuko dabe erraz, lan apur bat egin ezkeru.

—Neuk be liburu bat daukot eskribiduta, euskeraz atan be. Berreun orri daukoz. Pagina orreitan materirik sakonenak darabildaz.

—Zer diñozu materirik sakonenak? Materi
geure errian zauriak darion loa da.

—Ez, erderaz materias esaten dana. Liburu
orretan ba, diñodan legez, materirik sakonenak
erabilli arren, euskera fazilla darabilt. Danak
ulertuko deuste, zeuk esaten dozun legez.

—Pozik entzungo neuke liburu orren ataltxo
bat.

—Ona emen pagina bat: Politikako probleme-
tan gobernuari lagundu bear jako. Soziedadeko
negosioak ez dira arreglauko piztolakaz, tiroka
ibillita. Gobernuak intentziño ona dauko guztiai
lagunduteko. Probintziak barriz erreboluziñoa
egin nairik dagoz.

—Naiko da, ez geiagorik irakurri. Guztiak
ulertuko deustue idatzi ori. Baiña nongo izkun-
tzan idatzita dagoan esango deustazu?

—Euskeraz. Nongoan uste dozu ba?

—Euskeraz eta orrenbeste itz barregarri? Ez
ete dakizuz itz orreik euskeraz idazten. Itzak
erderaz eta joskera erderatan darabilzu. Ganera
ez euskaldunak ez erdaldunak ez dabe ulertuko
zeure idaztirik.

—Enbidia daukozu zuk, ez besterik. Oraindikarren batek ez dau ondo idazten emen.

—Zergaitik ipiñi artzaia, guztiak esaten bada-be pastorea?

—Guztiak ez, Bizkaian eta beste errietan artzai erabilten dabelako. Ganera, batzuk txarto erabilten dabela eta, danai txarto erakutsiko deutsegu ala?

—Bueno, itz ori euskeraz ipintea ez dago txarto be, baiña eta usoa palomearen ordezt, leioa bentanearen ordezt? Zelako barrabaskeriak dira orreik?

—Barrabaskeriak ez dira gauza oneik. Euskeraz idazten dogunak gauza bi begien aurrean erabilli bear dogu. Bata, irakurleak ulertu dagiela idazten dana; bestea, apurka-apurka euskerea landu ta jaso daigula.

—Altzau ezta, altzau? Ba gaur egiten dozue-na ez da ori. Tripak atarako deutsozuez laster euskereari.

—Ez dakigu ba, lan ona edo txarra egiten dogun. Baiña Euzkadi goratuteko idazten dogu. Euskerea maite badogu ez da euskereagaitik, aberriagaitik baiño. Izkuntzak ez dira ezer aben-

da ta aberri barik. Geure aberri oneri orrela lagunduko deusagula uste dogu bai? eta aurre-ra goaz txarto edo ondo. Akatsak ataraten dabil-tzanak, euskerea ilda balego, pozik legokez. Bas-kongados dira orreik, ez euzkotarrak.

1931-VIII-13

Unamunoren otsak

—Unamuno nor dan ete dakizu?

—Zer uste dozu, edozein gizonen abizenak dakiguzala baserritarrak? Nor dan jakiteko, azaldu egiskuzuz Euzkadiren alde egin dauzan gauza on guztiak.

—Euzko erriaren alde ezer ez dauan egin arren, gizon ain altsua dozu Unamuno jauna. Espaiñatarrak beintzat goralduten dabe eta geure auzoko orreik ez dira zaletuak edonor aintzatuten.

—Unamunok baiña, sekulan ikertu dauz geure erriak, langilleai itz egin ete deutsue, lur-langilleekin egon ete da?

—Ez, orrelakorik ez dau egin; baiña idatzi dauz.

—Ja, ja... idaztiak idaztea gauza erreza dozu; gizarteko arazoak aztertutea osterea, ez da ain gauza argia. Astakeri asko esatea aiña erreza da idaztea. Baiña erriak igitu nai diranean, itzakaz barik egiñakaz etorri bear zara.

—Idazlari orrek ainbat egin dau erriaren alde bere. Beocia Euzkadiri deitu eutson, gero base-ritarrak iñongo atzeratuak eta iñondiko liaduak egin euskuzan. Dana ostera, «El Sol»ek diñoan legez, geure onerako.

—Bai, geure onerako izango da, baiña euzko erria betiko amaituta balego, pozik legoke jaun ori. Orrek ez daki zenbat balio daben geure gogoak, zelan ezagutu gurarik ez dau nabaritu ta. Idazlaria izan arren, ez dau iñork ezagututen erria udako ikertaldi bat egiñagaz batera. Urteak berton daroaguzanok bere oraindik ez dogu ikutu Euzkadiren guna.

—Ikusten da zeuk ez dozuzala irakurten Unamunoren idaztiak. Zelako muiña euki daroen. Gaur berton irakurri dot Espaiñako izparringi baten artikulua bat eta biotza bigunduta geratu jat.

—Zertaz jardun doa, ba?

—Pardo deritxon esparruko «matriarcales encinas castellanas» Ikusten joan jatzu Unamuno eta arteak dirala ta, zelako itzak idatzi dabezan...

—Gero... arteak ikertatzen, txarriak joaten dira kuzkurra jaten edo...

—Ori bere esan deutsu, txarriak: komunistak. Quijote, Gernikako aretza eta ez dakit nik zenbat gauza ekarri dauzan idaztera.

—Ederto jagok. Arteak ikustera joan eta kuzkurra jan. Unamuno jaunak ondo egingo dau bere bizian geure artera etorri ez egitea, ango «matriarcales encinas» artean bestela biziko dalako.

—Geuri bere lantzean beiñean kuzkur batzuk bialduko deuskuz. Beociakoak orretarikorik jaten ez daben arren, pozik artzen dabezalako gaztelarren emonak.

—Leengoan Euzko Araudiaren aurka egin eben eta gaur kuzkurretzaz jardun dau berriz. Zer ikusirik ete daukoe Euzko Araudiak eta kuzkurak edo ezkurak?

—Bai arranotan. Unamuno joan jatzu Pardoko arteak ikustera euzkoentzat ezkur edo kuzkur pilo bat batzera. Bezua ederra bere abendakoentzat. Baiña gu beintzat ez gara joan kuzkur billa, ori bakarrik jaun argiai otuten jake.

—Bai ba. Euzko Lege gaiagaz bere errian arrotza bailitzan artuko ei leukee eta ezkurrak jan ezkeru geure antza artuko dau. Nik esan dot gizon gurena dala ori. Similis similen querit.

—«El Sol»ek ikusi dau Unamuno ezkurrak batzen ei Pardo-n baiña ostera ez dauz ikusi euzko gizonak Gernikan batuta. Tamala da eguzkiak ori baiño argi geiago euki ez egitea.

—Unamunori, ostera, dei egin bageuntso bazkari bat egiteko, laster «El Sol»en lerro guztiak baltziturik etorriko ziran. Goralduko genduezan olako aurreratuak garalako. Erriaren onerako batzean, ostera, ezer ez gara.

1931-VIII-15

Ikaskuntza

Unamuno jaunaren purrustadak irakurri dodaz, erderaren alde itz eta mintz gogorrak egin dauzalako. Gizon jakintsua ei da Unamuno. Egia izango da. Berak idatzi dauan gunia irakurri izan dot eta astoa dalakorik ez dot uste.

Orain baiña, elgorria (sarampión) sortu ei jako. Erderaganako elgorria. Artega dago gizona. Bai-bai, euzkotarra odolez dan arren, gogoak iges egin deutso. Salamancako uri zaarrera iges egin. Bilbako azoka zaarra aaztu jako.

Gogoak iges egin deustola ikusteko euskera-
ren aurka diñozanak irakurri bear dira. Euskera
gaixoa ei da eta oraindik bururik ez ei dau jaso.
Baiña Unamuno orrek bururik jaso dagian be ez
dau gura. Ama il zorian badago, lenbailen il bear
ei da. Filosofoak dirala esango dabe gero gizon
orreik. Abenda onek esirik gurena daukoan ezke-
ro izkuntzan, jauntxo orreri ez jako atsegin
aldenduta ibiltea. Euzkotarra izan gura dau, ain-
tzakotzat daukolako. Baiña erdalduna biurtu dan
ezkero, aberri biakaz bat egin gura, beraxe

erdian egoteko. Beata batzuk izaten dira olakoak: Jaungoikoarekin eta txerrenarekin ondo egon gura izaten dabe eta kandela bana opalduten deutsoe.

Gogai edo idean pelotari ona dozu Unamuno. Euzkoen antzera da onetan. Baiña jokorik andiena jokatu dau orain. Aldun batzarretan. Erdera irakatsi bear ei jake guztiai. Eta zelako zizpuruak egiten dauz gero, umeen gogoai ez jakela miñik egin bear euskeraz irakasteagaz eta. Emen diran erdaldunak begi aurrean daukoz, baiña ez emeko euzkotarrak. Umeak dira guztiak, baiña etxeakoak ez deutse ardurarik emoten, kanpokoak bai.

Konke euskeraz irakastolak balira, erdaldunen umeak jasan bearko leuke askotxo ezta? eta erderaz erakustean, emeko euzko umeak zer egiten dabe? Oneen gogoak ez ete dabe balio besteen aiña? Ganera, gitxienak balira be, baiña geienak izan, etxean egon, eta etxean be, biotzak eta sentimentu guztiak eraildu deutsoez.

Unamuno dan gizona. Pelotan iaioa dan arren, oraingoan txapan jo dau. Catalandarrak eta euzkoak tantoa irabazi deutsoe. Eta zer egin

dauala uste dozue jaun orrek, jokia galdu dauanean? Espaiñako Konstituziño barria ezertarako ez dala diño. Uzkurtzaren aurka egin zanean ardurarik ez, baiña bere kutunen ziran gogaietan zauritu dabenean, erregearen goralbenak egin dauz. Olakorik ez dau iñork egiten, burua sorbalda ganean badauko.

Sarri azaldu izan dogu irakastoletan erderaz be erakutsi bear dala, zoritxarrez izkuntza au bear dogulako. Baiña euskerea beti nagusi. Bakoitzari bere izkuntzan. Erdereak be alde arrazoi bakarra agertzen dau: laterriaren izkuntza dala. Baiña gogoko arrazoietan ez dauko arrazoirik. Agintaritza gauzetan bego dagoan tokian, baiña ez biotzeko zeregiñetan.

Unamunori ez deutso ardurarik emoten Espaiñako laterriak eta nagusitasun abarrotsak, berak erderaz idazten dauan ezkeru, guztiak erderaz jakin dagien baiño.

Idazlearen arrokeriak urteten deutso alde orotatik. Idazlariak arroak dozuz ba ta. Eurak idazten daben izkuntza munduan ezagutu dabela ute deutsue. Gixajoak.

Bakarra ez da zonor onetan Unamuno; beste asko ba lira, baiña geuri min andia egiten deusku euzkotarra dala diñoan gizonto onen purrustadeak. «Idioma universal» ez ei da geure ele au. Zelako olerkiak, poemak, irakurgaiak ete daukoz euskereak burua erakusteko. Franceko idazlari batekin nengoala, auxe berau itaunduten eustan. Baiña izkuntza zeuretzako olerkietan eta liburuetan ete dago?, erantzun neutson. Eta benben, baietza emon eustan. Euskera orain ez da ba elea, baiña poema andi bat idazten danean, izango da. Zorakeri galanta, aldakuntzarik ez dau jasango eta. Goraintziak Unamunori.

1931-X-25

Idazleai

—Ezin da lor au.

—Zer dozu ba? Larri zagoz edo?

—Larri nago, bai. Amaikatzeko idazlan jasoten dodaz egunean ta ezin guztiai toki egin.

—Zergaitik dozu urduri izan bear?

—Zelan ez naz urduri izango ba? Idazkiak iñoz argitaldatu dodaz eta idazleak asarre bizi-tan dozuz, euren lanak ez dabezalako irakurri izparringian. Egunean iru orrialde euskereari emongo bageuntso be, ez dakit tokirik izango ba geunke.

—Gitxiak larrituten zauz.

—Ez gitxiak. Idazle guztiak dira neuretzako bardiñak. Anai ta adiskideak. Ganera guztiak «iganderako» ipinten deusue lerrotxoan azke-nean. Zer egin?

—Nik ba dakit zer egingo neuken...

—Esan egistazu ta eskertuko zaitut.

—Onentxoak argitaldu ta besteak erre.

—Ori zeuk egingo zeunke, baiña nik ez. Txar-to idatzita datozenai, apaindu bear deutsezuz,

orraztu. Zigorrakaz ez dozu ezer irabaziko, eztiagaz bai ostera.

—Eztia emon egizue idazle batzuri... Astoa-
rentzat ez da egin ezirik.

—Ez ona etorri gero iñor irainduten. Etxekoak
ez diranentzat ondo dagoz sartakadak, baiña
etxekoentzat ez.

—Urrengoan ibilliko zara larri ta estu. Zirti-
zarta otzara barrura jaurtiten badozu, bake txar-
ra ez dozu izango.

—Abertzale bat irainduteak min egiten deust
neuri. Batzuenak otzara sakonetara jaurtiko
dodaz, baiña lerrotxo bitartez azaldu gura deu-
tsoet egite txar onen zergaitia.

Azalpenik emon ez eta idazkiak argitaldu
ezean, minduten dira idazleak eta arrazoiak
mindu be.

—Ez neure zeure kolkoan bizi gura. Izki illu-
nak irakurten, okerrak zuzentzen eta abar zagoz
maai baten ganean. Eta zertarako lan ori? Izke-
rak zer irabazten dau idazle orreen lantxoakaz?

—Zer irabazten dauan? Asko ta asko. Lan ori
aberria egiteko da. Ez da naikorik? Ganera eus-
keraren zaindari buru dira geure idazleak. Bakoi-

tzak aal dauana egiten dau ta asko dakianari asko eskatuten jako, ta gitxi ezjakinari. Buru argi lar dagoz gaurko egunean, baiña ez dabe gauza andirik egiten Aberriaren alde. Gaixo oneek ostera, amaikatxo lan eder dagie.

—Zugaz txartxan jarri baiño gurago dot txaidera joan. Agur.

—Agur ba.

Atzo larunbatean izketa auxe euki neban adiskide bategaz. Zeuek esango dozue bide onean nor dabillan. Idazleok parkatu, asketsi, idazki guztiak argitaldu ez badodaz. Ogei dagoz neure kutxan atzeratuta. Errietan abertzaleak idazteko zaletasun bizia daukoela onek esaten deust. Orixe dikur bai, gaurko joritasunak. Aurre-ra.

1931-XI-29

Eskerrak

Eskerrak egin, bearrean nago idazle ta adiskide askori. Neure *Bide barriak* dirala ta, eskutitz asko jaso dodaz zorion agurrez. Batez be Gipuzkoako anai batzuk agurrik maitekorrena egin deuste. Eskerrak! Euskereari indar apur bat emoteko baiño ez dot idatzi. Ontzat artuten dozuela neure lantxo au ikustean biotza asetuten jat. Adiskidetasunagaitik dalakoan nago, ez idaztiaren gaiagaitik. Egun gitxitan pillo andia saldu dot. Orrela laster da amaitu. Idazle bateri atsegiñen jako auxe. Biotzetan sortuko al dau neure idaztitxo gaixo orrek euskereaganako maitasuna. Izkuntza baztertu onetan be gauza asko esan geinkezala azaldu gura izan dot. Ez dakit osatu dodanentz edo ez.

Guztiori ezin erantzungo deusuet, baiña lerrotxo onein bitartez agertuten deusuet neure atsegiña ta esker ona. Aurrera jarraituteko indarra emon deustazue, beti izkuntza maite onetan idazteko oldea. «Bide barriak» dira gaurkoak, laster izango dira beste bide batzuk. Aberriaren

abestiak, geure aur kutun onen goralpenak. Gitxi ez da ba, zuen agurrok bultzatuten nabe lan egiten. Baiña euskeraz jakin ez arren erosi dabenai, eskerrik ugarienak. Bilbao onetako aldra batzuk erosi dabe, euskerari lagunduteko bide onetatik, eurok jakin ez arren geure izkuntza. Pozgarria da. Idazti oneitan geienak zoztor egiten dabe. Eskerrak zuei, ez dot oraingoan egin.

1931-XII-11

Eztabaida

«Argia» asterokoan idazkitxo bi irakurri ditut «Bide barriak» dirala ta. Larreko, idazle askoren maisuarena bata. Larreko jaunak berari jagokon erara, argi ta maitekor idatzi eban. Eskerrak egi-ten deutsodaz, egiaren aldetik dabillalako.

Gaurko idazleen artean erdal usaiña darabilgula egia da. Tamalez erbestetarren ekintzetan argiak gara. Geure gaztaroan egin doguzan ikaste guztiok, erderaz. Eta urteetan euskera be ikasi bagendu!; baiña txikitán itz batzuk euskeraz entzun arren, geienak erderaz baizik ez dogu egin. Euzko idazleai jarraitu bear deutsoegu tinko-tinko, batez be antziñako idazle jatorrai. Onetzaz itzik be ezin egin daikegu, guztiok gagoz asmo onetan eta.

Larreko jaun onak ondo daki nora jo bear dan eta bere onuak aitzakotzat artu bear doguz. Euskal idazleak azaletik baizik ez dogu joten geure elea.

Baiña napartar idazle agurgarriaren oste, beste batek be ots egin dau Argiaren orrietatik.

«Euskaldun batek» izenpetuten dau. Nor dan ez dakit, euskaldun asko diralako, baiña igarriko neuke bere jaubea. Bide barriak ez dira idazle orrek uste dauan tokietatik ibilteko. Izkuntza barria ez, zaarra bear dogu. Gaurkoa tinkotu daigun, guztiz tinko joskeran. Baiña tamalez, leengoan ondo ibilten dakienak ez dira agertzen bestean aginka egiteko baiño. Gauza erreza da bata besteak egiten dauan lanari akatsak aurkitutea, baiña norberak idazti bat argitaltzea ez da orren erreza.

Bide zaarrak ezagututen dabezan orreik ixilik dagoz edo. Ganera, neure idatziazkoa oker dago. «Bide barriak» baderitxot, ez da izkuntzagaitik geiagogaitik baiño.

Orain arte erabilli ez diran gaiak diralako geure liburuan, izen ori jarri neban.

«Lauaxetaren «Bide Berriak» (sic) ez dut ikasi: Bizkaieraz egon bear du eta nik ez dakit gipuzkoeraz baizik». Neuk be ez dakit bizkaieraz baizik eta ezin idatzi ba, gipuzkeraz. Tamala ez da erriko txokotxoan sartuta bizi izatea!

Eta oraingo olerkietaz diñoana egia izanen da, noski: «Ulertu eziñak» «Alaz ere oiek aipatu

eta oiek saritu». Euskera errezean egiñak non geratzen dira ba? Gai danak olerkiak egiteko egin bediz, errez edo gaitz. «Ori ez da euskera txunkutzeko bidea, naspiltzeko baizik». Baiña naikoa ez da au esatea.

Oraindik zeresan geiago dauko idazleak eta ona zer dirauskun:

«Orregaitik olerkari batzuek, asko ez izan arren, zaletasun andia dutenak eta olerki politikak egiten zituztenak, gogaitu ta zapuztu dira, ba uste det oien galera euskerari ez diotela ordaintzen bide berritik nai dutenak».

Bide barritik doazenak goralduten dabe ba, Arresetar Emeteri olerkari aintzagarría. Bide ertzera jaurti ete zaitugu, Arrese, oraingo barriak? Ez dot uste, olerkari orren liburu bietan pozik edaten dogulako askok. Enbeitatar Kepa gogaitu ete da oraingokoak ez dabelako sarituten? Ez. Garbinai olerkari jaioa be baztertuten ete dabe barriak? Gabirel eta beste batzuk? Ez, benetan olerkari diranean, aintzakotzat artzen dabez guztiak.

Sariketan olerki bi izan dira sarituak: neurea bata, ta bestea Lizardirena. Euskera txukuntzeko

ez dira izanen, naspiltzekoak baizik. Baiña nik eta Lizardik ez daukogu errurik epailleak ontzat artu badabez. Euskera erreza daukoenak ez ziran agertu eta...

Olerkariak ez dira gogaituten bide barrietatik dabilzanak dirala ta, euzkoak ez daukoelako olerkariantzat txalorik baizik. Tamalez asko dira geure artean orrelakoak, baiña ezer egiten dabena be geiago irabazten dabe ixillik egonaz. Izkuntzeari lagunduteko bide guztiak dira onak. Euskera ondo ez dakigunok aal dogun eran idazten dogu. Baiña beti, aberriaren izkuntza dalakota maite dogulako geure erriaren ezaupide ederra. Nik ez dakit gipuzkeraz edo bizkaieraz edo lapurteraz ibili barik aal doguzan mota guztiak ikasi. Euskeraz beti mintzatu. Batzuk txarto egiten dogu, beste batzuk obeto, banakak ederki. Gorengo maillara igon gura dogu guztiak, baiña ezin... Euskaldunak jaiotzetik eta beti euzkotar artean bizi diranak, ez dakie zelako lana egin bear dan geure izkuntza ikasi ta itz egiteko.

Aalegindu bediz ba, euskera zaarra ta errikoia dakienak idazten eta lan egiten. Izkera amak baleukoz idazle guztiak argiak eta azka-

rrak! Aurretik doazenak erakutsiko deuskue ba,
bidea. Zaarrak edo barriak, betoz, itxaropen
bako mendi onetan galduta gabiltza eta.

Barrizaleak

Kofradi barri egiteko, zer bear dot? Adiskide batek itaundu deust. Zer bear dan ez dakit ba, erantzun deustot. Eskapulario andi bana lepotik zintzilikan jarriko, uleak moztu, bizarra kendu ez edo.

Orreik kofradi bat egiteko bideak izango dira; kaputxino edo olako fraileak bizar, eskapulario ta abar izaten dabez, nik baiña kofradi barri bat asmatu gura neuke.

Aita Santuaren baimenik ete dauko, larri itaundu deustot adiskide minari.

Ezta, erantzun deust, ez daukok Erromako baimenik. Bearko ete dogu ba? Ez dozu bear ko ba!

Ara ba, jarraitu eban neure lagun orrek. Kofradi bat esan dot, baiña bi be izango dira. Galtzadun mutillak asmatu bear doguz. Galtzak besteak be eukiten dabez, gizona, nik. Galtzak estalduta areik, erantzun deust berriro.

Ea ba! Azaldu egidazu zelako kofradia egiteko zaran! Idazleakaz kofradi bi egin gura dodaz.

Neure begi andiak ikusi ebazan edo, larritu zan ba. Ez dozu sinistuten ezta? baiña idazleakaz kofradi bi egingo dodaz. Batzuk bizar luze, eskapulario, jantzi nabar, ortozik, barazkiak baiño jaten ez dabezanak.

—Kofradi orretan neu ez naz sartuko, ba.

—Ez, kofradi orretakoak izanen dira errez zaleak. Bestekoak barriz, señorito antzekoak. Oraingoan idazten daben ginbaladunak. Nefelibatás deritxoe. Elegante ibilliko diran arren, anaitasuna bearko dabe, besteak be euren aurka gogor egingo dabe.

—Ez dira burrukaldi txikerrak izango kofradi bi onein artean.

—Burrukaldiak non ez dira ba? Iñoren lanari eskerrak egiten ez dakienak, «que todo tiempo pasado fue mejor» eta orrela itz egiten dabenak kofradi zaarrera joango dira. Txoroak, ganora bakoak barriz, bestera.

—Jaungoikoak eskutik eukiko al gauz.

—Bai; Goikoak eukiko gauz eta ganera epailleak jarriko doguz, euren eztabaidetan gauzak zuzenduteko.

—Epailleak jarri? —galduak gara.

—Baiña nortzuk izango dira batekoak eta bestekoak?

—Gauza erreza, ezin konsentidu edo sufritu geinke, esplikaziño klarua eta abar idazten dabezanak alde batera, bestera ostantzekoak.

—Eta erdian ez dira geratuko batzuk?

—Ez, erdikorik ez dago. Bakoitza zein kofradiko dan epailleak esango dabe. Batzutan eztabaidak arteztuteko etorriko dira, iñork dei egin ez deutsoenak. Erderaz esaten dabena, oneik be agertuko deuskue: «Ya estoy aquí porque he venido». Norberak bere agoa daukonik ez da entzungo. Kofradi batekoak edermen zuria, besteak baltza. Ta kito, ez itzik ez putzik egin gero!

—Baiña gorria, beillegia, urdiña, nabarra, oria, orlegia, ostiña ta abar dira margoetan be.

—Ezetz gizona, edermen bardiña guztiak eta kito! Neurkin bardiñak emongo jakez. Zuek lau metrokoak, besteak bostekoak. Eta batera ebagiko dozuez idazkiak. Maitenon modara. Besteak Court erara. Orain aldatu da aintziñako esakera: nabartasunean, edertasuna. Ordu baten guztiak idatziko dabe, ordu baten izparringira bialdu, lerro be bardiñak. Kobrau bear danean olakorik

ez da zainduko, baiña... Tira, ez dago txarto. Askatasunik ez.

—Larri izan bear dogu, ba.

—Larri, bai. Eta epailleak barritzaletzat zigortuko dabe leenengo «Larreko» alorra. «Lizardi» barriz mordoillo zale ta idea bako idazleen saille-
ra sartuko dabe, ausardikeri andiak egin dauzako.

—Ura ta ogiagaz bakarrik urte bian esituko dabe Lizardi ori. Orixe jauna bizitza guztirako espetxean sartu «por incorrecto». Zigor gorriegia daualako!

Argi idazten ez eban Virgilius idazle azkarrak eta ete dakizue zer jazo jakon bati? Neurtitz batek onela dasa:

Timeo Danaos et dona ferentes...

Eta erdaldun batek onelaxe irakurri eban: Timoteo Danaos y doña Ferentes. Bazkal orduan ezagunak dira oneexek euren etxeetan!

1932-II-25

Biotz begietan

Emen daukat esku artean idazti barri bat. Euskerazkoa dau bere mamiña. Olerkietan egaiz egin dau Lizarditar Jabierren altzotik. Idazki txikia, baiña ondo osatua. «Biotz begietan» deritxo, olerkigillearen begietan eta biotzean sortuak balira.

Eder miñak jo dau Lizardi jauna. Noragiñokoa dan ezin adierazo, baiña neure agorako gorengo maillan jarri bear izanen dogu. Erderaz be albo-ko orriz datorz olerkiak, iñori ulergaitzak atzerantza eragin ez dagiontzat.

Olerki oneik eskutara dozuzanean, neure oar auxe gomutan euki. Neuk baiño obeki onetzaz aurre itza egin dauan Orixe jaunaren itzak: «Etzazula eriosuar irakur emengo olerkirik, ahal-paldi arnas batez asi ta buka; ezta, agiz, lerro osaka, lerro erdika, laurdenka, itz bakoizka, gauzak eska dezan araura baiño. Mandoaren ur edateari baiño oilloarenari areago zagozkio».

Lizardi jaunak goietaz egaiz dagi. Orain arteko bertsogille askoren antzik ez dauko.

Adiskide miña jat Lizardi ta adiskide antzo gauzatxo bat belarrira. Zeure olerki ederrok abarrotsa ta zalapartak amaituko dabez. Entzun bear izango dozuz entzutekoak. Zaarzale diranak, barrizale diranai arrika egiteko begi zolidagoz. Zeure esangai ausartuak, askoren atsegin? Ezta atsegin erdi be!

Gogai lar dozuz buruan eta asko bizi dira gogai barik. Oneei min besteen joritasunak edo. Olerkiz olerki neure eritzia entzungo dozu beste egun baten. Erderaz esango deustut, ez erreza-go jatalako, idazkiaren zabalkundea egin nai dodalako baiño.

Ahapal guztiak irakurri ostean, biotza asetu jat. Pozak irri egin deust begi ninietan. Euskerari orrelako olerkariak sortu bear jakozala nork uste? Baiña zeure olerki txortan atsegiñen gaur be, Tolosan saritua jat. Urte-giroak jatazan eder. Udazken, beste batzuk naiago. Uda (baso itzal) egokia. «Biotzean min dut» ez da makala, triste antzo ez ete zagoz?

«Jabiertxoren eriotza» begietan sartu jat. Orain arte olakorik ez dogu entzun. Neuri beiño-la olerkari ots egiña zara. Nik, baiña, ezizena uti-

kan jaurti dot, zeuri ots egiteko era bardinez. Baiña olerkari iaioa zara gero. Ez zaitudala bildur, baiña etxean kirikiño baten antzera nerau sartu naiz, beste baten olerkietan urten nai ezik.

Ausartua nintzake, uste neban, baiña bildurrak jo nau. Olakorik jazoko? Ez! Urtzik emon deutsu irudipenik lar. Doai orreei erantzun bear. «Zuaitz etzana» bizitzaren irudi begizu.

Geiegi goratzen zaitudala iñork uste izan ez dagian be, oar bat esango deutsut. Neure ustez illun dira zeure olerki batzuk. Euskerea zeure morroi dozu, baiña noizbeinka iges egiten deutsu, ezin esituta. Onetzaz gomutan dot Carducci olerkari aipagarriak iñoana. Ezin gerketarren era esi italiarren elean eta illuna bere begi gain zala ots egiten eban.

Oraindik biurtu barik dan izkuntza onetan, gura doguzan gogaiak ezin esan. Bakoitza gabiko bategaz gabiltz, txinpartak atera nairik. Onela obeto, bestera baiño? Izanen. Baiña naiko lan egiten dau onela barik bestela egin bear dala erakusten dauanak.

Garcilasoren olerkiak, gaurko Alberti edo Machadoren antzeko izkuntzan? Ez. Baiña Garci-

laso izan ez balitz, edo Gongora izan ez balitz, gaurko García Lorca edo Guillén be ez ziran izango.

Lizardiren olerkiak au, ori edo bestea izango dabe, baiña olerkiak ez dirala ezin esango. Neuk be leenengo olerkari izan naiak senti nebazan. Gaur ez, eta argi esango dot: Lizardi dogu buruzagi. Kiderik ez dau izan, diño Orixek, nekez duke garaitzaillerik.

Olako olerkari bat agertzen danean, alde guztietan poza entzun bear geunke, baiña lurralde onetan ots bat be ez dogu entzun. Negar egiteko lain. Olerkari bat Urtziren bezuza da, besteen pozgarri dan gizona. Baiña euzkotarrak ez dakie zer balio dauan olako batek. Emen olerkariak zorotzat edonork artuko dauz. Gaurkoz Euzkadin ezeze Espaiñan be, Lizardi lako olerkariak ez dira izango bi. Geure elertizaleak poztuten dira? Ez dirudi. Eder miñak barik, zizki-mizka azkureak jo dauz.

«Biotz begietan» idazia izkuntzaren mugarri bikaiña dogu. Askoren zoztor-bide, beste ainbaten atsegin-gai. Eta egilleari zorion egiteko seme. Semerik borobillena, xaloena ta ederrena

egin deuskulako. Txapela erantzita agur, olerka-
ri gurena.

1932-V-11

Orixeren «Maitale kutuna»ri kritika dala ta

Eskerrak Orixeri egiten deusodaz idazki au bide. Egi biribillak idatzi dauz. Zuurki dabil. Eta idazletzaz burua orraztuten dauanak, bestearen esanak goxoki artu bear. Geldiarazteko baiño, zirikarazteko dira oar orreik. Orixeri olan irudi. Neuri bere bai. Udako arotxoa igaroteko asmoz gaur kanpora noan ezkeru, ezin erantzungo deusot ariñegi, baiña aldiari berea jagokan ezkeru, erantzungo.

Oraintsuko Franceko poeta barrizaleen antzera idazten dodala esan daroela, diñaust. Ez ba. Ori diñoanak ez dakit zelango idazkerea gura dauan. Francen gaurkoetan Valery, Claudel, Gide, Cocteau-ren antzik iñondik ez. Leenago parnasiano esanak, neure gogokide, bearbada.

«Maitale kutuna»tzaz azterketa: ederki egiña. Olerkari guztiakaz orixe egin bearuko. Baiña naiakoatzaz idatziko dogu. Batzuk naiakoztat edo amaneramientoztat daukoena, besteak ez. Bakoitzak bere agoa. Ez nago antziñakoetzaz

diñoanean. Zentzu eskola eukiko eben, baiña ez guztitik. Pindaro baizen romantikorik ete da? Ovidio bere bardin. Lirikan nortzuk zentzun eskola osoan? Horatius? Teokrito? Ba dira ludiko literaturatan olerkari gorenak, klasiko izan ez arren. Baiña gai au arriskuduna dan ezkerro, onetzaz luzeki ekingo.

1932-IX-6

Erantzuna

Egun batzuk joan jataz «Orixe»ren idatki bati oar bat erantsi neutsola, baiña lan askotan zear nabillen ezkerro, neure asmoak ezin bete edo-noiz. Ordu luzeak ez dodaz idazteko, astegunetan lan eta jai egunetan lan, aberriak beragan lotua narabil!

Esanak betetuteko ostera, orain asiko naz gai aretzazko zertzeladetan. «Orixe» jaunak olerkiak eta olerkariak zirikatu gura dauz. Gogorki bere oarrak idatzi daroazala batek baiño geiagok esan daroa. «Dogmatizando» antzera diñarduala. Baiña kukurru orreik, idazle ori ezagututen dogunak, ez doguz arrokerizat jasoten, ezta bera lakorik ez dagoalako eupadatzat. Bakoitzak bere izakerea dauko, batzuk milinga eta itxura naiakoak dira, besteak arro-arro idazten dabena.

Napoleon buruzagiari itaun bat egin eutsen: gizaldietan izan diran buruzagietan, nor burutzat autetsiko zeunke? Eta Napoleonen ustez iru baiño ez dira izan, ez bere izango, buruzagi

izena merezi ebenak. Iru orrek nortzuk ete ziran jakin miñez, itaungilleari agotik atera eutsoezan. Guztien buru Anibal eta Cesar ziran. Eta irugarrena? Napoleonek ez eban olakorik azaldu nai, apala bere ez zan baiña. Azkenean itzetik eldu eutsen, bai? eta erantzun eban: Irugarren buruzagia nerau.

Eta berak esan ebanari erdiak baietza erantsiko deutso. Ez dalako Napoleonen antzekorik amagandik sortu.

Lirikan nortzuk ziran klasiko itaundu neutsan «Orixe» jaunari, orren goikotzat eukazan ezkerro klasikoak. Neure obenik andiena idazle orren ustez «antziñako poeta jatorretarik ez zaio ezer aundirik itsasi» itzak ziran.

Ez dakit askorik edo gitxirik itsasi jatan, baiña antziñekoen artean lirikan klasiko gitxi dala ederki dakit. Zenbat. «Orixe» jaunak azaldu deustaz?

Bi baiño osoan ez dauz aurkituten: Dabit eta Fray Luis de León. Urrena nor? Ez dakigu, ba. Uste neban ludiko elertietan beste batzuk be ba zirala. Niretzat Francen dago klasikotan klasiko dan olerkari bat. Eta liriko ganera. «Orixe»k ez

dauala ezagutzen edo burura ez jakola etorri neuri erantzun deustanean? Nik ez daukot orretzazko errurik. Baiña neure berbak ez dabe itzalik izango idazle orrentzat, ezta bere orri jarraituten deustentzat. Jo dagidan Menendez y Pelayo jaunaren babespera, arexek lagunduko deust eta. Orain urte batzuk Santanderreko idazle onen olerkiak irakurten nengoen eta euren arteko bat, Chenier idazleari opaldua zan. «Divino» deituten eutson olerkari orri, prantzitar olerkariari.

Andre Marie Chenier lako olerkari asko ez dagoz ludion. «Espetxean zan andereño bati». «Ilzorian zan beste gazte bati». «Elegies» idaztian diran gaiak artu egizuz eskuetan eta esango deustazu klasiko nor dan. Platon neurtitzetan ez zan izan Chenier bezain «sophrosyne»tsua. Baiña Dabit eta Fr. Luis de León ezeze beste batzuk ba dira or-emen. Euren doaien jaube diranak, klasikoak ba dira. Foscolo, bere «Illobiak» deritxon olerki luzean eta amaulakoetan, klasikorik gorengoa dozu.

Italiatik urten barik, Leopardi, klasiko argia da. Gai itunak darabilzala? Ez da ardurarik, Leo-

pardi ez da klasikoetzaz itz egiten asten garanean aaztuta itxiteko olerkaria.

Leopardiren neurtitzetan azalekoa eta sako-
nekoa, biak alkaturik dagoz. Erderaz «armonía»
esango geunke eta gerkeraz «sophrosyne» sarri
entzun dogu. Oraintsuago izan dan Carducci
olerkaria, klasikoa ez da edo? Sei illabete ez dira
Milandik ekarri nebazala aren Odak. «Nuevo
poesie», «Odi barbare», «Nuove odi barbare»,
«Rime nuove» idaztiak artu egizuz eskuan eta
antxe ikusiko dozu klasikorik danentz.

Italian beste batzuk bere izan dira. Baiña
zetarako ona etorri eragingo deutsegu besteai?
Doistarrak klasiko artean ederto jarreraziko deu-
tsoe Goetheri. Romantikoa zala? Ez. Gura eba-
nean romantikoa zan, beste batzutan klasiko
onena, askotan asitar irudimenez josia. Holderlin
bere ez da osoan izango, baiña eusko olerkariak
aren aiñako klasikoak balitzaz, pozik dantzan
egingo geunke. Betorz ordu onerako Englanden
izan zan Ivan Keats baten antzekoak, «Endy-
mion», «Hyperion» eta «Eve of Saint Mark»en
antzeko olerkiekaz.

Klasikorik gitxien Espaiñan izan dira, neure ustez beintzat. Or Catalunya inguruari bat punta-rengoa izan eben: Costa y Llovera. Jaupari orren olerkietan zoragarrizko olerkiak dira, klasikoen artean klasiko dirala. Zertarako dakardazan izen oneik? «Orixe»ri erantzuteko, berak esaten eustan, ba: «Bai, «Lauaxeta», klasiko zer daneko ontan, uste baiño ondoagoan naukazu. Neuk bere erakutsi gura deustat, ondo ez, baiña erdi ondo ba nagoala klasiko zer diran eta nortzuk diran gaian.

Dabit eta Fr. Luis de León klasiko dirala? Bai baten! Baiña antziñako aietan nortzuk erakutsi eusten «sophrosyne» ori, lirikan? Virgili klasikoa izango da edo, baiña romantiko andienetarikoa bere bai. Azal zoragarria dauke aren neurtitzak, baiña mamiñez itunberak eta «emekiak». Sophokle klasikoa dala? Zazpi antzerki baiño ez daukoguz gaurkoan idazle orrenak. Zeiñetan klasikoen? Kendu egizu «Edipo Colonan» bai? eta gero esango deustazu. Antzerki orretan bai klasikotan klasiko dala, batez bere abestaldearen leenengo abestian. Colonari opalduten deutson abestialakorik ez da sortu.

Baiña «Edipo Bakalduna» orren klasiko ete? Guztian ez dagoala klasiko edo «sophrosyne» betean irauten dauanik, ederto azalduten deustazu. Ni bere orretan. Baiña lirikan antziñakoen artean, Dabit kendu ezkerro, agur besteai.

Horatius ez da klasikoen artean eredu onena, biotz bakoa zalako, buru argia euki arren.

Platon alde batera itzi dagigun, lirikan ez baita iñor. Teokrito bere klasiko sarri iruditen jat, baiña «milinga eta itxura-naiekoa», «amanerado». Baiña azalduko deustut ez dagoala milingata itxura-naiekorik, ez beste koplarik, bakoitzaren idazkerea baiño. Gogo batzuk dotoreak dozuz edo «pulcras», baiña beste batzuei base-ritar usaiña darioe. Eta urian sortu diran askok usain ori.

Bakoitzaren sortuburuari bakean itzi bearjako, ta betorz moeta guztietako olerkiak eta idazlanak. Zeure klasikoen aurka berreunka jarriko neukez olerkari onak elertie tan. Englandek daukon lirikarik munduko elerti batek ez dauko. Ori zeuk gura dozunean erakutsiko jatzu. Eta zeuk gura dozuzan klasiko asko ete dira Englanden?

II

Englanden sortu dan lirika lakorik iñon ez dala sortu aitortu bearrean gagoz, baiña «Orixe»k gura dauzan moetakoa klasikoak ez dira. Aren itzak orain diñoguzanaren mokoz moko? Azalez olantxe dirudi. Zentzuz lirikan gitxi ibilli dira, biotzetikoa dala olerki jarioa. Zentzuna arau ta neurriak jarri bear deutsozala biotzari? Bai, baiña noragiño neurri orreek jarri bear deutsozan, ezin azaldu geinke. «Orixe»rentzat onaiño edo araiño; beste batentzat, barriz, urruntxoago.

Tankera batekoa lirika ez da, askotakoa baiño. Biotzak moeta askotara abestu daroe. Gai onetan arira Menendez y Pelayori jazo jokona. Klasikoetan azia iñor izan bada, Menendez y Pelayo bat izan dala esan bear ko. Gerkeraz neurtitzak egiña dogu gizon ori. Horatiusek zer balio dauan beste batek obeto ez ekian. «Horacio en España» idazti ederra berak egiña da. Virgiliren zertzeladak bardin aztertu ebazan, idaztirik ez

eban amaitu, baiña ingi asko itxi. Artigasek laster argitalduko «Virgilio en España».

Erderaz irakurri dodaz Menendez y Pelayo jaunak itzulitako Saphoren bertsoak. Ez zan makala gizon ori! Baiña geiagorik azalduko deutsut. Olerki bat egin eban Santanderreko seme orrek doistarren eta ipar aldekoen aurka. «Las brumas hiperbóreas» eta abar antxe esan eban. Guzti oneekaz zer arira? Menendez y Pelayoren klasiko zaletasuna ta beste poesi barrienganako gorrotoa.

Urteak aldatu eragin eutsoen baiña. Ago bakarra eukon eta kutsu edo gozo bakarrerako barik askotarako beratu jakon. «Lieder» irakurri baiño Kikeroren neurtitzak txarrak izan badira, arenak bai irakurri naiago.

Eta «Orixe» jaunak ba daki Heinetzaz ederki eta sako nen nork idatzi eban? Doistarren artean ez da kritikorik izan. Menendez y Pelayori txapela kentzeko Heinetzaz idaztean. Herrero jaunak gazteleraldu ebazan Heineren olerkiak, «Lieder» deritxoenak eta aurrizta Menendez y Pelayo jaunak.

Emen ataltxo bat jarriko dot: «Confieso que en otro tiempo gustaba yo poco de Enrique Heine, considerado como poeta lírico. Nunca dejé de admirar su prosa brillante y cáustica, y siempre le tuve por el primero de los satíricos modernos, pero la delicadeza incomparable a sus canciones o Lieder se me escapaba... Pero el gusto se educa, y no soy de los que maldicen y proscriben las formas artísticas que no les son de fácil acceso o no van bien con nuestra índole o propensiones...».

Ez noa geiagorik idazten. Aspaldion oldoztuten dodana itz orrekaz ederto aldeztuta dago. Euzko elertian era guztietako kiñuak bear dirala. Klasikoak sentitzeko ez dala neure agoa? Areen gurtzale naz, baiña ludiari arte edo irinarte bate-tik ez jako begiratu bear, tarte batetik beti moeta batekoa iduriko jatzulako. Ateak zabaldu egizuz ludia ikusteko, izadiari agur egiteko ta begiak joko dabez amaikatxo moetatako lurrak eta edertasunak.

Klasikoen zaiña eta osasuna atsegingarri dala esango dot. Baiña baserriko emakume lodikotea, artoberoz azia, matrail gorria, atseginga-

rri jatan arren, txaide arteko emakume aratz eta lerdena atsegiñago jat. Usain ohea daukatsu txaideko emakume orrek. Biak atsegin. Klasikoe-kaz beste orrenbeste jazoten jat. Virgili begiko jat, baiña Goethe begikoago. Teokrito ez da neure lan etsaia, Maragall adiskideagoa. Horatius zeuretzat emongo deusut Keats, Novalis edo beste bategaitik.

Osasunean eta zain odoltsuan edertasunak ez dira goratuten beti, beste gogo erkin eta murrizetan bere loratuten diralako. Klasikorik ez romantikorik idaztietan ez dogu erabilli bear. Moeta bitako olerkariak eta idazleak baiño ez dira: batzuk edertasuna azalera dakarrenak, barruan daroielako; beste batzuk, edertasunaren izpirik bere ikusi ez dagenak eta atxakia ezin dagienak.

Edertasuna ez da iñoren morroi, ez eskola batekoen seme. Zentzuna eta biotza batera dabilzanean, txukunen edertasuna azalduten dala, egia. Baiña, «haschic» edaten ebenak bere edertasunak atzemoten ba ekien. Klasiko asko ete dina gaur? Olerkarien artean puntarengoan danik, ez. Valery jaunari Nobel saria emongo

deutsoe. Orixek gura leunken moetakoa dogu Valery? Iñondik bere ez! Euzkadin jaio balitz, Orixeren zigorkadea lepoan eroango eban, baiña Francen bere kritikoak sortuko ziran klasikoetan aziak ta Valery jaunari saria emoten deutsoe.

Bake giroa gura dau «Orixe»k? Irakurri begi «Itsas-illobia», prantzetar olerkari orrek egiña. Antxe idoroko dau bake girorik samurrena.

Orain artekoak irakurri ta klasikoen arerio gogortzat iñork autetsiko nau. Iñorenak ardurarik ez deust, neureak baiño. Neurekiko klasiko ez naz, romantiko bere ez —zer zara, ba?— ederzalea. Goikoaren doaiak alde guztietan aurkitu dodaz, eskola guztietan idazle gorengoak eta idazle kaskarrak bidera urten jataz. Omer irakurtean pozaldirik onenak igaro dodaz, baiña Maragall irakurten bere, zugatz pean, udabarri lora-tsuan, egunik maitekorrenak ikusi dodaz. Chénier eta Fr. Luis de León biotzekoak jataz, Lamartine edo Baudelaire bardin. Gongoraren kutsua neuretzako gozo? Bai. Antziñako klasikoak gogo tolesgea euken, «sencillez» delako ori. Urtetzen ziran mendira bai? eta ume baten begiakaz guztiak ikusi ostean, azalik zoragarrienean esituten

eben gogaia. Gauzak bakoitzari zor jakon neurrian biotz ukitzen tiran. Auxe dogu aolkurik gurena. «Sophrosyne» edo gokentza bearrekoa izaten da, atsegingarri bere bai. Onetan guztia ez dago. Itxasoa baretan, ortzi urdinpean, uiñak dantzarazten aizetxoa danean, ikusgarri. Ez ete da ikusgarri eta atsegingarri ekaitzean uleak naastuta dabillan orduan, uiñak aitzen aurka bits zuria jaurtiten dabenean?

Klasiko zer diran onetan, «Orixe» eta «Lauaxeta» mokoz moko ez dagoz. Gai ori sarri erabili dogu izketetan. Baiña arengandik aldenduten nau zerbaitek. Gogo zabalduagotxoa? Kutsu aldetsuagoa? Neuri ez jat eder egiten askoren otsa: «klasikoetan azia dozu ori, antziñakoen seme ona, aitonen seme dozu». Batzutan klasiko eskolara joaten naz, beste batzutan Heineren eskolara. Noizbaiten Valery jaunari agur egitera edo parnasianoai.

Gogoia zelan kutsu alan. Gaur alai ta barre egiten dot, biar itun eta negar. Egunari berea.

Irizketa edo kritikan sartuterik ez jat gogoko, orain esan dodana bide. Garrantzi lar barik bizi-tzea artu daroat, gauzak ederrak diran tokian

atseden egiñaz, zerbait txu rrustatuz. Moeta guztiak biotz ikutzea dagiste. Arau oneekaz asiko naz, ba, irizketean? Ezta. Orretarako ez dot balio. Bake giroa maite dabenak idatzi begie. Milinga eta itxuranaiekotasunari josita gagozanak lora batzuk apurtuten doguz ta bizitza zelan ondoen igaroko dogun aztertu.

III

Neure irizketa onetan klasikoak aintzakotzat artu dodazala ezin ukatu. Doaiak aurrez euki arren, olerkari txarrak asko dira. Ovidiogan asi ta gaur zenbatengana elduko gintzakez, doai asko eukita, alperrik naastu dabezan izenak zenbaterakoan.

Klasikoak aipagarriak eta bide erakusleak jakuz, baiña zelan neurtu nor klasiko dan, nor ez? Arlo zail batean sartuko gintzakez. Ez jat iñoiz aaztuten Novalis idazleak esan ebana: «Olerki gai onena, egi utsa». Egia zer? Auxe itaundu eutson Josuri epaille batek. Geure adimenak atsedeen dagianean beragandik at dagozan gauzetan, egia sortuten jaku.

Baiña beste egi batzuk bere ba dira. Geure adimenaren barruan egi asko dira, izadian eutsi-kairik euki ez arren.

Eskuekin ikutu aal doguna ezeze zerbait geiago aurkitu geinke. Irizketan dabiltzan askori jazoten jake: neuri egia dala uste jatana, egia izango, besterik ez.

Eta izadiz beste diran egiak?

«Au geiegitxo esatea da» Orixek neure olerkiaren oarretan jarri eban bai? eta gogai oneik sortu jataz. Giza maiterik ez da izango ludion ain garbirik, baiña izan litza ke. Egiaz mokoz-moko idatzi nebana? Ez, antzik bere. Musuak otoi biur-tzen dirala edo ez, neure asmokoa ez da, diñoa-dana egi antzekoa bada. Gogoaren toles artean idoro bear dirala olako oldozkunak? Milingak dirala? Bai edo.

Bertso latz eta ulerkaitz batzuk «Maitale kutsua»n izango dira. Gura dozunean pilloka era-kutsiko deutsudaz bertso latzak Fr. Luis de León-en neurtitzetan. Orrek ez dau garrantzi andirik irizketa bat egiterakoan. Olerkiaren arima azaldu bear da, zelako artegatasunak darabiltzan edo olerki osoan poesirik dagoanik.

Saboi aparrez egin daikeguz olerkiak bere, egun baterako baiño ez diran izango, ta zer? kutsu ona itziten badeuskue, ordu onean betorz. Olerkariak ez dauz olerkiak egiten besteentzat, berarentzat baiño. Bakoitzaren gogoak bertso bat egitea eskatuten deusku, ta biotz ikutuak kanpora urteten deutso.

Franceko trizketeak egin ebezan Boileau eta beste amazortzigarren eundikoak ziran olakoxeak. Bertso au latza. Utikan olerki.

Beste onetan Aphrodite jantzi zuriegiz jantzi dau, apar atzekoz barik. Olerkari txarra. España-ko Hermosilla, Moratin eta abar arein antzera ziran. «Neoclasicos» eritxoen.

Ordutik ona barriz irizketa bideak zabaldu dira. Ludiko gora-beerak naaste andiak euki dabez, gogoak artegiak dira. Adan ez zan artega ibiliko leenengo egunetan. Aren olerkiak bai bake giroa eukiko. Baiña urteak joan urteak etorri, gerokoak, ezilkortasunak, zadorrak jo gaitue. Guzti orreik olerkietan azaldu dagikeguz. Zergaitik ez? Neure olerkietan ondoen irrakurri dauana, Estefania abea. Aren iritzia neure kutxan daukot. Ez «Razón y fe» aldizkingian argitaldu ebana.

Aren ondoan sakona neuri bialdua. Olerkiz olerki aztertuten dauz.

Irizketa orretan ondo igarten dau Estefania abeak, batzutan neure gogoak bake giroan zala, beste batzutan, barriz, larri. Ordu bakoitzari zor jakozan bertsoak urtetan jatazan.

Eta geiago. Sarri askotan zentzuz aldentzen nintzan klasiko tankeratik. Olerkiak «escultura» ezeze «musical» bere izaten dira. Moeta bi orreik olerkietan dagoz.

Maitasun olerkiak, azkenean zirikadea daroienak, ikusiko dozu zelan irakurriko dabezan. Oraindik alde gitxi, erritxo baten entzun neban neure maite kantatxo bat, eresi ederrez atondua. Gazteak abestuten eben.

«Mao gorria» zan. Zergaitik ori?

Maitasun naiak eta samiñak bardiñak diralako biotz guztietan, baiña «Artzandan» deritxon olerkikoak ez ostera. Areik neure oldozkunak dira, beste bati barriz, «Artzandan» bazkaltzeko zaletasuna baiño ez leukioe sortuko.

Jakingo dozu, bearbada neuk baiño obeto. Gaur Victor Hugoren olerki landurik nork irakurtzen dau? Musset ostera askok eta askok. Heine-

ri jazoten jakona. Onen olerkiak urtero argitaldu daroetz, baiña Klopstekren olerkiak ez dozuz ikusiko. Espaiñan zer jazoten da? Becquer-en «Rimas» umekondoak bere irakurten dabez. Nuñez de Arce izan zala bere ez dira gomutetan.

Milengarik ez emekirik ez dago, egia jotzen dozunean.

IV

Ainbat itz eta pitz, gaurkoraiño jo dogun ezkeren, Orixek neugan aurkituten dauan itxura naiari zor jakon oarra erantsiko deusot. Irizketa askotan zeure begiak ikusiko dabe: «idazle onek irakurgai au edo olerki au, egin dauan erara barik, bestetara egin bear eban '. Ori ez da idazle bati esatekoa.

Eritzia azaldu dauanaren gogoa moeta batekoa izango da; bestearena, barriz, eraz beste. «Itxura naiekoka zara». Ez naz! Neure ezetz onen aldera ekarriko dodaz Gautier idazlearen itzak. Aren esaldi bat azalduko dot, besterik ikutu barik.

Francen olerki txorta bat argitaldu zan, «Fleurs du Mal» eritxon eta Baudelaire abizena eukan olerki orrein aiteak. Arrikada andiagorik ez zan jausiko inoiz elerti baten gaiñera, olerki orrena baiño. Alde guztietatik didarrak eta oiuk entzuten ziran. Espetxean sartu bearko ei zan olerkari lotsagabea. Beste batzuk zoroetxera eroan nai eben.

Baiña irizkietan iñarduenak ez ziran osoan Baudelaireren aurka jarri. Thierry, Barbey, D'Aurevilly eta abar bere alden egozan. Aal izan eben eran olerkari gaixoa ugartzi eben. Irizlarien otsak zentzuzkoak ete ziran? Bai edo! Baudelaire-ren olerkiak larregiko ziran. Baiña batek bere ez eban elertiz epaikatuten «Fleurs du Mal» idaztia. Zileiztilari (moralista) ziran irazlari barik. Eta idaztietan zileiztasuna neurtu bear da, baiña baita elertietzazko mamiña bere.

Irizlariak okertu ziran, oar au aaztuta bazertu ebelako. Batek ondoren aztertu eban idazti barri ta ausartua. Gautier jaunak. Idazlan sakona ta begikoa erantsi eutson. Orain argitalduten diran «Fleurs du Mal» idaztietan aurritzatzat jarri daroe.

Idazlan aretatik neure arirako diranak baiño ez dodaz batuko. Irizlariak itxura naieko zala Baudelaire iñoen. Edo beste itz bategaz esateko «manierismo» ei eukan.

Olerkariak buru ez oin bako gauzak azaldu-ten ebazala askok ots egian. Beste batzuk oste-
ra, buruko barriztasuna ta gauza bakanak esan naia. Itxura naia, buru!

Gautierren erantzunak, jakingarri izango jakuz. Oar oneei narrua kendu eutsen. Batzuk, iñoan idazleak, berez itxura naiekoak dira. Izatez eta jaiotzez! Tolesgetasuna ta bakantasun (simplicidad) edo, itxura nai andiena izango litzateke eurengan. Beste moeta bateko itxura naia. Euren gogaiak eta buruak biurtu bearko leukeez bakunak dirala erakusteko.

Euren adimenak tolesgabeteak jaio ziran ezkeroztik eta gogaiak bere biurtuta urtetan jakez, artez barik. Beste batzungen gogai argiak, bakunak eta tolesgeak sortuten diran legetxe, euren adimenean gogaime, igeskor ta itzungabeak ernetan dira.

Ludiko gauza eder guztiai, aurrez aurre barik, ertz batetik begiratuten deutse. Olakoxe gogoaz

jaioak dozuz. Irudi, lilluraz josiak eurrez jariatzen jakez, irudi neurritzakoak barik. Gauza batek besteagaz daukon zerikusian errezenera jo barik, zailenari laguntza eskatuko deustoe. Erderaz esan bearko baneu, olantxe neure gogai au eziko neuke: «El amaneramiento es naturaleza en ellos. Y buscar la sencillez sería un amaneramiento inverso».

Zergaitik neure adimena nekatuko dot irudi bat aurkitu nairik, berak beste bat ikusten badau berez? Egazka igesi doan usoak gauza guztien igesi bearra sartu badagist biotzean, zegaitik bakearen irudia dala uso ori, neure adimenean sartu nai izango dot?

Udagoienak itun jarri daroaz begiak eta biotzak. Eriotz irudia baita. Baiña olerkari guztiak eriotz aurrean bake giro bardiña eukiko? Ez, batzuri larritasuna sartaraziten deustoe, beste batzuri eriotzaren poza ta gentzea.

Bizitzea eder jakonari, eriotza ez jako atsegin. Bere barrenetik oiu ta didarrak sortuko dira, ludion geratu nai daualako. Maragallen abesti baten ederto ikusi dagikegu diñoadan auxe. «Cant espiritual» buruz ikasi bear geunke.

Eta olerki orretan bizitzeari zelako maitasuna erakutsi daroatso olerkariak. Eriotzaren otsik entzun gura ez. Itxura naia ez da, ba, askoren uste dan legez. Beredin idazleri jaiotzetik jatorke. Eta irizketeak lana, adimen azterketa, indarra ta orio usaiña nabarituden dauan olerkian, erreztasuna etorri bera baiño ez da. Askori lelokeriak neurtitzetan idaztea kostetan jakena, beste onei itxura naiezkoak dirudien olerkiak egitea, ez jakee kostetan. Antziñekoai errezago izan jaken tolesgeak izatea, bakunak izatea. Zergaitik? Gaurkoan legez, gogaiak eta olerki gaiak mastrakatuta ez egozalako. Ludiaren sortaldean jaio ziran olerkari ta idazleak, goizeko argiaren mosuak ikututa, ez bestera, aurkitu ebezan gogaiak. Gaur gangarkeri andiena izango litzakeana, «vulgaridad» izango litzakeana, orduan gauza entzungarria.

Gizonak jakintza larregirik ez, baiña jakintza apurtxo bat geiago daukoe antziñako aldietan baiño. Eta leen arrigarri ziran gauzak, gaur papaukeri.

Elertiak egunaren aldiak dauz: goizaldea, eguerdia, ta illuntzea. Oraingoan eguerdian

gagoz. Baiña illuntzeruntz goazala. Eladetarrai jazo jakena an Alejandria urian elerti nagusiak ziranean. «Civilización» edo deritxon ori geratuten danean, bakuntasun edo tolesgetasunak aldenduten dira.

Apuleyo, Petronio, Juvenal eta Agustin deuna, latera elertian, atsegiñago askori beste leenen-gokoak baiño. Agustin deuna itxura naiakoa? Iñor ludion izan bada, deun ori bai! Mistikoen artean bere itxura naiak asko idoro geunkez. Emen dozuz ba neure ustez, zegaitik itxura naiako batzuk obenez barik errugez jantziak diran. Berez olantxe sortuak baitira. Aitonen semeai jazoten jakena. Aitonen semeok edo nobleok azkenerako seme murriz, erdi geixo eta euren sendia amaitu daroe. Odola meetuten jake edo. Asieran nobleak ziran odolik onena eukenak, gizonik ausartuenak, gudari puntarengoak; orregaitik aiton seme jatzuz. Baiña gero apurka-apurka odola galduten jake ta iñor baiño milingagoak dozuz.

Labankeri larregi, bigunkeri asko eta etxe landuetan bizi izan diralako. Larregiak beeratu

dauz! Idazleai eta olerkariari jazoten jakena. Gai-
xoak nagusi gura dodazanentz?

Gaur klasikoen eta idazlari onena izango
jatzu, oraingoan ondoen bere olerkietan eta
idaztietan azalduten dauana. Eundi bakoitzak
bere klasikoak daukoz. Eta klasikorik onenak
izan daitezke gaurkoan, itxura naiekoak diranak.
Ezetz?

V

Urte batzuk dira Franceko erdaltzaindian
Valery idazleak bere itzaldi entzutetsua aguzi
ebanetik. Gallimard-ek argitaldu eban itzaldia ta
bertan irakurri doguz begiko jakuzan oarrak,
elerti arloan.

Klasikotasuna joko bat dalako ustea darabil
idazleak. Baiña joko orrek bere neurriak daukoz.
Eta jokoan antziñako txiribiriak erabiliko doguz?
Ez, ba, jokoetan txiribiri barriak izaten dira, «yo-
yo» bedere.

Idazlearen edo olerkariaren argia bere ondo-
an igituten diranen min eta biotz berak, oinazeak

eta gogaiak ikututea, gauzarik ederrena. Zeure egunetan sortuten diran artegasunai erantzun egiozue. Eundi bakoitzak miesa bat edo lauso bat euki daroa begi ganetan. Lauso ori zear betestuten da ludia.

Eta eundi orretan bizi diranak, euren gogaiak azalduterakoan, lauso ori erakutsiko deutsue. Idazleak zer egin? Bere egunetakoan moko moko jarri? Jatorrizko idazlea bada, beste guztiak sentitzen daben erara bere biotzak bere sentiduko dau.

Urteak iges egiterakoan irizlariak esango dabe «eundi arteko artegeak eta oinazeak idazlari onek sakonen, ziurkien azaldu ebazan. Klasi-koena auxe baitauku».

Baiña idazle orrek bake girorik ez dauko? esango deustazu. Bake girorik ez dauko, bere egunetan bizi ziranak bake girorik ez ebelako euki. Bizitzako goraberak, eriotzeak, siñiste zalantzeak eta urduriak kezkatutako gogaien kiñuak idazlari orrek azaldu ebazan.

Omerrek besterik egin ete? Aren poemetan diran buruzagiak eta gudariak ez ebazan gogomin andiak euki. Neskaxa bat ederren zala, edo

jainko izunak zitalkeriak egiten ebezala. Omerren poemeran gogoari jagokozan gauzak barik soiñari eta lizunkeriarri ondo jagokozanak aurkituko dozuz. Idazlariak erara? Ez. Eundi areitako gizonak ez ba leukezan artegatasun larriagoak.

Erromatarrak zer egin eben ondo dakizu. Virgiliren gogaiak ez dira beste mundukoak. Aundikeri otsak eta gudari didarrak. Horatiusek ostera, bizitza erosoaren kantak edo guda abankeriak. Kristau gogaia eldu zanean urduririk ez, baiña gero zelaiari begira egozanak, bizitza uskeriak, eriotzako orduak eta ikututa, artegatuten ziran.

Danten, barriz, bere gizaldikoen asmoak ikusiko dozuz. Ludiaren osotasuna edo «unidad» orduko gogo sakonena. Doipuruaren menpean, ludi osoa gauza bakarra zan. Eta uzkurtza osotasun orren erdian. Amaisegarren eundian zer jazoten da? Pintziñako bizitza nasaiak eder iritzi, bai?, eta pagano antzeko biurtu ziran askotxo. Eta errez abestuten dozuz bizitzako atsegiñen gozotasunak. Bake girorik ez dozu bear aragiaren ederrak abestuteko. Aragiak ez dauz ba, ludiaren bestealdeko artegatasunak.

Amazortzi eta emeretzigarren eundietan sinismena galdu zan eta idazleak bake girorik ez dauke, gitxi edo baiño. Kristautasunak alde guztiak bete ebazan, eta kutsu orrek artegaraziten ebazan idazleak, siñismenik euki ez arren. Orain tximistaren eundia dogu edo ziñearen aroa. Fotografiz ludiari begiratuten deutsogu. Ori ikuskarri ederra! Betor fotografi bat! Eta idazleak tankera orri jarraituten deutsoe.

Eundi bakoitzean nor klasiko? Bere egunak ondoen esi dauzana. Idaztiak argiro erakusten badeutsu eundi bakoitzaren tankerea edo izatea, idazti axe buru dozu.

Klasikotasuna zer dan onetan, iluntasunak garabiltz sarri. Azalean baiño ez dago klasikotasuna? Ez, azalean eta mamiñean, biak alkarrekin doazenean. Eta gogoak artegeak badira, azalak bere artegeak izan bearako? Bai uste. Klasikoak urtez egiten dira. Eusko soloan klasiko dozuz leenago erromatarren ez eladetarren entzute añdirik barik idatzi ebenak. Españan, barriz, klasikotzat artu daroez Alfonso el Sabio, Berceo, Juan Ruiz, Diego de Valera, Bernaldez, Mena, Santillana eta gura dozuzanak, antziñakoak badira. Kla-

sikoak dira zeure ustez? Bake giro andirik euren-
gan?

Francen barriz, «Chanson de Roland» klasiko-
tzat emongo deusue. «La vengeance de Rioul»,
«La chanson de Jerusalem» eta beste askoren
artetik eldu zadiz Rambouillet etxeko aretoragi-
ño ta guztiak klasikotzat artuten dabezala pran-
tziarrak ikusiko dozu.

Beste elertietan bere orrenbesterik jazoten
da. Arira zer? Arira guztia. Gizonik argientzat
klasiko dirala, bakoitzak bere egunetan inguruko
gogoia sakonen azaldu dauana.

Apollinaire idazlea klasikotzat artuko deusue
laster. Mallarmé, Bataille edo Richepim klasiko-
tzat autetsiko dabez. Ago kutsu ona galdu dabe-
la gizonak? Ez dakigu, gai onetaz asko idatzi
dalako. «Ideas estéticas» idaztian ikusiko zendu-
zan goraberak edertasunatzaz. Platon baiño lee-
nago asi ta azkenengo edertzaleengana eldu
arte, batek bere gogai bardiña ez dauka ederta-
sunatzaz.

Klasikoetzaz beste orrenbeste.

Baiña iñoren lotsagarri ez nedin izan, klasiko-
engandik zer ikasi dagikegun azaldu ta amaituko

dot arazo onetzazko eztabai au. Orixe jaunak maite dauzan klasikoak zer erakutsi legiskuen jakingarri jaku. Eusko elertian barna dabiltzanak, zer irakurri bear daben bide onetaz esango dogu. Burua bere lekuan daukonak, asko irakurri ta agokera ta aukera ona daukonak ikotika batzuk egin dagikez, baiña oiñez ikasten dabilleanak ez.

VI

Elertilari izan nai dauanari, zer ikaspiderik erakutsi legioke klasikoak? Moeta guztietako idazleak, edertasuna azalduten jakin daben idazleak, klasikotzat artuten doguz. Baiña leenengo maillan dagoz, doai orreekaz lan iraunkorra egi ten aalegindu diranak. Gizatasunari jagokon idaztia iraunkorra jaku.

Gorengo diran idazleak, euren gogai ta idazkariai neurria itsatsiten deutse. Olerkigai ederrena biotzean sortuko jatzun, baiña azalera atera nai dozunean, bere ertzak eta neurriak bear dauz. Pitxiak alkarren leiak atera ta aurrez jaurti arren, lan osoa ta bakarra ez dabe erauten. Pitxi

izango dira, baiña marra edo joya txukunik ez dabe osotuko.

Biotzari neurriak jarri? itaunduko deustazu. Bai, imiñi geinkioz. Benetako idazlan onak eta ederrak irakurten badoguz, egun baten ez, baiña urte batzuk barru oftuko gara gauza guztietan neurri bakarra idoroten. Agokeran azi geinke aukera be bardin. Agoko kutsua jaki meekaz meetu egiten jakun erara, gogo kutsua.

Olerkiak biotzetik urten nai deutsu. Olerki orretan batasuna edo osotasuna lortu egizu. Eutsikai balitz, gogai bakarra erdian bego, besteak orri lagunduteko neskame antzo.

Kutxa eder baten zura edo ola nagusi dozu, baiña burni, pitxi ta adeluak bere morroi dauz.

Luis de León, Virgili, Horatius eta abar gai onetan nagusi jatzuz. Euren olerkietan batasuna nagusi. Gaurko batzungan bere batasun ori ikasten dogu. Leentxo Goethe, Leopardi, Manzoni eta beredin eredu aipagarr. Ludi onetan amaika-txo gauza eder bananduta daukaguz. Bardiñez diran gauza nabarrak, an-emen loratuten dira. Baiña bardineztasun eder orren eutsikai ta gogai bakartzat, ludiaren batasuna bere egilleari begi-

ra. Gogai bakarrak sortuazo eban ludia: Jaungoikoaren antzeak. Eta eutsikai au ezin galdu dagike ludiak. Beti baitago Urtziren goralpenak abes-tuten!

Eresi edo armonia bailitzan ludi osoa bake giroan dago. Osotasuna darakus bardiñeztasunean.

Idazle danak diñogun au ezin baztertu. Baiña osotasun ori zelakoa? Emen Orixek eta nik berri-ro burrukan egingo geunke. Neure ustez, epaika-ria izan bedi zentzuna. Zentzun au ez bedi askok gura dauana: adimen otza. Ez, edertasunak era-kutsi deuskun zentzuna izan bedi.

Edertasunaren batasun au garrantzi aundiko oarra dogu (1). Idazleak ez bedi iñoiz aaztu. Soi-ñaren atal guztiak, begiak, besoak, oiñak eta abar gogoak batuten dauz. Gogoa nagusi jaku.

Klasikoetan besterik ezin ikasi? Bai. Erderaz humanismo esaten daben ori, euskeraz zelan azalduko dogun jakin nai neuke. «Formación humanística» esan daroe. Ederzaletasuna? Zer-bait geiago. Itz orregaz azaldu nai neuke gizo-nongan biotza ta adimena gentzatu ta alkarren laguntza maitekorra jarten ebazan irakasbidea.

Bere men guztiak bardin azi daukazana, irudipe-nari larregirik emon barik, biotza bere geiegi meetu barik, orixe dogu benetan klasiko artean titiztatua.

Jakiña, ez da naiko. Jakintza joria daukenak ez dira beti ederzale onenak. Bizitza nondik sortu dan eta landarak zenbatzu moeta dauke-zan sakonkiro jakin arren, edertasunari eskurik emoten ez dakian asko ikusi doguz. Adar bakarra baiño ez dabe ezi. Euren jakintzarako adarrak, besteak moztuta dagoz, baztertuta.

Klasikoetan titiztatu danak, barniz, bere adi-meneko eta biotzeko adarrak bardin-bardin azi daroaz. Bata baiño bestea ez bedi luzeagoa izan.

Ederlan batzutan sentimenak begi zuurrak daukoz, baiña adimena itsu dago. Beste idazle orrengan biotza nagusi, burua morroi. Elertilari ori ez dago ondo azita, erdiz erdi baiño.

Zer egin bearko dau? klasikoengana jo, idaz-lari puntarengoen lanak irakurri, aztertu ta aus-nartu. Ederlanean batasuna eta menen arteko bakegiroa naiko dira? Ez edo.

Idazle argiak aukerea bear. Edozein gai ona ete jatzu olerkietarako? Ustelduten datzan zapo

illa, ezin izan daiteke ederra. Olerki bat ezin eratu daikezu atsa darion txakurra gaitzat aukeratuta. Aukerea bear.

Zelako gaiak aukeratuko dodaz, ba? Ori zure agokereak erakutsiko; klasikoak, idazle punta-rengoak erakutsikc deutsuela oraintxe azalduten deutsut.

Ikusi zelako gaiak erabili darabillezan klasiko diranak. Aintzakotzat ez dira gauza guztiak artuta. Baiña non gaiak aukeratu? Izadi amearen altzoan. Bide orrez geroxe, zeure gogoan, biotzean. Gizonaren barru onetan deus ez dago. Ingi zuria dirudi. Zelan gogaia sortarazi? Begien bidez asko, beste batzuk ikasi bidez, entzunez bedere.

Klasikoak izadiaren ikusketean aberastu dira. Irudiak aurrez sortaraziko deuskuz izadiak, baiña bere aurrean bakuntasun osoz egon gadizan. Oartu dagi gaudiko ñabartasuna. Eta geure biotza larregi ikututeari ez, bear dan neurrian ikututeari gagozan.

Orixe ikasiak dira klasikoak. Gauza bakoitzari zor jakon neurrian biotz ikutzea artuten eban. Ez

geiagorik ez gitxiagorik. Neurrian. Gizona izadiaren errege egiña dozu,

Urtzik ala nai ta. Errege zaran ezkerro izadiaren gorabeheren menpeañ morroi ez zadi egon. Eta errege ez da, lar ikaratua edo beldurtuten dana. Izadiaren errege ez da jazoten diranak artekatuten dauana. Zalpurdian zoazanean, ugelakaz ederto zuzenduten dozuz zaldiak, ara edo ona joan ez dadizan. Izadia zalpurdi bat dozu, bertan zoaz. Zaldiak nai daben tokira ez zadi joan, zeuk nai dozun lekura baiño.

Eta sentipen dozun ori ez okertu, gero! Diru ona artu eta txarra emon ez da bidezko jokia.

Senti dozuna era berean atera egizu. «Sinceridad» baten batek esango leuskizu. Sarri leenengo senti doguna barik laugarren senti doguna ateraten dogu. Txarto egiña! Leenen unean biotza ikutu deutsuna azaldu egizu.

Oraingoan, neure ustez, auxe dagigun: izadia ikustera goaz, baiña begiakaz ikasi bearrean, adimenaz ikusten dogu. Edo izadiak berak biotza ikutu baiño leenago, ikutu gaitualakoan, arin goaz biazkolara, geure buruak eta irudimenak sortu dabezanak azalduteko asmoz.

Itxi egiozu izadiari begietatik sartu dadin. Eta dakusuna aldatu barik, zor jakon itzalez edo zentzunez argitaldu egizu. Mamiñatzazko diñoguz oar oneik. Azaletzaz zerbait klasikoetan ikasi daikegu. Edertasunaren erdia azalean dago. Ezetz? Ba, urrezko marra jaurti egizu erre kara, ibaira, ta ura garden ez bada, ezer ez dozu ikusten. Gogairik txukunenak eukiko dozuz, baiña azal naastua, loa. Ez da ezer ikusten!

«Orixe»ri erantzuteko asmoz asi nintzan onetan, amaia jo bear dot. Beste zortzi aste idazten ekingo neuke gai onetzaz, baiña nekegarri litzateke. Goikoak nai izango al dau gaitxo oneik sakonkiroago ta zabalago noizbait agertzea, eusko elertian olako eztabai ta azterketeak bear diralako. Irizketeak zelan egin bear diran, klasikoak zer diran, lirikan gauzarik onena zer dan, ikaspide nortzuk jakuzan, beredin gai jatorkuz agora, baiña amaitu bear. Orixe eta ni gauza askotan toki baten gagoz, uste bardiñak daukaguz, beste batzutan ez. Bakoitzak bere agoa. Argi naiaz idatzi dodaz «Erantzunak». Sarriago

gura neukez olako eztabai batzuk, baiña bakegi-
roz, ez gudaz ta alkar irainduteko asmoz.

1932-X-14, 15, 16, 18, 19, 20

(1) Emen arinka azalduak, idaztiño baten
euren toki berezia eukiko dabe, baiña aus-
nartuago, sakonago.

Lizardi olerkaria

Idatzi zigun guztian olerkari sakon eta mamintsu agertu zitzaigun Lizardi, baiña aren bizitza olerki eder-eder baten kidekoa zan. Olerkiak egin dituanaren gogoia bezain azartugarririk ez degu. Leenengo maillan ezarri bear degu arimaren edertasuna, arima ederra ez dutenak gauza oroen lillurarik ez lezakelako azaldu, itz mee ta neurtuak bide arren.

Olertia sentitzen baiño leen, ura bizi izaten ikasi dezagun, geronek bizi izan ez degunik, ezin esan dezakegu txukunki. Ertilari trebeak baiño leenago gizon onak nai ditugu, ontasuna utsik baita elertia. Nork beraren gogoia ederrez ez badu janzten, azalekiko ikusgarriak nola egingo ote dira ziztada edo zirrara?

Geure inguruz diran izaki oro eder sortu ziran Jainkoaren laztanez, aren begiak unkitzen duena zoragarria dalako. Zeruko ats samurrak zaintzen ditu ezilkor izaki guztiak, ustelkorrak diran arren.

San Juan de la Cruz-en itzak deika ditut:

y yéndolos mirando
con sola su figura
vestidos los dejó de su hermosura.

Ludiko gauzak ederrak izaki, oek kopiatzeko arimak ere ederrak izan bear du. Loi dan ispilluak nola erakutsiko digu edertasunaren antza? Gure arima ispillua baiño ez degu, geuregan antzeztuteko gauza orok egiña. Beraz, garbi bego.

Eta neri ori atsegin Lizardigan. Aren gogoa baizan garbia. Orregatikan azaleko diran gauza guztiak, neuri osoan naaspildu edo lausotu nabe, egiñak diran bezelakoxe kopiatzen zituen. Ludi edo mundu berri bat agertu dizkigutenok, ederragoa izanen delakoan txoro baitira. Gaur eguneko ludia Jainkoaren eskutik irten zan egunekoa bezain berri degu, baiña begi tolesgeak edo dituenak ezin ikusi lezake.

Edertasuna kopiatzeko begiak bear, itsu diran olerkariak amets tartean diraden ludiak billa dabilzki ta euren aurrez aurre danari, kuku egiten diote. Ez dakit iñork oartarazi zigun, baiñon Lizardiren olerki idaztiñoak izen zoragarri

du: Biotz Begietan. Estetika berri baten laburpena. Onen mamia gozartu dezagun.

Olerkari izateko oldozlari ez degu bear, ikusle edo begiratzaille aski. Zeruan izanen gertean ez degu oldoztuko, so egin, ikuskatu baizik. Begietatik barneratuko zaigu Jainkoaren ederra, eder betea. Ulertzen ez deguna geuregana nai degunean oldozlari gaude. Errezago begiz utsik aditzea. Onetan olerkari jaio denaren ezaugarria. Eta Lizardiren begiak beti begiratzen, so egiten egoteko egiñak ziran. Umetxo baten begiakaz greziarrak joaten ziran ludia ikustera. Mendi baten eseri ta bake gozoan egon egoten ziran. Zertarako oldoztu? Begi barnean guzia geratzen eta ainbesteko edertasunak ezi edo euki eziñik bertso txukunetan irteten zizkioten kanpora. Bertso alaiak, zeru garbi pean sortuak baiziran. Areek zuten musika onena, aizearen ota, itsasoren egoneziña... Greziatarren artean ez dezu idoroko olerkari negartirik, izadiaren begiratzaille diranak, poztasunaren orloz igortziak daudelako. Neure baitan maiz-maiz ikusi det Lizardi, or Tolosa ondoko mendiño goietan. Bakarrik joanen zan idazti gabe ingitxoa aldamenen. Aralarko

gaillurretaraño lainorik ez zala. Uso zurien egalak dardaritzen zuten goi zabal ta urdiña. Txindoki, Uzturre, Orexa tontorrak ezker alde. Altzo muiño eskui alde. Eta bake bete aren magalean nonnai oiartzunak ortzi mugaraiño. Lizardik ez zuen ezertxo ere oldoztuten. Bere begiak zabalik zeuden, ordea. Gorputz aul arek nolako biozkada eta ziztada sentiduko zituen! Barne guzia samurtuko zitzaion eta ametsezko zorakeritasuna izanen zen.

Maitale bat bezain meeki, Lizardi izadiganatzen zan. Maitaleak zeri itzik egin gabe luzaroluzaro alkarri begira daude.

Begiakin mintzatzen dira eta barruko zorkartasunak bultz eragiten dienean, dardariz begiak itxiten dituzte ezpanakin itz egoteko, laztan goxo batez.

Olerkariak orrelaxe. Izadiaren maitez, txorata diran orduan, begiak itxiten dituzte ta bertso zoragarriak euren arimatik agertzen lira. Olerkariaren eta izadiaren semeak baitira bertsoak.

Lizardi gure olerkariak izadia benetan maitezuan! Arekin izketan egun baten esan nion: Adis-

kide, bide zabal orrez joan naiz eta zure gomuta izan det. Ortik ibillia zera ta zure olerkiak talde oien sunda dute. Berak niri: Alajaiñetan!

Or sortu ziran bertso guziak. Bai, bertso onak sortu diran alde guzien aztarna izan bear, beste-la buruz egiñak. Antziñako olerkari aiek bezala. Italiar asko zen artzai bizikera kantatzen zutenak, baiña axuri bat iñoiz ikusi gabe. Lelo xamar ziran aien artzai gaixoak.

Agirretar Joseba Mirena, beste zan. Onen antzeko dan olerkari bat Catalunyan dute. Maragall. Begietatik bertsoak irtetzen zizkion areri ere. «Pirinenques» eta 'Tisions» egin zituen aren neurrikoa Lizardi degu. Izadiaren gurtzale, gizon onik jaio bada, oneik onak ziran. Seme maitagarriak egitean ere olerkari bezain elertilariak.

Oroi ditut aren neurtitz oneik:

Si ei món es tan fermós, Senyor,
si es mira amb la pau vostra a dintre de
l'ull nostre,
qué mes ens podeu dá en una altra vida?

Berdin ots zigun gure onek ere:

Oi zein den ituna
bera-bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!

Bizitzaren maitale ziran eta begiakaz guzia ikuskatzen zuten. Ezin gaua maite, eriotz anaitzakoa delako! Olerkari denak bese ikusmena maite ta iguzki argia bezain itun begi urdiñak, ikaraz irakurri nuen leenengoz Agirreren, idaztarian diran bertso oek:

Biotz Begietan zatzizkidate sortu
biotzean batzuk, bestea
betsain betsaiñetan... Biotz gabe ta otsa
nork izan ere, bil olerki loretan...

Bertsolari asko ta olerkari gitxi dira egunean, izadiatzaz aztuta bizi diralako. An gure begiak asetuko ta idurimenak aurkiko ditu iduri berriak. Mendi gaiña deritzaio olerki bati. Argi esaten digu zein maite zuen zelaia:

Maite ditut gaillurak
argiak ez beste...

Mendietatik begiratzean arnas bat sentitzen du, ezilkortzen duen arnas meea. Izadia ikuskatzerara joaten zanean «Neskatx urdin jantzia» uste ezik arkitzen zuen basoan:

Zein den sakona neurtitz ura:

Sagaztiak ere
loraz jantzita,
Begi eder zalek
ase zekidate?

Aren begiak edertzaleak ziran, iñoiz asetu eziñak. «Bultzi leiotik» deritzaion ura ere orrelaxe sortua degu. Arto musker, baserri zuriak, ale gorritz abailduta sagarrak. Baiña olerkari gizenen eta umoen agertu zitzaigun Lizardi «Urte giroak» diritzaien olerkietan.

Eta zer ezarri zizkioten izenburutzat? «Urte giroak ene begietan». Olerkariaren begietan sortu ziran bulko, irupiden eta arnas ederrenak. Ba zuen gogo giarra arek, izkuntza ere bai. Doi

gurenak eman zizkion Jainkoak eta guziakin lau olerki entzutetsuenak egin zizkigun. Iñongo elertietan ote dira beste antzekorik? Keats-en udagoeienari zorrik ez

«Ondar Gorrik». Udaberria abestu ez dutenik ez da, baiñon gutxik Lizardik bezain mee ta berriki. «Baso Itzal» belaunik belaun ikasiko dute. Lizardiren biotza ta irudimena alkartuta zeuden une ortan.

II

Izadiaren aintziñean sortuak dira. Lizardi agoxuria zen eta ez zuen aaztu esakun ura: Gaiari neurria ezarri bear zaio, azalez ta mamiz. Banan-banan aztertuko bagenitu aren lan guziak, izadiarenganako zuen maitasun samurra erakutsiko nizueke, baiñon astirik ez degu ta arinka goazi.

Bake zoragarri batekin zelaira etortzen zan urari zer ematen dio izadiak?

Nire gogoan orain Italiako Leopardiren neutitz batzuk. «L'Infinito» entzutetsuan:

... Cosii traquesta
immensitás'annega, il pensier mio;
e eil naufragar m'e dolce in queste mare

Zabalkune sakonetan geure gogoak galtzen dira eta konturatzen obe generala oartzten degu. Zerbait barnean sartu zaigu ta larrosak sortzen diran bezelaxe kolkotik irtetzen zaizkigu bertsoak. Leopardiren begiak betiraunera so egiten zutenean sentitzen zutena, Lizardik ere sentitzen zuen. Nire gomutan orain:

Oi zein aize eder, loa
eriotz anaitzakoa
bizitzako urloa.

Eta ama kutun batek bezain ongi arima bete zion izadiak. Orrela ikasi zuen grezitarrak «sophosynes» eta geronek «gokentza» deitzen deguna. Lizardiren gogotik irtetzen ziran olerkiak azalez eta mamiz berdindurikan itzakin egiten zituen esataikiak ederrak ziran, baiñon gogaiak ederragoak. Irudimenak larregirik ez, biotzondoa ere neurrian.

Agirreren idazlanak legorrak iduri leenengoz, izadia antzo, baiña begiak zabaldu eta adimenak jardun ezkeron, muin samurra, azal zoragarria ta edertasun bikaiñak arkitzen dira. Ondo pagatu zion izadiak bereganako maitasun ura.

Ametsezko mundu baten ez zan bizi, egizko munduan baizik. Orregaitik aren olerki irakurtzerakoan ludia zer den ulertzen degu ta bereala leioak zabaltzen ditugu. Zelairunz begira irakurtzeko egiñak dira, aize ozkirria senti degula ta zugaitzen osto otsa entzun.

Estetikarik euki bazuen txindor urak, ez dakit, baiña aren estetika auxe izanen zala uste det. Edertasun iristeko arima ederra euki bear degula, bakez geurekin eta bakez urkoekin bizi eta oldozlari bage, begiratzaille izan. Begietatik sartzen zaiguna bezain liraiñik ez baita.

Edertasun ori barneratzen zaigunean, ordea, oiartzuna bezelaxe entzun bear degu arimaren dardara.

Azalekiko gauzai gure barneko aztarna eman diegun, elertilari dena izaki guzien barne barnean tinkatzen delako, gero erditze zoragarria eukitzeko jasaz. Olerkari denak ludiko ezeren

irudia edo sinboloa igarri bear du. Irudiak lotan daude, bizitza gabe, nork unkituko dien irri egiteko. Lan au agoxuriz eta sakonez egin zuen Itzal jaukalaren irudi meea. Oraindiño beste iñork berdiñik ez digu azaldu aren neurrian.

Betiko il ziran mitologi irudiak eta berriak bear ditugu. Lan au dagokie ertilariak. Iturrietan eta latxiñetan ere irudi zoragarriak ikusten omen ziran, neskatak dantzan soiñeko gabe eta jaungoiko emeak argiz jantzita, baiñon gaur alako irudiak barregarriak dira. Zer egingo? Or degu Itzal, or ditugu «suzko itxasoa», «adizkide txindor» «kilker ere olerkari». Gerbault bakartia ere ikusi du olerkariak, «urre zauri», «burni-meatz irudi» eta abar. Irudi guziok ama izadiak eman zizkion eta olerkari guren bati dagozkion eran, laburkiro, erdiz esanikan utzi zizkigun.

Irudimen sendoa dutenak, gauzak ulertarazteko toki baten ezarri bear. Dante irudi billa ez zan urrunera joaten, bere liburua irakurriko zutenak ezagutzen zituzten tokietatik irudiak artzen zituelako. Or alboko mendi ori impernuko arek dirudi, edo Erromako zubi ura. Erritarren buruan diran gauzai irudi bat eskeintzen zien.

Ormuzko perlak edo Chinako lorak ez ditut ezagutzen, leen bezain illun nago. Gizonaren sudurrak Txindoki irudi esan badidazute, ederki ulertuko, edo pago baten antzeko zen. Pago asko ikusi baititut ene bizian.

Baiña alako oarrak olerkari ta elertilari gure-nai dagokiez. Lizardi bat zen. Onez ganera ere, irudiak atsegingarri izanen badira, laburkiro azalduak bediz. Mallarmek esan zigun «como» edo «antzeko» itza ludiko iztegietatik baztertu bear zala. «Bezelako» asko erabiltzen dituztenak, olerkari txarrak. Lizardigan ez ditugu «bezelako» asko aurkituko:

dantzari talde Bacotiarrek
naspil-zoroan zati-baldarrak
esku-goituan ontzia ardo...

Klasiko seme zan gauz oneitan, nik klasiko asko ikasia ba zen ez dakit baiñon. Aren arima grezitar edo erromatar baten arnasa bizi. Lirikan tankera bi dira; bata eresizkoa, bestea landuzkoa. Lizardik landuzkoa edo eskulturala atzeman zuen. Horatiusen jarraille, uste ezik, bearbada.

Jauregi edo Tapia-Perurena ditugu *musicales* edo Heinetarrak.

Horatiusen jarraile diranak, ordea, illun samar idazten omen dute. Nireketz ez. Bulkoa itz gutxitan azaldu nai digute, azal laburrez. Muiña gozartzeko maskorra apurtu bear.

Iñork esan du Lizardi ere illun ta ulerkaitza zala. Nik ez. Prisaz idazten zuenetan, aren kidekorik ez argi idazten. Baiñon idazle askok darabilen gogaiak aren buruan ez ziran. Gaurdaiño olerkari geienak txoriak, zugatzak, basetxeak eta olako gauzak erabilli dizkigute. Ulerkaitza ez degu Agirre, bulko oiezen jaube baizik. Euskera- ren muiña ezagututen zuen, iñork bai eta arek. Orixeren itzak ene buruan: Gurean oiñarte ez du izan kiderik, nekez duke garaitzaillerik. Izkuntza erraz, ugari ta laister erabiltzen ba zekien, bulko- ak ziran ordea, iñoiz euskeraz jantzezak.

Irizle batek esan omen du Lizardi kaltegarri izanen dala geure elertian. Ori txorakeri bat baizik ez degu. Euskerazko olerkiak gaitz bat edo akats bat dute: erreztasunaren kaltea. Milla itz bulko bat azaltzeko. Gero konsonateak egiteko erreztasuna delako, bertso bat eta bertso bi,

mamin gabeko olerki. Lizardiren bertso batzuk ulerkaitzak baitira. Bizi balitz orraztuko zitun, baiñan ulerkaitz orren aztarranak beste olerkari askoren idazlanetan ikusten ditut. Aren bitartekotasun andiak susmatzen ditugu.

Errezegi diranak, neurrira itzuliko dira. Lizardik ahapal bakanak egin nai zituen eta izkuntza ere landu bear. Landuten zuen bitartean, bertso batzuk ulerkaitzak. Baiñan izkuntza ez jakiñak ez zion ori eman. Larregia nai zuen, egun batez egin nai aundiak egingo dutena. Euskal literaturan bitartekotasun andia izanen du geure olerkari maiteak. Izkuntza landuten erakutsiko die askori. Gure ele au ezagututen ez degunok, illuna dala esanen dogu, baiñan geugan errua degu, ez bestegan. Baiña ere eriostrar irakurtzen ditugulako.

1933-IV-1, 4

Catalunyako Jocs Florals

Catalunyako udabarria baizen ederrik ez dago. Maragallen bertso baten antza dauke itxas ertzetako lerrak. Olerkari batek ezin aurkitu daike toki bereziagorik. «Mare Nostrum» deritxo-en itxasoko aize samurak «Ametller», naranjo ondoetan. Ibilli dabiltz, guztia egituz ta laztanduz.

Barcelonako kai musturrean gengoan Maiatz edo Orrillaren leenengo egunari begira. Milla olerkarik katalanderaz kantau deutsoen orrilla zelakoa zan jakin gura neban. Zidarrezko lits baten antza euken ozertzak. Zeru urdiñaren egalpean argi-argi agertzen ziran barku nagusien ageak. Lorail zoragarria! Gauza asko ikusteko gintzan. Egunari berea emongo deutsogu bai? eta gaur Jocs Florals edo olerkari txapelketeari darogoiogun.

Noiz asi ziran katalandarrak jai orreikaz? Maiatzaren leenengo igandez egin ziran 77garren txapelketea osotu edo betetzen eben. Ba dira urteak! Irurogeta amazapi urte oneitan

Jocs Floralsak egin daroez eta olerkari onenai aintzazko bideak zabalduten deutsez.

Palau de la Musica Catalanara joan gintzan. Toki eder bat jentez beterik ikusi badogu, axe bai bete egoala. Goi aldean lora txorta andiak agertzen ziran eta lora artean Olerkarien Erregi-ña izango zanarentzako jarlekua.

Laurak edo ziran leendakaria eta etorri ziran. Generalitat eta Udaletxeko gabizaiñak edo mazerak arro be arro jantzita sartu ziran. Urrun etorzan Barcelonako endorea dan Pic i Pon; Huguet, Sedi, Duran i Bentosa, Pi i Sunyer; gotzaiñaren orde Cardo jauna: Academia de Bones Lletres, Ciencies i Arts, Tribunal de Caasció, Collegi d'Advocats, Circo i Artistic de Sant Lluç eta beste eun bazkunen orde ta izenaz etorri ziranak poztu ginduezan. Poztu, bai orixe! baiña zelako samintasuna barruratu jakun: Euzkadin ez daikegu olakorik egin. Geure Olerkari Egunetan ez doguz ikusten aldundiak, udalak, jakintza bazkunetakoak eta abar. Aldekuntza andiak dagoz Catalunya eta Euzkadiren artean.

Pic i Pon jaunak asierea emon eutsen olerki jaiari. Gero Puig i Cadafalc jaunak itzaldi jakin eta

gorengo egin eban. Morales andereak, idazkaria zan eta, urteko agiri edo memori osoa irakurri eban.

Bereala olerkiai buruz jarri ziran. Itxita egozan idaztazalak zabaldu ebezan eta leenengo saria Perarnaurentzat izan zan. Txalo otsa, ta zorionak! Bost edo sei jaunen artean antzokitik urten, gero Olerkari Erregiñeaz batera goiburura igon bear zan eta. Perarnau arentzat bere emaztea erregiñatzat autu eben.

Eta saria irabazi eban olerkia oguzi euskun «Mimosa, flor de febrer» deritxo. Zer esango geunke? Catalunyako olerkari onenik ez ei da Olerki Egun orretara aurkeztuten. Carner, López Pico, Riba, Teizidor, Sánchez Juan, Riber eta beste kapitan guztiak ez dagoz Jocs Florals batzutarako. Onetzaz ez gadizan aztu. Euzkadin egiten diran Olerki Egunetan ez eutsen saririk emongo Perarnauren olerkiari. Gauza txarra benetan!

Amazazpi urte edo daukozan gazteño batek egingo leukez alako bertsoak, baiña gizona dan gizonak ez dau antzekorik egingo. Perarnau orren olerki liburu bat emon euskuen. Onak?

Txarrak? Catalunyan gaur nagusi diran olerkariak eta Euzkadikoak antzik dauken edo aztertu-ko dogu. Emeko batzuk ez dauke angoen jauntzarik ezagutu bear. Areik baizen on ta gurenak baitira.

Olerkari txapelketa aretan beste sari batzuk be banandu ziran. Grauges, Pere Berdaguer, Camil Geis, Colom i Perra eta Jaume Vilarentzat izan ziran. Sari oneik urterokoak dira, baiña noiz bein emoten diranak beste batzuentzat izan ziran. «Premi Dolors Monserda», Anton Navarrorentzat izan zan; «Premi Consepicio Rabell», toki aretan egon ezan olerkari onenarentzat beste guztiak baiño geiago balio daualako, Maria Manent emakumeak.

Azkenean, Montpeller aldetik etorri zan Joan Amade jaunak itzalditxo bat biribildu eban. Lora-kaz zer egin eben? Perarnau olerkariak lora txorta erdia Miren Neskutzari bialdu eutsan; beste erdia Maciaren illobi ganerako izan zan.

Palau eder aretan nengoan aldi osoan, an barik beste toki baten burua neukan. Geure aberriko mendi magaletan! Euzkadin egiten diran Olerki Egun gaixoetaz oldoztuten nengoan. Cata-

lunyan baizen olerkari onak daukoguz; an beste ederzaletasuna be geure artean ba dago. Zergaitik oster, ain jente gitxi batuten gara? Europa osoan ezagunak dira Catalunyako Jocs Florals orreik eta ango olerkaririk onenak Italieraz, Prantzeraz, Doitxeraz eta agertu dira. Olerkariakaitik ez balitz be, aberriagaitik egin bear geunkez olerki jai ospetsuak.

1935-V-12

«Arrats bera»ri buruz

Gure olerkari ospetsu Jauregik idatzi dauan lantxo onek goratzen gauz. Lar! El Día-n leenengo orrialdean argitara dabe eta eskerrak egin bearrean nago. Batez be batzuren aginkaden orde ezti gozoa emoten deuskulako Jauregi olerkari aipatuak. Iñork ez bestean ulertu dau neure asmoa. «Arrats beran» idaztiz uste bat neukon. Gaurko egunez Europako letretan lantzen dabezan olerki motak geure ele onetan be biribildu.

Norbaitek esango dau: nimiñokeriak dozuz! Sakon antza daukan lelokeriak egitea ez da gauza gaitza. Zeruko odeiak edo itxasoaren orruak gaitzat artuz, bereala egingo geunkez eun ahapaldidun olerkiak. Ezerez antza daukan gaia apainki erabiltzea dozu gaitzena. Onetzaz zerbait idatzi bear izango dogu, bestela iskanbila sortuko jaku. Jauregi jaunak bere zuertasuna erakutsi dau, ondo baiño obeto ulertu baitau neure asmoa. Zubimenditzaz diñozanak be

poztu gauz, poematxoa ba ederki egiña da.
Eskerrak egiten deutzoguz idazleari.

1935-IX-3

3. PENTSAKERAZ

Illobian datza

Illobian datza Kristoren gorpua ta bitartean joranez dabiltz judatarrak, arek agindu eban berpizkundera egitu ez daiten. Orra zer dagigun sarritan, gure biotzetan berpiztu ez daiten Kristoren irudia. Bere baitan dauko Josuk berpiztuteko aala, Jaungoikoarengan bat dalako, baiña gizonak ez dabe gura piztu daiten. Egia gorroto-garri jake. Baiña arerio guztiak arren, Kristo urtengo da illobitik antzezko jantziakaz.

Zelan jazoten danentz zador ori? Kristoren berpizkundera baiña gatxagoa da gogoetan jazotzen dana. Obenak il daben biotzean zador gurena jazotzen da. Zelan? Gizonaren izatea jagoko leian, bizitzara jotea. Auldurik dagozan biotzak, samiñak minberatu dabezan barneak, bizitzaren zadorra idoro gura dabe. Eta bizitza soillik aurkitu daikegu obian datzan Kristorekin bat egitean. Illari gagoz, bizi gaitez. Benetan zadorra! Eriotzaren otsa, ikara entzun ordukoxe ezilkortasunaren leiak, gurariak sortuten jakuz barnean. Bizi nai dogu ta gure baitan ez doguna nabaritu-

ten, Kristogan betetuten dogu. Onela iñoan Goethe olerkariak:

Was mein armes Herz hir banget
Was es zittert was verlanget
Weis nur du, nur du allein.

«Nire biotzak gura dauana, bere izaren zergaitia eta ikara gaia dana iñork ez daki, Zeuk baiño». Kristok bakarrik daki gure biotzak zeri iges egiten deutsoen, eta zerk lotu daroazan. Aultasunak bertanbera atzematen deutso indarrari. Eriotzaren aintziñean nabariteten dogu ezer ez garala ta orduan eriotza oinpetu ebana-ren aurrera joten dogu. Kristoren obian, Kritoren eriotzan daurkigu betirauna. Eriotza amaia da, azkena ta ezin egon geure bizitza naiok orreri. Orregaitik Kristo berpiztu dala nabaritutean poz-tuten jaku barnea, geu bere bardin berpiztuko garala ulertuten dogulako. Ezin emon izango deutsogu gogoari itxaropen gorenagorik. Kristo berpiztu bazan, gu ere bardin; baiña a obian badatza, guzurrezkoa geure sinismena. Ez dago eztabaidarik. Barnean daukoguzan ezilkortasun

nai oner ezer ez dira, Kristo obitik jaiki ez bazan.
Biotzak zelan jasan dagike illun ori? Kristautasunak
obi orretan dauko bere sustrairik gaillurrena.

1931-IV-3

Batasunaren esi

Batasunaren esi edo esparruan ñabartasuna atsegingarri. Mota askotako lorak ez dira lorategiaren iguingarri, kaltegarri, edertasunaren eutsigarri baiño. Munduko gauza danetan begiak asetuten jakuz, lauak barik arrotuak diralako.

Arako margoa ez ete dogu ikusi? Zurezko esi batean loturik dago, baiña zein ederra dan, begien pozgarri, margo bat ezeze beredin daukozalako. Orra gauza eder orotako agorik daukonak, zergaitik ñabartasuna nai dauan, batasunaren altzoan. Mukurrak ez dira ikusgarri, abartxo bategaz dagozan aroan, alde guztietara adarrak zabaltzen dabezan orduan baiño.

Nabartasun oneri gagozan. Erderaz «variedad» esango zeunke ñabartasuna. Euzkotarrak arin zirkin dagigun, batasun alde mintzatuten bagara. Erki bakoitza zutunik dago, batasun itza entzun ordukoxe. Arraiñak alkar jaten dabela jakingo dozuena? Orrexeren bildurra dago gure artean be. Nagusiak jango dauala txikerra. Baiña oinkadak ondo emon dagiguzan. Nor da nagusi

eta nor txiker euzkotarren artean? Legerik badauzagu, erri guztiak eskubide bardiñak euki dabezala jakingo dogu.

Fueru jaube gintzazan egunetan batasunean gengoan, baiña zelako ñabartasuna gure artean. Bizkaiak bere izakerea dauko eta ez da beste eusko erkiakin lausotuten. Arabari nork idoroko leuskio Gipuzkoaren antza? Naparroak oster, bere edestiaren ikurra agirian daroa.

Baiña batasun orren alde barik aurka dagoz, zer diñoen ez dakie. Naparrak Bilboren bilbur dirala diño, giputzak oster, Naparroak jan bear dauzala. Nork jakingo egia aurkeztuten? Euzko erriaren edestia ez dazau ondo ori diño. Geurekoiak gara, larregian izan be, iñoren goseak jan gadizan. Batasun orren aurka itz dagienak, ez dabe ikusten ñabartasuna geure artean beti loratsu izan dala. Baiña batasunak ez ete leukez ekarriko onura ederragoak, beti elkarren aurka ibilteak baiño?

Kalte txikerrai adi dagoz euzkotar asko, onurari oster, atzea emoten deutse. Gauza bat aztertu gura dogunean, alde orotara aditu bear deu-

tsogu. Euzko erriaren kalterik andienak batuta, alkartuta egon ez egitearren izan dira.

Abendaz baturikoak garan ezkerok, laterri bakarra eratu bear geunke Onen aurka dagoz euskal idazle beredin. Tamalgarri jake euren nagusitasuna beste batzuk kenduko eta deutesen. Itsuen errian nagusi izango dirala ba dakie, baiña guztiak zuurrak diran urian baztertuak izango litzakezala ere bai.

Zelango onurak zurgu arazoetan, izkuntzan, edestian eta beste gauza orotan lortuko geunkez alkartasun orretan, Batasunaren esian ñabartasuna, asieran niñotan eta gauza ederragorik ezin ikus daikegu euzkoen artean. Bakoitzari dagozan ederrak, begoz, oiperatu bearrik ez dagolako. Baiña abendaren altzoan anaiak legetxe agertu gadizan. Noiz lora batek besteari kalte dagio, eguzkiaren argirik bientzak ez daukalakoan? Guztientzako zerutik jausten da eguzk aitaren mosua. Abendaren indarra bere bardintxe.

Euzkadi, 1931-V-17

Olak ikusten

Olak (fábrica) ikusten izan eta itun urten naz. Ketan egozan tximiñiak. Eta orruka, txakur bailiran, langilleak ikusi dodaz. Itz onik ez dot euren agoetan entzun. Biraoak eurrez sortzen izan jakez ostera. Begi maltzurrez betestu nabe, euren lorrak nerau bidetzaz baleukean.

Burniak saldatan laprast joiazan eta labako sugarrak gorrituten izan dauz alde guztiak. Inpernuan antzo, bakerik ez dauko langilleak. Lanari egozan, baiña barnean griña txarrak erne. Nork dongetu ete dau langille gaixoaren gogoaa? Munduko arazoetan ez dauko zorionik, bestekoetan ez dauko itxaropenik. Izerdiz lurrean irabazten dauanak ez deutso zeruko aterik zabalduko, eroapen bage, Jaungoiko bage lan dagialako.

Ketan tximiñia guztiak dagoz eta zerua estalduten deutse oneik. Leenago Euzkadiko aranetatik argi ikusten zan ortze garbia, orain keak dana illundu daroa ta langilleak ezin ikusi dabe zerurik. Oletako burni otsak ostenduten deutse kanpaiaren otsa, otoi egiteko orduan. Ez zerutik eta

ez ototirik, dana galdu dau txindi apur baten ordez.

Euzko langille gaixoa, arrotzakin batuta ibilli zara eta orain euskotarra barik kanpoko dirudizu. Ez da errua zeurea bakarrik izan, zeugana iñork ez dau eldu gura izan bata. Lanari beti egon zara, ta zeure gogo orren ardurarik iñork ez dau euki. Jaramonik ez deutsee egin anaiak, bitartean otsoak inguruan ibilli jatzuz.

Eta zer aurreratu dozu? Ezer ez. Bakean bizi bazintzan, gitxiak naikituten zenduzala, orain asko zaletuten dozu, iñoiz lortuko ez dozuna nai zenduke, ta orrexek minduko zaitu. Etxe garbia zeukon leen, gaur oster, gortea_dirudi zeure bizitokiak. Semeak azteko ez dakizu zer egin, ke artean, txaide artean, murrin eta erkin azten diralako.

Zelaiko gentza, bizitza baketsua oba danik ez dozu uste. Ganera arrotzai lotuta zagoz, areik esaten dabena egin bear dozu. Zuk ez zenduan biraorik jaurtiten. Jaungoikoaren itzalak jagoten zinduzan eta gaur oster, itz onik ez dakizu. Munduko gauzetan gitxi irabazi dozu, arrotzak zeuri ezer emon baiño gurago dabelako eureta-

rrai lagundu. Burutik zagoz iñoren bazkide egiten bazara. Oletan indartsuenak irabaziko dau aal dauana ta zu bakarrik zagoz geienetan, bazkide zaran arren arrotzakin.

Zeure anaiakana jo egizu. Lan gitxi dagoala diñoe, baiña kanpokoentzako badago, zergaitik zeuk urten bear dozu? Besteak sozialistak diralako? Bazkun batean indartu zaite, baiña bazkun ori bedi zeurea, ez iñorena. Zeu nagusi izango zarana, ez iñor.

Olak ikusten izan eta itun urten naz. Ez dago eroapenik, ez dago bakerik. Lanik egin gabe irabazi gura leuke orok, biotzean lera txarrak sortu jakez. Ez Jaungoikorik, ez munduko itxaropenik. Ez da arritzekoa komunistak bazkide asko batzen badabez. Inork ez dagi gure artean langillean aldeko lanik. Itz onakin ez dogu ezer egingo. Arazo gurenak sortzen dira gizarteko artue-monetan, onei bideak egin eta idoro bear deutesguez. Barrero langilleak ikusi dagiala keak zear zeru urdiña, oletako burni otsak arren, entzun dagiala kanpaiaren gedarra. Gizarteko eziñak ez dira arteztuko, gizonen biotzak baretuteko ez badira, justiziz arazoak ebagiten ez badi-

ra. Orra oletan ikasi dodana. Ara sarriro goazen,
gure anaiak dagoz laguntza eske ta.

Euzkadi. 1931-V-22

Loren goralpena

Loren goralpena egin gura neuke. Txorta bat ikusi dot txaide ertzean eta odol tanta antzo, gorriak ziran. Lorak atsegiñen lorondoan dira, goizeko intzez bustita. Eguzkiak legortu daroaz, eta usain barik nazkagarri jatzuz.

Baiña udabarri onetan euria bide dala edo, lora gitxi dakusgu. Iñoiz baiño bearren doguz, ostera. Gurenda orduak datozen aldian lorak edozetarako dira. Lorazko burestunak egiten diñardue neskatxak. Bular ganean edergarri jatzuz, jairik jai doazan aroan.

Udabarriko jaiak lora barik ezin ulertu dodaz. Neskatxak eta liliak alaituten dabe zelaiko inguru. Lorondo orotatik sortu ordukoxe ebagiten dabez, eta tolesbako umiak legexe barreka dagoz. Erromeri guztietan alaitasuna zabaltzen dabe, usain goxoa isuri. Orra zergaitik lorak maitegarri jatazan. Eta mindu nabe txaide ertzean ikustean. Zergaitik? Oldozpen itunak sortu jataz eurak ikustean. Or dozuz geure Euzkadiko lora asko txaide ertzean. Jairik jai, baserririk baserri

dabiltzaz besteak, baiña eurak maiteago dabe txaide ertzetako basatza. Lizunak jotzen dauz ortxe eta abendaren lorarik ederrenak zimelduten dira.

Neskame antzean datoz urietara, lorondotik ebagiten dan lilia legez. Eta tamalez siketuten dira, legortuten dira. Euzkotar usainik ez dauke, ez margorik. Erdaldunen artean bizi dira ta lotsatuten dira euskeraz itz egiten.

Eta ez gagoz euskeraz itz egin ez egiteari bakarrik, oiturak galdu, gurasoen ikasiak baztertuten dabez. Urian eurak zainduteko, non edo non batzeko balego iñor, baiña jaramonik ez jake egiten. Galdu ostean, ots egitea naikotzat daukogu. Euzkoak erru andiak daukoguz, urira datozan neskameai laguntzarik opalduten ez deutsegulako. Non dagoz abertzale diran emakumeak? Barriketan ibilli barik, bateko batzokietan sartuta, besteko dantzak ikasten, oba alkartasun eder bat egingo balebe baserrietatik datozan neska-meakin.

Noren etxera datozan jakin dagien euren gurasoak, abertzaleak lerroetan euki bearko leukeez urietako geienen izenak, zelakoak diran,

nongoak eta uzhurtza zaleak diran edo ez. Orre-
la uri txikietan abertzaleak jakingo leukee noren-
gana jo, euren alabak urira bialdu baiño leen.
Lorak ikustean ori bururatu jat. Zer ikusirik ete
daukon iñork itaunduko dau. Ez dakit.

Baiña euzko emakumearen ardurea batzuk
artu bear dabela uste dot. Lorondotik at egozan
loratxo aiek, legortuta ikusi nebazan. Lorak
ebagi ostean ontzi baten sartzen dabez ur pitin
bategaz. Orra zelako ardurea eukiten daben.
Olakorik egingo ete dogu ba, baserrietako nes-
kakin? Sarritan nora jo ez dakiela, zer egin ez
dakiela aurkituten dira euzkotar neskatillak eta
leenen eltzen jakenakaz doaz, batek ba daki
nora. Baiña neskame orreik balekie euren batza-
rra dagoala, abertzaleak arduraz begiratuko
deutseela, laster elduko litzakez araxe. An eus-
keraz igandeetan mintzatuko litzakez, pozik
baserriko gauzetaz jardungo leukee. Au irakur-
ten dauan emakume batek ez dau ardurarik
artuko onetzaz? Baietz uste dogu. Udabarriko
lora ederrak galtzen ez daiguzan itzi. Jairik jai,
bular ganean daroez lorak, geure abertzale diran
emakumeak eta urian itziten dabez lorarik bikai-

ñenak. Orra or zer eskatuten deuskuen euzko emakumeak.

Euzkadi, 1931-V-23

Bertsolariak

Bertsolariak euren barruko sua agertzen dabenean, erria bizkor daroe. Igandean Elorrion ikusi genduan zelako indarra daukoen bertsolariok abertzaletasuna ereiteko, Euzkadiren maitasunean jentea piztuteko. Bertsolariak ez daukoe uriko ederkariak daukozan zidorrak. Jentearen aurrean soinutsik paraten dira, gogo utsik. Eta eusko gogoan indarrik asko dago, edertasunik lar, entzuleai zirkin eragitako.

Bertsolariak iñork baiño sakonagotik ezagutzen dau erria, erriko semea dalako. Bere ganetik igaro zibilizaziñoak dakarren bigunkeri labana. Orain alditxo, Enbeitatar Kepa ospatsua zelaietan agertzen zanean, zeruko igarle bat baletorran paratzen ziran guztiak. Bertsolari orren agotik aberriaren suak urteten eban. Eder-to osaturik agertzen eban biotza ta olerkarien biotza baiño ederragorik ez dago, oro dira maitasuna.

Bertsolarien agotik neurtizetan kanpora etorzan aberriaren miñak, abendaren ezilkorta-

sun naiak, erriaren askatasun zaleak. Bakoitzak barruan eukozan leiak, oldozmenak, edertoago agertzen ziran bertsolarien agotik.

Gaur bere bertsolari onak daukaguz. Bizkai-koari bakarrik dagoala, ona Uriarte, Enbeita gaztea, Zidorra, «Erlea», eta abar. Baiña bertsolari guztiokaz bazkun bat egin bear geunkela uste dot, gure laguntasunaz barriak sortu daitezana. Uste dogu bertsolariak ezer ez dirala eta ardura andirik ez daukogu eurretaz. Gazte asko dagoz orretarako jaioak diranak, baiña baserriko bakar-tasunean ezin dira umotu. Eurekana eldu gaitetzana eta bertsolari ona izateko bidea erakutsi. Lantzean beiñean sariketen bitartez poztu euren biotzak. Zelako gaiak jo bear dabezan erriaren txaloak lortzeko, azaldu!

Euzkotarrakitsuak izan dira bertsoak entzuteko. Erromeri batera jo egizu, an ikusiko dozulako zelako pozagaz dagozan bertsolariai entzuten. Ez da izaten iñork ez dakien gauzarik diñoalako, danen nabaritasunak suaz agertzen dauzalako baiño. Olerkari diran batzuk egin bear leukeez bertso saillak, gero abots ona daukoen batzuk jaietan oguzi dagiezan. Oba da bertsola-

riak berak egitea, baiña larregerik ez dagoan ezkerro, onexetara lagunduko deusagu aberriari. Gauza erreza ez da bertsolaria izatea. Abotsa bear dozu, gauzak arin ikusteko gogo bizia, irudipen zolia.

Egia baita olerkaria, bertsolaria ez dala egiten, eratuten, jaiotzerik olerkari dalako. Baiña jakintza bidez, bestearen onu bitartez, ikasi leike askorik.

Tamalez ez dago bertso zaarrakaz idazti bat. Idazti orretan ikasiko leukee zer eratara antziñakoak joten eben. Eredu, ikasbide izan daitezcan bertso zaarrak, lenbailen liburu bat egin bear dogu. Pozik jasoko doguz bialdu gura deuskuezan bertsoak. Antziñatik entzun dogu batek ba diñarduela bertsoak batzen, baiña ez dira agertzen. Aldia oster aurrera doa. Premiña dogu arintxo egiteko.

Bertsolariak atsegin jakuz guztioi, baiña euren alde ez dogu ezer egiten. Geienak sendi apaletakoak dira, ta eurak liburuak erosi edo beste jakingarri izango leikiozan gauzak eskurtzea, ez dabe errez. Laguntza ba, opaldu bear jake. Bizkai aldean zenbat bertsolari dagozan,

nortzuk diran eta noragiñokoak jakin gurean dabiltz batzuk. Arteztu daigun gurari ori. Urre-
txindor kumak bear dira, aberria alaitu eta biz-
kortuteko.

Euzkadi, 1931-V-26

Itsas bazterretik

Itsas bazterretik nator. Zerua urdin egoan eta urruneko printzetan, oial zuriak bailiran, ontziak ikusten ziran. Nabari egoan zabala, urduri, barruko kezka bat agertu gurean. Aberriaren itsasoa itsaso gogorra da, ez emakumea. Arro dabiltz olatuak.

Baudelaire jaunaren olerkia agora eldu jat itsaso onen aintzinean:

Itsaso billa beti gizon aske ori;
eure antzikurretzat daukok urdin ori.
Azal neurrige ortan ba dakusk gogua;
bera baizen garratza giriñen barrua.

Baiña ez da or amaitu neure oldozketa. Itsaso orretan amaikatxo edesti zaar, asaba edesti dagoz. Euzkoen obia izan da zabal au. Or joaten ziran itsaso zear geure arrantzaleak, eta kanpo-ko guztiai bildurra sartzen eutsoen. Gudari amorratuak izan dira euzkoak eta Kantauri itsaso au.

Biok zare ixilko eta lainotsuak:
Gixon ori, nork dazauz eure ezkutua?
Itsaso, ez dazauguz eure ondasunak.
Josita darozuez, ixillik barruak...

Aspaldiz alan da be, zarien etsaiak!
Negar eta etsi baga, igaroz eundiak,
samin eta eriotza zeuen atsegiñak:
Burrukari betikor, anai maite eziñak.

Orra zer diran euzkoak eta itsasoa. Burrukari amorratuak, beti lortu ezin dabena jadetsi gurean. Arraunlari bulartsuak bere gain ibilli izan dira. Eguzki galdatan, sutsu ta bizkor euzkotarrak jarraitu dabe bide urdin zear.

Euzkadiren seaska dirudi itsaso onek. Mendiak eta itsasoak alkarren antza dagerte emen. Mendiak arri biurtu diran uiñak dira. Eta itsaso onen antzo dira euzko gogoak bere. Artega dagoz azaletik barneko zadorra gorde eziñik. Ekaitzak daukoz lantzean beiñean eta orduan ondatu daroa guztia.

Jopurik jasan ezin daben itsaso eta abenda. Gogo indartsuentzako egiñak dira, ez koldarren-

tzako. Iñoiz ikusi bako lurraldeak billa joiazan bertotik eta baleak ezeze Inglaterrako buru ulegorriak atzemoten ebezan. Gaur osterarraunlari txatxarrak gara, iñor dogu itsaso onen jaube.

Ikasi daigun jasan eziña bere olatuetan. Oneik ez dira iñoren morroi. Eta bitsa jasoten dabe goraino, askatasun ikurriña balitzan. Euzko gogoia, zer ikasi daukozu zeure itsaso orretan.

Itsaso urdiñetik nator. Guztia bakean egoan. Udaren laztana laprast joian zabalunean. Baiña barnean zelako gudaketa eratuten egoan. Orra euzkoabendaren altzoan egunotan gertauten dana.

Agur, Kantauri itsasoa, laster zeure jaube izango gara. Bitartean jasan zeure altzora datozen oron gorputzak, gogoak garbituteko gai bazaralako.

1931-VI-5

Komunisten bildurra

Komunisten bildurra barreiatu da egunotan. Bizkai inguruan askorik ez dagoala dirudi, baiña guztia murgilduteko gitxiak naiko izaten dira. Baiña zer gura ete dabe komunistak? Bidezkoa ete da eurak eskatuten dabena?

Ezin ukatu geinke euren eskakizunetan arrazoia ba dala, osoan ez bada, erdizka bai beintzat. Iru edo lau gizonen eskuetan ogasun orok izatea ez da egokia. Gaiñera langilleari bear dan eran ordaindu bear jako bere lana. Kristau benetakok antziñatik esana da langilleari ez jakola otseiñari legez begiratu bear, anaiari legetxe baiño.

Ez dira esku batzuetara dirudunak joan gura dana egiteko, ez txiroai lagunduteko. Ori alde batera itxiten dabe askok eta aaztu jake Jaungoikoaren legeak aginduten dabena.

Baiña gaurko egunean langilleen artean bere oker askotxo ikusten dira. Lanik egin barik jan gura dabe. Uste dabe zor jakela gura dabena. Komunistak ez dabe uste bere jaubeak euki bear

dabela, lan egiten dabenak lan orren emaitzak gozartuteko eskubidea daukela.

Ez dira arazo oneik erabagiten tiroka edo gorrotoa ereinik. Justizi bideak ez dira arteztuten zaratakaz. Joarlearen eskuetan guztia edatu bear bada, nork egingo dau lan? nork ausartuko dau bere dirua arazo gorenetan? Langilleak irabazten diranetan alde euki bear dabela entzuten da. Ez da bide txarrena. Gaur oster, iñoren tzako bere eztago irabazte andirik.

Lan bakoak uste dabe gura aiña eskatu daikeela, baiño ez dago olakorik. Zioa sakonean dago. Langille oro artean ikusten dana alperkeria da. Iñork ez dau lanik egin nai. Dotore jantzirik ibilli ezker, pozik dagoz. Eskuak oster, iñork ez dauz loitu gura.

Ementxe ikusten doguz langille askoren artean olako gauzak. Zoaz batzukana lana aginduten. Zortzitik batek ez deutsue erantzungo lana egin nai dabena. Geienak alperkerian ibilli nai dabe. Eta ez sozialistak, ez komunistak ezin aztertuko dabez gauza oneik, auzi oneik doazen bidetik. Langillearen biotzetan sartu bear da bere egiñen erantzupena. Kristautasuna baleu-

kee, jakingo leukee zertarako dan lana eta zelan itzalez ikusi bear dan iñorena. Baiña gorroto gorria bakarrik barneak badaroi, zelan jasan bakean munduko gauzen egikera?

Gaitza ezer ez dala uste dabenak, bide oke-
rretik doaz. Gaitza sakonean dago, kristautasuna galdu dalako. Sekulan ez dira aztertuko, siñismenak biotzak jotzen ez badauz. Urteatan dabiltz langilleak Kristoren irudia barnetik kendu nairik eta Kristoren ordeaz ikusi eziñarena, gorroatoarena sortuten jake.

Zerk urtengo dau ortik? Lan egiteko ordua da. Ez kristau gauzak bakarrik erakutsirik, Kristok zelan munduko arazoak erabagiten ebazan bere azaldurik baiño. Gaur katolikuen izparringi baten ikusi dogu zelango aldaketak eskatuten dauzan kristautasunak ogasunetan. Bere ustez, komunistak eskatuten dabena baiño andiagoak dira Kristoren irakasbideak eskatuten dabenez guztia. Baiña izparringi orrek ederto goratuten izan dauz aberatsak eta langilleak, akordu gitxi euki izan dau leen. Orain gauza andiak. Egiak bear diranean, ez belu danean. Gaur belu izango ete dan nago.

1931-VI-11

Urkiolako eguna

Urkiolako eguna dogu gaur. Andoni deunaren eleiza nork ez dau ezagututen Euzkadi osoan? Arkaitz artean jarrita datza eleiz eder ori. Ara doaz euzko semeak, batzuk euren osasun billa, besteak gandur aietarik ibarren eta arroen edertasuna ikusteko.

Goizean laiñoz estalduta dagoz mendiak. Eguzki printzak agertu baiño leen eleiza osorik dago. Kristauak goizetik agertuten deutsoe Andoni deunari euren maitasuna.

Aita San Antonio Urkiolakoa
Askoren biotzeko Santu Debotoa.

Leenetan askoren biotzeko maitea da Andoni Deuna. Zoaz Urkiolara ta an ikusiko dauzuz, txadon barruan amaikatxo oroigarri, ontziño politak, errenen tramankuilloak eta abar. Euzko erkietatik doaz araiño, batez bere lurlangilleak, abereen osasun billa. Zenbat bidar ikusi doguz beeruntzean bidezabaletan odola dariola. Aldatz ikara-

garri areik zear pozik joiazan, benetako siñisme-
na biotzetan eroiela:

Askok egiten deutso San Antoniori
Egun batean joan eta bestean etorri.

Bai orixe, batean joan eta bestean etorri,
egun baten ezin ikusi eta goratu daitekezalako
ango edertasunak eta goralbenak. Arkaitzak
zeruraiño burua jasoten dabe, zugazti orritsuak
itzal dagie.

Edestiak diñoskunez, orain zazpireun urte
eldu zan Andoni deuna Urkiolara ta bertan gau
osoan otoitz egiten egon zan. Odolez euzkotarra
dala entzun dogu ta gauza erreza ez dan arren
ori jakitea, onerazpenez beintzat euzkotarra
dogu Deun au.

Gaiñera siñismenak antxe batu dauz Andoni
deun biak. Batek bere oinpean dager txarritxo
apala, abereen osasuna beragan dagoala era-
kusteko. Besteak umetxo kutuna eskutan dager,
Kristogan ezkerre zabalduteko datza. Igon zadiz
eleiza aretako torre gainera ta Araba guztia,
Gipuzkoa ta Bizkaia ikusiko dozuz. Mendi goiak

maite dabez gure deunak. Sinismenak zenbat eta eragozpen geiago euki, obeto eroaten dauz, eta Begoña, Arantzazu, Estibalitz, Aralar eta beste mendi goi astro entzutetsuak dozuz Euzkadin. Mendiak baiño sendoagoa da euzkoen siñismena.

Durangon bazkalduta, Mañaritik gora Aldatz andia dago San Antoniora.

Bai, aldatz andia dago, baiña zenbat euzkotarrrek igaro dabez aldatz oneik izerdi ta nekearen bildurrik gabe. Eta urteetan pozik igon bagara, aurten zazpigarren eundia ezagututen danean, geiago elduko gara bertaraiño, geure maitasuna agertuko dautsogu Deun orreri. Ikusi dagiala mundu guztiak euzkoen siñismen eta fedea mendiak baizen iraunkor iraungo dabela. Anboto goiak zutunik dagozan artean, geure fedea iraungo dau.

Laiño zuriak dabiltz mendiz mendi, arkaitzak eguzkiaren mosua leenengoz artuten dabe, geure biotzak araxe eldu bitez zeruko eguzkiaren mosua gozartu daigun. Urkiolako Deunak zaindu gaizala.

Euzkadi, 1931-VI-13

Amaikatxo eragozpen

Amaikatxo eragozpen eta larritasun igaro ostean, gaur batuko dira batzar nagusian Euzkaldiko udalak. Lizarran (Estella) batzen dira, katoliko izena darabilen kazike batzuk ez dabelako gura izan Iruiñan batzar ori egieta.

Fueroen aldeko mitiña egin bear ei dabe gaur Iruiñan. Bai, zer arteztuko dabe aldi onetan mitin bategaz? Ez da gaurko eguna itz egitekoa, gauza erreza da itz egitea jentearen aurrean eta deduzko txaloak irabazteko bere. Beti izan dira Naparroako jaimetarrak eta karlatarrak olako barri-tsukerietan ibiltekoak. Sakonkiro oldoztuten badogu, zer irabazten da orain mitin bategaz? Ezer bere ez, egun bateko otsa dalako ori. Udalen batzarrean ostera, Euskadiren gaizkatasuna erabaki ta lortu daiteke.

Baiña ezkertarrak lurperatu ezin izan daben batzarra, katoliku izena daroen batzuk zuzpeltu dabela, zelako poza izango daben jauntxo mada-rikatu orreik. Udalak zutunik dagoz, erriak ez dauko beste usterik eta gizaldietan egin ez dana

euzkoak egiteko dagozan orduan, orra katolikuek zelako prisak daukezan batzar bat egiteko.

Euzko Araudi ori ontzat artu ezkerero, ez dago zetan auteskundetara joan, danak gura dabena-ren billa joateko ez dago aurkakorik eta. Baiña ba dakie Iruiñan batzar ori egiteko asmoan dagozanak, eurak ez dirala ezer olako gauzetan eragozpenak ipiñita, gauzarik aundienak lurpera jaurti barik.

Geroago agertuko dira egunotako zikinke-riak, lotsabakokeriak eta udalak zelako asmo ederrakaz joan diran mitin orren asmagilleenga-na. Ezerk ez dau balio izan eurekin, euzko aberriari barik euren girin txarrari dagozalako. Oraingo edestia idazten dan egunetan, oso lotsagarri gertauko dira jaun orreik.

Ondo aztertu ezkerero udalen batzarrak eta katolikuenak dauken aldakuntza, ezin ukatu izango dogu udalenak daukon garrantzia.

Gaiñera ez da izan eragozpen ori euzkotarre-na bakarrik, Espaiñako «Acción Nacional» deri-txon alderdia ibilli da or guztia edenduten.

Gotzain jaunak eskatu eutsen atzeratu egiela batzar ori, baiña alperrik. Ez dagoz orretarako.

Egun onetan ibilli jatzu emetik Jaime edo olako bat eta areri euren maitasuna agertu gura deustoe. Karanba, katolikoak izan eta fuerozaleak eta euren atzetik iñor parako ete da ba. Ez, sekulan be.

Udalak laguntza gura dabe eta eragozpen ori bidean aurkitu daben ezkerro, guztiak beartuak gagoz eurai laguntzeko. Lizarran orok izan bear dabe, geure zaletasun biziagaz lagundu eta indartu daiguzan. Euzko legegaiia andik ontzat arturik badakargu, egunik andiena izango jaku. Axe benetan danentzako izango da poza. Biotzak gora ba, eta Estellan agertu daigun gure artean ez dagoala ikuseziñik eta gorrotorik.

Gora udalak eta gora euzkoak. Gaurko eguna andiena izango da geure edestian. Lizarrak eukiko dau aintzarik gurena.

1931-VI-4

Lizarrako batzarra

Lizarrako batzarrak, beste gauza askotan bere onurarik ekarri ez baeuskun, bateri egon da benetan: euzko guztien batasunari ta anaitasunari. Antxe iñoiz nabaritu ez dogun eran sentidu genduan, abendaren kume guztiak irin baten bitartez bizi orain.

Egun alaikorra ta edestiaren altzoan maitasunezko izkiakaz idatzita geratu bear dauana. Eundi urteak daroaguz beti alkarren aurka ta alkarrerri agurrik egin gura ezik. Eta euzkoak beti bide batetik ibilli ez daitezcan, arrotzak ardura andiena euki dabe. Ez arrotzak bakarrik, bertoko euzko odolaren aurka dabiltzanak bere bardin.

Anaiak beti ibilli izan dira burrukan eta aberiaren galkuntza ikusi arren bere, ez ziran alkartuten, abereak eurak bere batuten diran arren txar bat aurrera jatorkenean.

Edestiari bagagoz, negar egingo dogu, urte askotan ez dogulako ikusi euzkotarrik bere erria zainduten. Alde batetik naparrak, bestetik giputzak, gero arabarrak eta azkenez bizkaitarrak,

guztiak naiago izan dogu arrotzari eskuak emon anaiari barik. Kanpotik uste izan dogu gaizkundera etorriko jakula. Anaiaren bildurra genduan, ez osterara arrotzarena, ta orrexek galdu izan gauz.

Baiña edestiaren okerra, girin txarren lerroak deuseztu gurean, batu gintzazan igandean Lizarrako uri ederrean. Antxe zin egin genduan euzko erriak batuta aurrera joan gura dauala. Bere zanean ba dala oraindik odolik naiko, antziñako okerra borrau eta edestiari aintzazko ingiak lotuteko.

Batasun au alde guztietatik ondo jatorko osterara. Euzko erria txikerra danik ez dago zetan esan. Txikerra izan eta barriz bananduta dabiltz, etsaiak laster iruntziko dabe. Leen bere orixe izan zan oben andiena. Ganera odolez eta izkuntzaz eta izakeraz bat ez bagiña, alkarren arteko artuemonak bere batasun au egin bear dogula esaten deuskue. Euzkoen artean zer ikusi naiko daukozu, iñorengana jo barik.

Batasunean indarra, iñoen antziñakoak eta orixe billatu bear dogu. Inguruan dagoz etsai amorratuak, indar andiangoaz, txiroak diran ezke-

ro, bestearen odoletik bizi nairik. Oba dogu ba bere bizitza daukanagaz alkar artu, eskekoagaz baiño. Geure Euzkadi aberatsa dala askok daki ta beti egongo dira atrapau gurean, baiña euzkoen indarra bat egiñik badago, nork orren aurkarik egin?

Batasun onen indarra abertzaletasunak ekarri dau. Oneri zor jako aspaldian euzkoak nabaritutuen daben alkartasun naia. Abertzaletasunak ez dau bakarrik aberriaren alde egin, askatasun billa, batasun billa bere lanik ederrenak egin baituz.

Eta ezin ulertu daiteke benetako abertzalerik, batasun onen billa ez badoa. Euzko erria osoan maite bear da, ez atalka, zatika. Odolez, izkuntzaz, edesti eta izakeraz bat garan ezkerro, batu bear gara betiko. Lizarrako batzarrak orixe jasan gura izan dau, orretara jo dau ta ez dago beste biderik. Edo euzkoak batzen dira edo sekulan oinpeturik biziko dira.

1931-VI-17

Baserritarren negarra

Baserritarren negarra entzuten dogu oraindik. Erri zear joan gara eta alor guztiak zapaldu-ta egozan. Zugatzen abarrak apurtuta, arto landarak orriak dindilizka, igali bat ez da geratu. Maatsak osterera, mordo bat ez dabe eukiko aurtan.

Ederto urtea etorran eta orok pozik egozan. Aspaldiko urteetan ez dabe baserritarrak ezer batu. Legorteak geienean galtzen izan dau dana. Belardiak ebai barri egozan egun betan, laster ganbarara eroateko, baina euriak eta arriak galdu dabez. Bedarraren orde z pentsua emon bearko jake abereai. Igazko zorrak ordainduteko ustea eukoenak txarto dagoz.

Igalitan osterera, ba dira iru milla laurlekoren kaltea jaso dabenak. Barazkiak ondatu dira. Piperrak, azak eta abar lauskiturik dagoz. Urte guztian lanean ekin, amaika izerdi bota ostean, dana galdu dabe. Nora begiratuko dabe orain lurlangille gaixoak? Ez daukoe eurak arpiderik,

galkuntzaren alde egiteko. Lanbako batzuei laster sorostuten deutsoe, oneei inork ez.

Andaluzian izan balitz galkuntza au, laster ziran andik gobernuaren ordezeko pillo bat, galkuntzak neurtuteko asmoz. Emekoak oster, zaratarik ez dabelako egiten, baztertuak dira. Geure baserritarretzaz gomutaten dira bakarrik kobrau bear danean, artean ez.

Geure biotzak oster, baserritarren begietan malkoak ikustean bigunduten dira. Eroapenik naiko daukoe, baiña orregaz ez dabez betetuko semeen sabelak. Aldundiak soroztuten ez badauz, urte gorria izango dabe. Lurlangille gai-xoai agintza andiak egiten deutsoezenak auteskunde aurrean, orain ezer ez diño. Ez daukoez itzai jarraitu bear deutsoezan eginkizunak. Baiña onela aurrera ezin ibilli geintekoz. Ikaskizun andiak ikusten dira olako lorretan. Zor zaarra, lor txarra, esan daroe antziñakoak. Gure baserritarrak barriz, zor zaarrak daukoz.

Lanik egiten ez dabenak ezer euki ez egitea, ez da ikaragarri. Egunero barriz, egunsentiagaz batera sortuta lanean diñarduenak ogi zati bat euki ez egitea, ezin jasan geinke euzkoak.

Atzerritar lanbakoai laguntzen deutoegu arpide andiakin, geure anaiai bere lagundu bear-ko.

Asi Amorebieta eta Bakioren artean zenbat geratu dira itxaropen barik. Igali landarak billozik dagoz, ez sagarrik eta ez madaririk. Gariak laster batzeko ordua zan arren, lurpean dagoz etzunik. Artoak ganora barik.

Negu gorria etorriko da eta abereak ez dabe bedar legorrik eukiko. Zenbat zor egin bear lur-langilleak. Aurten ordainduko ebazala zor asko uste eban, ederra etorrelako, baiña zor andiagok egingo.

Aldundiak bitartean, itzik ez diño onetzaz. Atzerrian jazo balitz lorrau, laster ziran emengo izparringiak zeruari deadarka. Orain ezer ez. Tamalez ez dauko baserritarrak abertzalerik baiño laguntzaille, besteak ederto urian sartuta dagoz ardura andi barik.

Ixillean sufriduten dabez oiñaze ta lorrak, baiña beartuta gagoz lor oneik inori erakusten bere. Jakin dagiezala orok. Baserritar gaixoak negar dagi.

Lurlangilleak

Lanbako askok lelo batera joten dabe. Uriko txaide ertzetan ugerra baiño ez dagoala ta, baserriko bakeari goralpen andiak opalduten deutsez. Keak baltzitu dauzan gizon oneik, euren begi zurbilduak zuzenduten dabez kanporantza. Itxaropen batek daroaz, urian baiño obeto biziko diralakoan baserriko bakean.

Barneko zirkin bat izaten da beti udabarrian edo udan baserriko bizitza maiteago izatea, beste aroetan baiño. Eta zaletasun orrek bere sorburua ez ete dauko zelaietako eder tasunean, udako joritasunean, beste onura batzuetan barik? Uriko zero baltzak azkura bizia sortuazoten dau biotzean, eta gentzaren naiak garoaz baserrira. Baiña lurlangillearen bizitza orren mai-tagarria ete da?

Orain arte ederto bizi izan dira guztiak urian, irabazte naiko euki dabelako, eta baserrian egon baiño alde egin gurago izan dabe. Zergaitik gauzak aldatu dira ba?

Lurraldeak ez dabe aldakuntzarik egin. Uriarena izanen da orduan. Jente larregi etorri baita urira, orain ezin guztiak bizi daitezke txaidean. Eta uste dabe aberastasunak kanpora iges egin dauala.

Baiña ez dagoz artezean. Baserriko bizitzak nekerik asko eta irabazterik gitxi daukoz. Soloko lana latza, irazbaztea murrizta. Eguzkia agertu baiño leen, idiak buztarturik, sorbaldan akuillua dauala, baserritarra ba doa. Eguerdiko beroak soloan ikusiko dau, baita arratsalde artizarrak be antxe kiñu egingo deutso.

Lana egin dau, zer lortuko? Uzta elduko dan edo ez begira larri dago. Ta sarritan eskuan daukola uste dauanean, ekatxak edo arriak dana galtzen deutso. Baserritarak bere alde gauza bakarra dauko: barneko gentza. Ez dauko kezkarik. Gitxi eukitera egin da ta gitxi orregaz pozik bizi da. Ez urikoa baizen ondo bizi dalako, ta arek aiña irabazten daualako, biotzeko bakea daukolako baiño.

«Nekazaria ondo bizi da» askok esan daroe, baiña aren lorrai ta aren nekeai gitxik adituten deutsoe. Uzta galtzen bada, urteari begira dago

ta zorrak joko dabe etxeko atea. Azkenengo sos guztiak be eralgi bearko dauz.

Onetzaz gomutara datort igaz neure olerkari lagun batek iñoana:

Kazkabar, izotz, arri ta suak,
eman digu amaika min,
ainbeste errenta paga dezagun
ez dan irabaziakin.

Enpleatuak illeko ordaiña
osorik dauka berekin,
udan itzala lan egiteko,
neguz legor ta berokin».

Izango dauz bere eragozpenak langilleak, baiña baserritarrak geiago. Lurlangilleen artean balegoz iragita, untan galtzen diraneko eta laguntzak, orduan obaxe biziko, baiña gaurko egunean zerua goian eta lurra oinpean bakarrik d auke.

Beiaren errapea legor dago, andarra baiño areago. Ardiak bee ta idiak murrusa, betetu egizu etxe utsa. Virgilik edo baserritarrentzako neurtitz politik egin ebazan, baiña gaur ez

dagoz erleak zugatz bakoitzean, ezta dariola; barriz arkaitzak eta igaliak dindilizka alde orotan. Ori leen izango zan.

Gaur ugerra franko dago alde guztietan eta lurrak gogorak dira landuteko. Ekin ostean zeredozer atzemon ezker, pozik. Igaliak gitxi eta eurak bestaldeko umeak jan ez dagiezan, zuur egon bear. Eztiak oster, Alkarrian. Oneexek dira baserritarraren irabazteak. Uriko langilleak begiak arantz zuzenduten dauz, baiña olak gitxi emoten badabe, soloak ez dira joriak.

Olerkariantzako bakarrik maitagarriak dira soloak eta olak. Ogia jan bear dabenentzat barriz, errai gogorak. Soloan ondo bizi izan daitekela egia da, baiña ez gaur soloak dagozan eran, beste era batera baiño. Alkerreri laguntzeko txindi-kutxak balegoz, eskola geiago irakatsiko baleutsoe lurlangilleai, orduan azkura biziagoaz baserrira joango gintzakez.

Egin zaite baserritarra, izango dozu praka zaarra.

1931-VII-22

Astoa arrantzaka

—Izparringi baten ikusi izan dot, Grimm edo Andersen en ipuiñak irakurri ostean, Ama Nesku-tza ikusi dabela Ezkiogako ume batzuk...

—Ori idatzi dauana ez da gizon makala, jakintsua baiño...

—Jakintsua izateko, bilbaotarra dala uste dot... Eta ba dakizu jakintza ta emetua izatea alkarren aurka dagozala.

—Izenik ete dakizu?

—Bai, izena argi ipiñi dau bere idazlantxoaren azpian, baiña nik ez dot emen agertuko. Iñork ez dau ezagututen ezta?, nire bitartez ez dagiela ezagutu. Orreik eurretaz itz egitea gura dabelako, uzkurtzaren aurka egiten deusue, baiña ez gagoz lotan. Euren astakeriak azalduko doguz, euren izenik ez osteaa.

—Asmo txarrak darabilzuz.

—Ez arranotan! Karidadea dozu ori, gero damututen badira, lotsa gitxiago jasan bearko dabelako.

—Ez da arrazoi murriña.

—Baiña poesiz beterik dagoan ezkeror idazlan ori, apurka emongo deusut. Emeko olen keak asetu dabe idazlea ta zelai zear doa. Italiako olerkari izunak bere olantxe joaten ziran, artzain olerkiak egiteko asmoz.

—Tira, itxi egiozue Italiako olerkariak ta arira zatorz.

—Alorretara doa geure gizona ba, ta bururatuten jako Agirre eta Pildain eta beste aldun «rurales» itzi barri dagozala mendi ertza.

—Konke «rurales» geure aldunak, ezta? Ba geureak bakarrik dozuz karreradun gizonak. Besteak Merodion irakastola nagusian ikasiak izanen dozuz...

—Ezkiogaraiño doa idazle trebea bere zizkimizkietan. Bilbaotik oiñez joateko urruntxo dago, baiña tira, idazleak gauza andiak egiten deusuez. Ganera olerkaria da idazle ori, ta olerkariak orain lurrean eta gero iretargian dagoz.

—Barritsuegi zagoz gauza onerako. Jarraitu egizu aurrera.

—Ez prisarik. Ona zelako *deskriziño* ederra egiten dauan Ezkiogara eltzean. «Ezkioga es una rinconada vasca, un lomazo (ez pelmazo) pren-

dido de helechos y retamas (orratzak barik), en cuya eminencia (Gotzaña bere orixe da) un pequeño roble abre el paraguas de su poma rizada)». Onek ez daki zer diñoan be. Poma zer dan baleki, ez leuke esango «el paraguas de su poma rizada», poma ori sagar igali bat dalako eta sagarrak «paraguas»ik ez dauko buruan.

—Txarra zara, gero. «Paraguas» esan gurako dau, sagar landaragaitik.

—Dan zoruak busti ez daitezán, oraindik aurrera aterki batzuk ipiñiko doguz zugatzen ganetan. Jarraituten dau geure idazleak eta ona zelako akatsa ipinten dauan: «Es el atardecido». Itzaren barregarria. «Las nubes cárdenas tienen un filete de oro». Gose izango zan idazle au. Bestela filete ori jango baleu.

—Danari ulea artu gura deutsozu.

—Ez, «filete» bat jateko azkurea sortu jat. Baiña fileterik ez dau euki olerkari orrek ta irakastola baten jazoten dana edestuten dau. Arratsaldean alatz eta Neskutzaren agerkundeak azalduten deutsez irakasle emeak. Gero oso erasago konponduko dau umeai bakarrik alatza agertu jakela.

—Orduan umeai bakarrik agertu jakee, ezta?

—Idazle orren ustez, bai. Berari ezin agertuko jakon. Lurrean barik iretargian egoalako orduan, edo «tasca»ren baten «filete»ak jaten. Postrera-ko «poma rizada» bat eskatu eban eta ardao pitin bat edan ostean asi jatzu «La Voz»erako idazten.

—«La Voz»ean idatzi dau orduan?

—Bai, izparringi orretan, ez lerro bakarra, bitan bi baiño.

—Leengo egunean be, txerrena agertu dala Naparroan iñoan izparringi orrek.

—Ez dau jakingo ba! Txerrenak «La Voz» bakarrik irakurten dau. Ganora bako gauzak atsegin jakoz txerrenari, gero ordain ona emoten deutson arren.

—Zer egiten eta dau ba?

—Gauza andirik ez. Irakurri ostean, atzetik buelta bat emoten deutso ta bere firmea itziten dau «La Voz»en irarrita.

—Au bai, orregaitik usain txarra dakar izparringi orrek. Toki onera doa orduan bilbotar idazle ori, bere txotxolakadakaz. Tamalez, jateko

gauza asko egin bear izaten dira, gura izan ez arren.

1931-VII-23

Emakume abertzaleak

Arrasateko errian izan nintzan, abertzaletasuna lerden eta jori dagoalako. Baiña ango emakumeak agertu eben aberriarenganako maitasuna ikusi ostean, laster abenda zaar onek lorarik ederrenak sortuazoko dauzala ikasi dot. Euzkadi-ko emakumeen eredutzat jarriko dodaz Arrasateko emakumeak, eurak goi-gora jaso dabelako euzko ikurriña.

Eta zer egin leikee emakumeak? Erriak ez dira igituten abestiakaz baiño, iñoan Maragallek. Orain esan geinke barriz, erriak maitasunak erabilten dauzala. Maitasuna barriz, ederren, garbien, mardul, lirain eta mardoen emakumeen biotzetan dago. Abendaren samurtasuna euren barruetan dago loratsu. Eta abenda zaar onek emakumeen laztanak bear dauz, barriro gazte egingo bada.

Euzko sendia gelgarria izan bada, emakumeari zor. Antziña edeslariak esana dalako, euzko andrea erregina eta jopua dala. Erregiña izaten da bere etxean aginduteko, baiña jopua

besteen esanak egiteko. Senarragaz jopua, semeakaz erregiña.

Erri zoriontsuak edestirik edo istoririk ez daukoe, emakume zoriontsuak legetxe. Ona zergaitik euzko emakumeak eta Euzko erriak edestirik ez daukoen. Itz neurtu baten esango deusuet, erderatik itzulita, zer egin bear dozuen etxean:

Ludira etorri gara
uso antzo, zeu, urrumarako,
leoi antzo, neu, gudatarako.

Eguneko emakumeak bere semeekin jardun bear dau. Seaska ertzean datzan seiñari leenen aberriaren eta Jaungoikoaren maitasuna erakutsi bear deutso. Euskeraz ikasi dagizala leenengo izketak. Errezago sartu daike seme txikien biotzetan aberriaren maitetasuna, «etxean zer ikasi, a ikasi» egiten baita.

Emakumeak, batez bere ezkongaietan dagozan aldian, lanik bereziena egin leikee. Mutillak nora-ara eroan daitekez. Euzko jolasak, oiturak eta izketa be biztuteko, eurak lakorik ez dago. Ikurriñak eunduten bakarrik ez, biotzak eundu-

ten jardun dagiela. Gizonen agoan abertzaletasunak indarra dario, sua, baiña emakumeen agoetan samurtasuna, liraintasuna baiño ez da.

Uzkurtza maite daben legetxe, aberria maite bear dabe, bigarren uzkurtza izan daitela. Sarri entzun dogu andrak izan dirala euskeraren etsairik gorrienak. Egia ete? Baietz uste dogu. Baiña orain abertzaletasunak eragiten badeutsoe, barrero eurak zabalduko dabe euskera gozoa.

Etxean, kanpoan eta eleizan, alde orotan izan bediz abertzaleak geure emakumeak. Egun batean ez bada bestean, beti andrak gura dabe-na egiten dalako errietan. Eredutzat artu geinkez Bermeoko emakume ausartuak.

Geure abestien gozotasuna entzun danean emakume baten agoan, oso samurtuta geratuten gara. Baiña aberriaren izkuntza entzutean, ikaratuta gagoz. Zer izango ete litzake, abertzaletasuna loraturik ikusiko bagendu?

Uzkurtzaren zaindari onenak emakumeak dirala egiztatu bearke. Eurak diralako uzkurtza maiteen dabenak. Zer egingo ez, barriz, aberria be bardin maite balebe? Arin igarten jake euzko emakumea eta arrotzai, erean edo modestian,

liraintasunean, garbitasunean. Akats bakarra badaukoe, kanpoko gauzak eta oiturak maite izatea jake. Uste dabe euzko usaiñik badarigioe, lotsagarri dirala baiña ez da olakorik.

Baiña garrantzi andikoa da arrotzakaz barik, euzko semeekin ezkontutea be. Lotsagarria dalako ama batentzako, bere semeak arrotzen odola eroatea.

Ez dabe urduri izan bear. Etorriko da euzkoa euren billa, benetako abertzaleak badira. Aber-tzalea dan emakume bateri zuzendu gura neus-kioz idatzi nebazan neurtitzok:

Zeugan pentsaten nabil Jaunaren bidean eta lokatz artean egaz dagit azkar:
Andra baten oroia naiko da lurrean
garbi iraun dagiguntzat etsai orok zear.

Zelako lana egin daikean euzko emakumeak. Baiña orretarako aberriaren maitasunak jo bear dauz, ez arrotzen zaletasunak. Orain aldendu dabiltzan asko etorriko lirake abertzaletasunera, eurak agertuko balebe aberriaren edertasuna. Ots egin dagiela guztiai:

Bidazti ori, ona:

Ni naiz abertzale zindo baten maitetasuna.

Emakumearren guztia galdu dabenak, bera-
gan oro idoro dabela esan dagiela. Aberrian
zoriona eta gentza. Sendia euzkotarra bada,
aberria gaizkatu da. Sendia barriz, emakumeak
bakarrik euzkotuko dau. Kateak apurtuko dabez;
biotzak oster, emakumeak.

1931-VIII-4

Gaizkiñak

Gaizkiñak geure aurka dabiltz, jaurliak jago-ten deutsoezalako sorbaldak. Aspaldian geureta-riko askotxo jausten dina euren iskillu artean, eta aberriaren ziñopa onein aiotsak entzutean, geure zanetako odolak diraki. Begi aurretik ezin kendu doguz odol tanto oneik, eta deadarrez dagoz. Zuzentza (justicia) eskatuten dabe, ta ots orreik ez dira isilduko, zuzentza ori osoan betetu arteraiño.

Jaurliak ez dabez bear diran neurriak artzen. Abertzaleak zarata egiten dabe, izparringietan baiña laster isilduten dira zarata orreik. Lagiak aldeztuten dauzala gaizkin guztiak dirudi. Lapur-
rak eta matxiñada zaleak bakarrik atxillotuten dira orain; gaizkiña, bakean dagozanai tiro bat jaurtiten deutsona oster, jarei dabil txaidean.

Eta geuk bakarrik ez dogu ikusten au. Euzko guztiak argian betestuten dabe zer dagien agin-tariak gaizkin oneikaz. Aranburu, Ugarritxa, Etxebarria ta abar jausten dira; ordez nor, barriz?

Ordez ez da iñor jausten oraindik. Baiña gauzak argiro esan bear doguz. Agintariak erabakirik artzen ez badabe, abertzaleak eurak artuko dabe. Eskutik atzemongo dogu zuzentza. Eta gorria izango da benetan zuzentza ori! Jausi daitela edonor. Eta bear bada ogei erailtea, ogei erailgo doguz.

Erriaren eroapenak azkeneraiño jo dau. Erkaltzaleak diralakoan, gaizkin barrabasak nai dabena egiteari emonik dagoz, eta bitartean jaurliak eskuak eskuen ganean dabezala. Oindiño euzko odolari laido egitekorik ez da sortu izan, eta ez dogu jasango olakorik.

Odolak deadar dagi. Onegiak izan bagara be, nekatu gara onak izateagaz. Orain txarrera joko dogu. Baiña ez da lurperatu bear lotsabako bat edo beste, diru bitartez edozer egiteko prest dagoanik. Burura jo dagigun. Geure bat jausten bada, euretariko bi edo lau. Geu ez gara iñoren aurka joango. Bakean bakoitzak aldeztu dagizala bere oldozkunak eta alderdiak. Eta abertzalearik badoa iñori laido egiten, burla egiten, ordaindu dagiala berea.

Orretan itzik be ez. Itzala orrentzako eta askatasuna. Baiña bakean gagozan orduan etxera jatorkun gaizkiñari, lorakaz bada lorakaz, eta iskilluz bada iskilluz.

Olakorik jazo ez daitean, jaurleri dagozanak zuur begoz. Txarto egiten dabena, naiz abertzalea naiz erkaltzalea izan, zigortu dagiela. Baiña beti geureak odola dariola ikusterik, ezin eroan geinke.

Or dabiltz amasei eta amazazpi urteko mutiltxoak iskilluz josita. Gobernadore jauna: Noren baimena daukoe orreik? Zer dira «guardia cívico edo cínico» deritxoen orreik? Erkalaren aginduz dabiltz edo ez? Lotsabako batzuk izkilluakaz badabiltz, zergaitik ez emon gizon baketsuai be? Bizkaian jausten dan odola jaurlearen ganera doa. Edo zuzenduten dira emeko gertaerak, edo negar asko isuri bearko dabe emakumeak eta gurasoak.

Lau katu ez gara gaur orrelako gauzak lepoan erabilteko. Itzala, errespeto osoa guztientzako, baiña zuzentza be orontzako. Ez dago emen biurkeriakin gero gauzak arteztu gurarik. Ots gitxi eta egite geiago. Bat jausten danean, iru.

Etxean olako agoz jasango bazenduz, erantzun egizu jaurleri orrek. Atzerritarrak madarikatu orreik, euzkoen aurka dabiltzazan arren, begi argiz ikusten badozu jazokun ori, guk ezin jasan daikegu.

Larregi entzun izan doguz bakea ta gentza. Abertzaleak oraintxe zintzoegiak izan dira.

Baiña emeko basatiak zintzotasunari iskilluz erantzuten deutsoen ezkerro, ikusiko dogu nor dan geiago. Ots au izan daitela deadarrik gogorrena. Belarriak idigi ta begiak zabaldu. Belu izango dalako gero. Bururagiño egin jaku bai? ta gaur zutunik gagoz. Odolak deadar dagi, geure anaien odol tanto orreik ots egiten deuskue. Aberriak eskatuko deusku odol orrein ordezkoa.

1931-VIII-5

Negua

Neguak agur egin deusku. Aize otza inguruetan dabil, zugatzetan diran orriai atzamar gogorraz eldu nairik. Olerkari itunak zerura begira jarriko ziran. Ikusiko dozu zenbat bertso etorriko diran izparringi onetara, neguaren gorralbenak esaten!

Edurak izara barriak egiten ei dauz zelaietan. Izara barriak oba txiroen etxeetan, barriz. Bertsoak egiteko asmorik ez, oldozkun sakonak bururatuteko ustea bai ostera, sortuten jat negu au ikustean. Bideetan jausten diran orbelak eta txori abi utsak, ez deuste miñik emoten. Baiña ogi bako etxeak, bai.

Aurtengo negu onetan amaikatxo idoroko dogu. Lan ezak ez deutso iñori asketsiko. Eta otzaren dardara zegaz kenduko dabe gizakumeak? Udan bizitza errezagoa jaku, neguan baiño. Mendiak zuri dagozanean, lurrean bedar motarik ez danean eta etxean gosea dan orduan, ituna izaten da zeruko odeiak begiratu-tea.

Geure kaleetan asko dira eskean, baiña oraindik geiago izango dira. Nora joko dogu, barriz? Otzaren aurka ez daño biotz samurtasuna baiña, limosna egitea baizik. Matxiñadak egiteko asmoetan, azkuretan dirala erkalar etsaiak, diño, baiña gudarako ez dago iñor, jatekoa ez dagoan bitartean. Buruzagi ankerra etorri jaku. Gosea dozu buruzagi au. Onen aurka nork jokatuko ete?

Etsipetan barriz, jatekorik ez badago, bakerik be ez. Sarri esan daroat etxeko goraberek geienetan sortze au daukela. Janari gabe, gizonak eta emakumeak ez dauke umeai asikera on emoteko bakerik. Alkarren etsai dozuz. Etxe utsa, guda otsa, esaten dabe antziñako zaarrak. Egia ez danik ez dot uste. Baiña karidade andiak egiteko aldiak dira? Egungo egunetan emon ete geinke gura aiña? Ezetz, nik uste. Txindiak gitxi balio dau, baiña saltokiak edo denda eta komertzio guztiak ankaz gora dagoz. Dirudunak be bil-durrez dagoz, zer jazoko danentz.

Bakerik izateko uste gabe. Gentza eukiko dogula luzaro uste bagendu, gauzak atonduko

litzakez. Gaur barriz, ez. Gaur norberak lismonea emon eta biar eskatuko badau...

Uri andietan jente asko batu jaku. Larregi. Aberastasunak urian dagozala ta etorri dira baserrikoak eta basetxeakoak. Zenbat gara uri andietan? Beredin bai. Laneza eldu danean barriz, iñor urten nai ez. Bizitza ederra, atsegin-tsua eroaten ikasiak dozuz geienak. Langilleak be bai. Urdailari larregi emon deutsoe, ta urdailak asko eskatuten dau orain. Geikeri orreik baiña, itxi bearko dira. Egunero kafea artzen oituta dagozanak, puru ederra erre ta ganera goizean edari gozoak, arratsaldean edari garra-tzak eta abar, itxi bearko dira.

Urte onak joan dira, txarrak datorz. Txiro asko ikusten dan arren, geiago ikusiko doguz. Zorioneko baserritarrak, euren txokoa itxi gabe geratu diranak! Bizitzako nekeak ba dakiez zeintzuk diran, larregirik ez dabe ezagutu, baiña gaur beste mizkatuak baiño obeto bizi dira.

Zelako ikaskizunak arazo onetan. Aberriak ez dira gurenak eta argiak, olak edo, fabrikak euki arren. Urak ekarri, urak eroan, esaten dabe. Egia. Arin datorren aberasta suna, arin doa.

Lurrekoa ez. Nekazaritza deritxegu baserritarrai
ta nekez saria irabazten dabe. Baiña sari orreek
aberriak irozoten dauz. Negu oneri negarrez
gagoz urietan. Zer egin? Adierazoko.

1931-XI-17

Ostikolariak

—Espaiñarrak galdu dabe ostikoketa. Au tamala! Nork esango olakorik! Baiña zazpi tantu sartuko eutsezanik uste izan dozue? Egun au lotsagarria geuretzako!

Alakoxe izkerak entzuten izan dodaz txai-dean. Atzo gazteak eta zaarrak beste itzik ez eben erabilli. Neure kolkorako niñoan: Baiña zer jazo da ba? Nortzuk geratu dira zazpi ta bat? Euzkaltzaleak edo ete izan dira auteskunde baten olan geratu diranak? Zazpi ta bat! Toki guztietan lelo bardiña. Zer zan ez nekian eta urbildu nintzaxon adiskide bateri ta bildurrez itaundu neutson:

—I, nortzuk geratu dozak zazpi ta bat, ba?

—Aitaren eta semearen! Olakorik! Zoratu ete az? Baiña ez ete dakik zer jazo doan? Non bizi az edo? Ixil egon adi, ixillik, iñork jakiten bajok...

Larritu nintzan gauza ikaragarriren bat jazo ete zanentz, neuk osteraz ezer jakin ez egiteagaitik.

—Kanpotik ibilli nok eta —adiskideari erantzun neutson, guzur biribilla zan arren.

—England eta Espaiñako ostikoketa izan dok, mutil, eta espaiñarrai zazo sarean sartu jeutsoezak. Nork siñistu ori?

—Eta orregaitik abil larri-larri. Ori baño ez ete dok jazo? Jente guztia zoro antzean jabiltzak, ostikoketa kontuak dirala ta?

—Zer ba? Gauza kaskarra dok ala? I odeietan bizi az.

—Orretaraiñokoa dokanik ez joat uste ba. Neurritz artuten joadazak nik gauzak. Ostikoketa dokala ta, larri. Eta abertzalea az i?

—Bai orixe! Zer ba? Ez dakit zer nokan?

—Abertzalea izan eta Espaiñako ostikolariak partidu ori galdu dabelako zeruari deadar? Zer ardura dok orregaitik? Irabazi zein galdu, bardin dok guretzako.

—Ez joat oldoztu be egin. Egia diñok.

—Ez joat egia esango, ba! Abertzaleak ostikoketa arazoak baiño andiagorik bajaukaguk. Beste zeregiñik ez jaukoenak, sartu bedizak olako gauzetan.

—Bertoko semeak balitzozak be, baiña erdiak kanpokoak dozak. Ganera «Equipo Español» ize-nagaz joan dozak. Euzkadiko semeai ardurarik ez jeuskuk izan bear.

Neure laguna aldendu zan ixillik. Egia esan nebalako edo. Ez dakit siñistu be eustan ardurarik ez nebala nabariteten ostikoketa arazoagaitik, baiña itz gogorrik ez eustan jardetsi.

Zorioneko ostikolariak! Beste arazorik ez dala munduan oldoztu geinke. Ganera abertzaletasunari gaitz andiak egiten jatorku auxe. Gazteak alde batera itxiten dabe abertzaletasuna, erriaren pizkundera. Guztia ostikoka egitean igaroten dabe. Ondo dagoz kirolak eta kirolzalea naz. Baiña neurritz artuten dodaz. Neure gorputzari on egiten badeutsoe, aizea artzeko, osasunari indar emoteko, pozik artzen dodaz. Baiña ludiko gauza garrantzitsuena balitz, ostikoketa ta kirolak ez dodaz artzen. Diktadura aldiak zazpi urte iraun baeban, kirolakaitik izan zan. Gazteak zoratuta bizi ziran kirolakaz. Aldi ederra galduten dogu zorioneko kirolakaz. Eta etxekoak balitzaz be, baiña espaiñatarrak galdu dabelako negar anpulu! Non dago geure burua? Zoratuta gagoz.

Ardura barik artuten badogu olako gauzea, zoro-
tzat gaukoez oster. England eta Espaiñako osti-
kolariak emongo deuskue aurrerakuntza, argia
eta aberastasuna. Zeregin asko ez daukoe olako
gauzetan dabilzan gizonak. Ostikoketa burruka
orreik laster kenduko neukez nik, aal baneu.
Kiolak barriz, erri orotan jarriko neukez, osasu-
nerako orreek baitiralako.

1931-XII-11

La muerte del euskera

Aspalditxo «Aitzol» idazle argiak lan eder bat argitaldu eban «El Día» izparringian, geure izkuntza onen aurka Unamuno ta Baroja anaiak esan dabezan astakeriak birrinduteko. Orain dotore argitaldu dabe «Euskaltzaleak» lantxoia idaztiño baten barruan.

Ganora bako gauzak erraz ezereztuten dira, baiña bide asko dagoz orretarako. «Aitzol» jakintsuak darabilen bidea onena dala uste dogu. Jakintza zarataz datorrenari, jakintzaz erantzun bear jako. Eta «Aitzol»en lana benetan dago jakintzaz josia.

Unamuno jaunari aurrez aurre egitekorik ez dago geure artean, uste dabe batzuk; baiña Jaungoikoa ez dan ezkerro, oneri be egin legioke eunada bat. «Aitzol» jaunak ontzat artzen dauz Unamunoren goralpenak, jaun argi ta entzute andikoa dalako. Begiak zabalik daukozanak, bilbotar orren idazlanak puntarengoak dirala onetsi bear.

Baroja anaïetan, Pio da argiena ta European be ospe andia daukona. Berrogei irakurgai edo novela idatzi dauz eta izkuntzarik landu danetara itzuli dabez. Errikorta ostera, margolaria edo da, baiña iñork ez dau ezagututen. Oneri bakean itxi baleutso, obe. Olako txoriburu bateri ez jakolako jaromonik egin bear.

Baroja jaun onek euzkoak Espaiña leenengoz euki ebenak diralako asmoa dakar. Erderaz «vasco-ibérico» deritxoe. Humboldt doistarrak asmau eban gauza au, geure Erro, Astarloa eta Mogel buru zirala. Gaurko jakintsuak jaurti dabe «vasco-iberismo» ori alde batera. Unamuno barriz «vasco-iberismo» orren arerio andia dozu.

«Aitzol» jaunak argi ta garbi bioi erantzuten deutsoe, jakintzaren bidez, etnografi eta edesti aurreko oarrakaz, Baroja jaunak Basco, basokotik datorrelako zirikada bat agertzen daualako. «Aitzol» jaunak argiro darakus, Arana-Goirik onetaz idatzi ebana. Pozik irakurri doguz Arana-taz idazle onek diñozan goralpenak.

Aldi asko da «Aitzol»eri buru argitzat artu genduala. Idazle onek ez dauko gizonentzat goralpena baiño, benetan merezi badabe. Bekai-

tzik ez dauko iñoz. Azken aldian zenbat euzkotarrek euskeraz itz egiten daben agertzen dau eta uri nagusietan zelako euskaltzaletasuna sortu dan. Europako latorrik txikerrenatan be izkuntzak zein bidetik ibili diran erakusten deusku. Letonia, Flandes, Irlanda, Rumania, Checoeslovaquia eta abar. Idaztiño onetan gauza bi argienak aurkitu doguz. Jakintza zuurrak eta laburtasuna. Ezin esan daikeguz lerro gitxiagotan ainbeste egi.

Gaurko egunean euzko gauzetan dakiguna, argi darakus. Unamuno eta Baroja anaien zorakeriai erantzun ederrena emon deutsoe.

Beti izan gara euskaldunak olako eztabaidetan sartzeko nagitsuak. Eskerrak ba «Aitzol»eri, bere luma zorrotzagaz geure alde atera dalako.

Barre egitekoa da benetan Barojatzazko jazoera. Madrilen aurkitu zan izparkari batekin eta onek itaundu eutson:

—Ta zelan gabiltz edo, Pio jauna?

—Txarto, txartotan be. —Zer ba? —Emen, Madrid onetan, maketoak baiño ez dodaz idoroten. —Eta ikeratuten zara? —Bai. Satsa eta zarrapastrojo batzuk baiño ez dagoz emen. Ba

noa neure Bidasoako okuillura. European bakal-
dungai bat idoro bear dogu euzkoak, eta bakal-
derri eder bat eratu.

Jazoera polita benetan. Olakoxeak dozuz
emeko jakintsu-izunak. Idazle oneik izunak izan
ez arren be.

Euzkotar guztiak irakurri bear leukeen idazti-
ñoa da «Aitzol»ek argitaldu dauan au. Atsegiñez
irakurten da guztia. Erderaz «documentado»
esango leuskioe, geure artean goralpen andirik
entzungo ez dauan arren. Olakoxeak gara ta.

«El Día»n argitaldu zanean, txalo andiak
entzun baebazan, gaur liburutxo antzo datorre-
nean, pozik jasoko dabela guztiak uste dogu.
Geure txaloa boakio beintzat, idazlari arrulo ta
oisdur orreri.

1932-I-13

Irrasaioa euskeraz

Euskeraz radioz lan egiteko dozuz Donostia-ko Euzko Gaztedikoak. Asmo au zoragarri da. Itzaren indarra urrin doa. Itzak dakarz biotzera gurariak. Baiña itzak egoak nai dauz, egaiz egiteko. Txoriak legetxe ibilli gura dau geure mintzoak.

Zeru oztiña zear gauza ikusgarri izanen ez da zeure itzak egaizka ikustea. Bai ba! Geure abotsak ezin jaurti daikez urrunera. Baiña aurrerapen andiak dozuz laguntzale.

Aritxo batek artzen dau zeure agoko itza ta egoak eukiko baleuzan, azkar-azkar daroa. Nora igoteko dozu mintzo ori?

Areto barruan dago. Baiña neure abotsa mundu guztian. Uiñak edo bagak bailiran, zeruko itsaso garbian doaz itzok. Ondartzak aurkitu gura dabez.

Eta alde guztietan dagoz jenteak, irrasaioak ekarriko dauzan izparrak entzuteko. Usoak atzemoteko, udazkenean eiztariak ez ete dozuz ikusten Lesako inguruan? Bardin dagoz orain, radioa

entzuteko zai. Zabaldu daiguzan geure itzak edo usoak ba. Orain arte izkuntzarik landuenak zabaldu dabez gura izan dabezanak. Txiro gaituzulako, geuk ez dogu ezer be egin!

Oraingo aldian gazte batzuk sutsu asi jatzuz lan eder oneri indar egiten. Euskeraren barri urrun jaurti nai dabe. Etxean sartuta ezin egon ba. Amona zaarrak egoten dira, baiña bizitza nai dabenak ez. Izkuntzak be bizi gura dau ba, ta bere egoak zabalduteko dago radioren bitartez.

Aste onetan asiko jatzuz. Eguastenean. Francen asi ziran batzuk eta poztu ziran euzkotarrak. Aurrerapen guztiak geuk be artu daiguzan geure oiturak, abestiak, esakerak eta ipuiñak barreiatuteko.

Radioak ba zabalkunde ederra egingo deusku, eta mailla-mailla sartuko jatzuz izpartxoak, alkarrizketak, barriketak, ipuiñak.

Gaurko egunetan ariñen dabillenarena dozu mundua. Zenbat eta ariñago ibilli, leenago lortu gura dozuna. Tximistaren urteak dira. Beste guztiak baiño atzerago geratuko gara euzkoak?

Ez baten. Or dozuz barre eragiten deuskuen antzerkilariak, abeslariak eurrez, olerkariak,

edeslariak eta abar. Gogoetan ixillik dauko ez gogai ederrak. Atara ba, kanpora. Euskara, euskara jalgi adi kanpora.

Baserritarrak baizik ez eben leen itzik egiten euskeraz. Orain dotore dator. Jaun eta jauntxoek agoetan be entzuten dogu. Liburu apainduetan agertuten jaku. Izlari bikaiñak daukoz. Radiora jotzen dau gaur.

Gizonak narruz jantzita ikusi ebazan izkuntzak, leizetan sartuta basatiak legez munduko jenteak ikusi ebazan izkuntza onek, radioren bidez mintzatu nai dau.

Ludiaren leenengo urteak ikusi ebazan eta abotsagaz barik suaren bitartez itz egiten zala be ba daki. Mendi goietan suak piztu ta albo errietakoai dei egiten eutsoen.

Era orduko izkuntzak il ziran. Euskerea bakarrik bizirik dago. Leizetan bizi ziran areen semeak, jaun egin eta argitu dira. Eta euskereak lagundu deutsoe ibilkunde guztietan.

Aldakuntzarik andienak ikusi dauz. Eta mundu guztiari edestu gura deutso ele maite onek, abenda batek egin dauan alatza, milagroa. Gizaldi zear bere izkuntza zaindu dauala.

Radioz mendiak igaro gura dauz. Ibarak eta aranak baiño urrunago joan gura dau, bera antziña etorri zan bideak jakiteko. Asiaraiño, Aprika aldera, pizka bat biotza kiskalduteko ustez joango da. Gero Amerikara be bai. An bere semeak iñortxo baiño leenago izan ziran.

Eta egaizka zero zear ikustean izkuntza au, itaunduko, galdetuko dabe jenteak: nondik dator izkuntza au? Nongoa da? Mirarituko dira. Eta guztiai azalduko deutsoe bere jatorria. Mendi artean bizi dan lora baten usaiña.

Agur izkuntza maite ori! Zoaz egaizka radio orren bitartez! Liburuak, izparringiak, itzaldiak sartu ezin diran etxeetan, sartu zadiz. Euzkoen ordeaz agurtu guztiak!

Hitler

Prusiako auteskundeetzaz toki guztietan diñardue, batez be politika eta garazetan. Artegatasun aundia sortuazo dau nazitarrak lortu daben gurenda orrek.

Prusiako batzarra osatuten zan leen 450 aldunekin, baiña orain berrogetamar millari aldun bat jagokoen ezketiño, 425 aldun baiño ez dira izango. Baiña hitlertarrak euren alde gaindi bat daukoe. Leen nagusi izateko, 225 aldun bear izaten ziran, gaur barriz bear da 214. Nazitarrak gorantz egin dabe, zazpirik ba 162era igon dira. Hugenbergtarrak barriz, 71 arkitik 31 bateraiño beera egin dabe.

Komunistarrak be gorakada bat nabaritu dabe: 48 aldun eukoezan leen, gaur ostera 57. Sozialistak galdu dabez 44 aldun. Ondoan dagoz gaur katolikotarrak.

Auteskunde oneitan zer jazo dan? Braun jaunaren jaurkerea menperatua izan da. Weimareko agintarien aurka faziotarren agintaritza nagusi egin da. Hitleren gurenda andiena izan dan

arren, oindikarren ez daukoz berak nai leukezan aldunak. Beste alderdiak batzen badira agintariakin dagozanak, 203 gertuten dira. Buru izateko besterik ez dauko ba Hitlerrek.

Orain amabost egun ontzat artu zan lagia bide, leenengo ministroa izantatzea eskumatarrak ondo dakie euren eskuetan dagoala, baiña indarririk asko ez daukoe euren bat izantatzeko.

Katolikoaren eskuetan dago ba Prusiako agindaritzaz.

Oneik nora jo, araxe jo bearko dau jaurkerek be. Nazitarrak batzen badira, alderdi orretakoak buru izango dira, bestela ez.

Hitleren gurenda onek ikaratuten dauz asko, baiña ez da ikaratzekoa. Oraingo internazionalismo deritxoen era orren aurkako abotsa baiño ez da Hitlerena. Alderdi bakarra izan da bere otsak entzun barik geratu dana, katolikoena, beste guztiak arin joan dira bere jarrai. Izan be, aber-tzaletasunaren indarra da hitlertarrena. Gazteak beraganatu dauz antziñako oiturakaz, abesti ta dantzakaz. Bere eginkizunetan gudari antzo agertzen da.

Ganera Deustcherriak uriola andiak jaso dauz amalau urte onetan. Europako gudaren ondorengoak ordaindu bearrak, urte bi onetan izan dan diktadura antzekoak, eta azkenez agintarien buruezak. Hitleren gudarosteak ezereztuteagaz kalte andia egin deutsoe aberriari. Hitlerrek ez eban iraungo beste sei illabetean, txindirik ez daukolako. Baiña leengo auteskunde ostean bere gudaosteak kentzeagaz, erria sutu da.

Erriak indartu ta bizkortuteko ez dago gaurko egunean jaurkera usaiñakaz ibilli bearrak. Bere biotzean maite dauzan gogaiak agertu ta erakutsi bear jakoz erriari. Hitleren gurenda ortik dator. Deustchaldean, sozialistak nagusi ez, baiña indar andia euken, orain komunistak be geituten ziran. Baiña alderdi bi oneik deustarrak barik luditarrak dira, ta erri bakoitzak bere izatea gura dau osatu.

Agintaritzan beteko dauz Hitlerrek bere agintzak? Orixe da gaurko itauna. Ganera Europa-gudako zorrak ordainduko dauz Deustcherriak? Franceren bildurgarri beintzat izan bear dau gurenda orrek. Trotski jaunak iñoana batzuk

gomutara dakarre: «Politika arazoetan ez da ezer galdu, guztia galdu ez bada».

Europaren biotzean aldakuntza andiak izango dira. Deustchtarrak beti izan dira lurralde onen igilariak. Bruning jaunak iraungo dau Reichstagen? Katolikoak hitlertarrakin alkartuten badira, sozialistak lagunduko deutsoe jaun oni?

Iñork ezin erantzun itaun oneei, gauza illunak diralako. Igandetik ona Europako politika arazok aldatu dira. Itali eta Deustcherrian nazitarrak nagusi dira. Baiña igitara onein barnean ez ete dago egi baten sustraia? Ludikotasun gogai batzuen aurka, laterri bakoitzak burua jaso ez ete dau nai? Baietz dirudi. Francen Daudet eta abarrekin doazenak, sustrai auxe ez dabe iturburu?

Leenagoko eundietara gizartea doala dirudi. Askatasun asko bearren zala, laterriak jausi dira. Bakaldun bakar eta leendakari «dictadore» batzukana ez ete dira zuzenduko erriak? Hitler-tarren gurenda onek, Mussoliniren agintaritzak eta Stalinen jaurkerek auxe erakusten dabe. Itz batean, iru jaurkera oneik agintaritza bakarrak dira, ez erritar agintaritzak.

1932-IV-29

Langilleak

Langille asko dira txaidez zear dabiltzanak, ogia non idoroko. Lanezak jo dauz ta beso sendoak euki arren, ezin lanik egin. Ola-meatza mendietan ez dago zeregiñik.

Gosea ugari da. Aurrera so egiten dabenak ba dira, baiña onik ez da agiri. Orain alditxo Madrile aldetik etorri zan batek, Euzkadin lanezik ez egoala esan eban. «Bertakoak non lan egin ba dauke, baiña tamalez kanpoko askok araxe joten dau. Oneik ba gorrituten dabe ango etorkizuna».

Gizon aren itzak bidezkoak ziran. Euzkotarrak lana aurkituko leukee, eurak baiño ez balegoz. Kanpotik ostera eurrez, egunero datorzenak guztiak ondatuten dabe. Zer egingo deutzogu?

Zergaitik datorz ba kanpokoak onantza, lanik ez dagoala badakie? Oneri erantzuna laster.

Gran Via zear niñoiala, gizon bat eskean urbildu jatan.

—Nongoa zara? Lan barik aldi luzea daroazu?

—Burgoskoa naz. Iru illabete dira ona etorri nintzala.

—Baiña lanik ez dagoala ez ete zenkian?

—Bai, baiña Burgosen be ez dago lanik.

Emen be ezin dot idoro, baiña zeredozer emoten deuste, errukiorrak diralako euzkotarrak.

Errukiak ete galduko gauz? Geure anaiak eurrez, lan barik ikusten doguzenean, iñori emoterik ez dago. Auxe ulertu dabe emakume batzuk. Atzo igon nintzan Euzko Langilleak Correo txaidean daukoen etxera. Jantoki apain bat maai barriakaz agiri zan.

Euzko emakumeak tokirik egokiena gertu deutsoe langillari. Bazkaria egunero berreun langillari emoteko ustez dira. Nondik orrenbeste txindi atara? Orixe da burukomiña!

Berreun langillari doan jaten emoteko, txindi asko bear dala edonork ulertzen dau. Baiña bil-durra jaurti dabe, asi dira janari bikaiñak emoten.

Eta arrotzak etorriko jakuz langilleenganako betebearrak erakusten. Utikan! Euzkoak ez dau iñorengandik ezer ikasi bearrik, bere barruan daukoz ba gogairik argienak.

Gizarteko goraberak zuzenduteko, itzakaz ez, eginkizunakaz etorri bear gara. Itzaldiak ez dabe

ezertxo be onduko txiroaren urritasuna. Langilleak burrukan jarrita be ez. Oletan odolik asko isuri dabe langilleak euren egoneziña apur bat osatuteko, baiña odolak ez dau onik ekarri. Kristautasuna dogu bide bakarra. Euzkoen artean kristautasun au abertzaletasunaren alboan dabil. Biok doguz sustrairik gurenak.

Euzko langilleak non jan eta non edan ba daukoe. Ez da izango janari on-ona be, baiña biotz onez egiña bai. Txistu-otsa entzuten geban atzo, langilleak jaten ziran artean. Eta zelako zantzo ta zarateak be jaurti ebezan!

Gero emakumerik dotoreenak dantzan egin eben langilleakaz. Ez dogu iñoiz ikasi abertzaleen arteko alkartasunaren kidekorik.

Goipuruen idazkietan, kristauen eginkizunetan bide auxe baiño ez dot idoroten gaurko egunetan. Ludiko amorrak ezin zuzendurik dabiltz gizonak, eta ez dira zuzenduko, bakoitzak bere urkoagaitik zeredozer egiten ez dauan artean. Moscoutik ez jaku etorriko arazo oneen gaizkabi-dea. Marx edo Blumek be euren idazkiakaz ezin atonduko dabez. Baiña euzkotarrak ba dakigu zelan zuzendu dagikeguzan.

Abendako semeai lagunduten deutsegunean, euren gosea kentzen dogunean, abertzaletasunak ez dau bear izango beste azalpenik. Ulertuko dabe itsuenak be, geure arloetan euzkoen ona baiño ez dogula idoro nai.

Gosez egon diran anaiak jaten ikustean, zelako poza sortu jakun biotzetan. Orain ez dabe bide zear ibilli bearko, iñori eske. Euren etxera etorriko dira ta antxe idoroko dabe bazkaria. Anaiak baiño ez dira batuko, abertzaleak emoten deutesen bazkaria jateko orduan. Orain arte egin dan lanik ederrena auxe dogu.

1932-V-12

Udabarria

Neure leioan ots biguna entzun dot. Oztin-oztin emakume bat ikusi dot zelaiz zear. Eta leioa zabaldu dodanean, usaiñik meena sartu jat surtzilloetatik. Agur, urtaro maitagarria! Zeure edermiñez euki nozu aspaldian. Zeru laiñoak estalduta euki zaitue, baiña eguzkiaren ugatzak zeure ezpaiñetan lorak sortu arazo dauz.

Bidez zabiltz, sasi ganean sortu danentz lore bikaiña. Zeure ikertaldi barik ez da geldituko otea be. Zugatzetan orri ikarea igitu dozu.

Argiok bai ete zeure uleak? Aurpegia garbitu dagizun iturriak garden datorz. Leioa zabalik itxi bai? eta arin noatzu mendiz zear. Neure biri oneik asetu gura dodaz.

Zeurekin etorri da osasuna zelaira. Bai ete? Osasuna bear dogu ba, aspaldian kiruak artega daukoguz, illunak jo gaitualako. Arin noa aranera, bertan goi begira atsedean dagidan.

Beste aberri bat daukodala dirudit, zeure aro au ikustean. Zer egiten dozu lur garrean, olako alatzak badira? Lurrak deirik niaitekorrena egi-

ten deuskulakoan, pozez nabil. Eta iñoiz baiño kutunago dodaz aberriko txokoak.

Zeure mosu orrek alaitasuna egiten deust. Egoak baliran dabiltz loreak.

Udabarri orri zeuri asko nago! Orain joango naz baserrira, antxe azi ona erain eta landara ederrak garatu daitezcan. Ikusiko dozu zenbatzu mendigoizale igituko diran ara-ona. Ikurrin alaiak zabalduko dauz aizeak, mendiz gora zantzo zoliak be entzungo dira. Euzko abestiok barriz, eurrez landetan iruriko dabez.

Poztasuna zara, baiña abertzaleentzat geia-gorik be bai.

Igandeko goizak dakarren alaitasuna udaberrian sentiten dogu. Nonedonon izango da abertzaleen batzar bat. Araxe joango gara. Egunari berea emongo deusogu, artean ez dagolako itunik ez betokerrik.

Beste batzuk lizunkerirako maite zaitue, urta-ro eder ori, baiña geuk ez. Jolasik jolas ibilteko ez zara, ugerra dariola, askoren antzo.

Geure erraietan bizitzaren deia entzuten dogu zeu etorten zaranean. Geldi egon eziñik

alde batera ta bestera gabiltz. Urduri noiz zabalduko izpar ona.

Eta bitartean zeure begiok zerua oztinduten dabiltz. Laiñoak ez dira zeure adiskide, euriak bez. Geure ibilketan aurkitu ez dagigun ba aro txarrik, amek legetxe kenduten dozuz goibelak.

Baiña aurten ez zara besteetan baizen alai-garria. Geure lurralde onetan ba dira udabarriak poztuko ez deutson batzuk. Aberriaren maitale diranak zeure deiak entzuten dabez, baiña gorrotoak jo dauzanak be ba dagoz.

Oneik ezin dabe ulertu geure edertasuna. Euren egite dongeak egiten dabiltz alde guztietan.

Euzkadiko udabarria geuretzako baiño ez da, beste iñork ezin dau neurtu bere edertasuna. Urtzik eskutik jaurti dauan legetxe, geuregana dator. Eta otoiz eta irriz artzen dogu, gauza onen iturburua dan Jaungoikoarengandik.

Izan be, bezuzaren maitekorrena dogu negu ostean udaro auxe. Odolak be pilpil egiten deusku barrean.

Ez dagigun zikindu geure itz edo eginkizunaz. Etorri jakun legetxe, joan bedi atzera. Ez da sari

txikia geuretzat ba, urtaro aberria barriztuta ikustea.

Sarri oldoztuten dot geure baserrietan barriztu bear geunkazala antziñako Maiatz jaiak eta. Barriz iturri ertzetan, mendi magaletan barre egin begie gazteñoak eta neskatilla liraiñak.

Eladetarren artean ziran jaiak geure lurraldean be atsegingarri litzakez.

Leioak zabaldu dodaz, begiak jo dabez eder miñok eta udabarriaren deia entzun dabe euzko-tarrak. Euzkadin izango da poztasuna. Itxaro berea!

1932-V-13

Iruñako batzarra

Laster asi dira iraukitzaleak igandeko sopekeriaren ondorengoak batzen. Nabarran ezeze emen be asarre bizian dira notin asko, oneik egin daben doillorkeria dala ta.

Ainbat gazte ta zaar etorri dira abertzaleengana. Euren bidea zein dan igarri dabe. Ezkertarrak eta eskumatarrak, guztiak bardiñak: geure etsaiak. Igandean asi zan abertzaletasunaren zabalkundea Nabarra osoan. Orain Diario-ko zapoak, doillorak, jauntxoak eta guzurtiak jakingo dabe euzko erriak zelan ordainduten dakian etsaien lana.

Euzkadiko izparringiak oso itz gogorraz epaituten dabe nabartarren egiña. Leen ez ziran batu, ba, Araudiatzazko erabakiak artzeko asmoz? Orduan araudi bakarra gura ebela azaldu eben, baiña atzipetu gabez. Oraingo geure Euzko Araudia autarki bidez geureganatuta euki-ko geban, baiña onegiak garalako, besteen begira egon gara.

Iruñian jazo zana jakin ebanean, pozez beterik agertu ei zan Prieto jauna. Eta zelan ez? Euzkoen batasunak buruko min andiak damotsoez Madrileko buruai.

Nabarra galduta dago urte askotarako. Orain araudi barririk ezin lortuko dau. Ta orain daukozan eskubideak kenduten badautsoez...

Araba, Bizkaia ta Gipuzkoako araudiak ostera, erraz urtengo dau. Ez daukogu lan asko egi-terik geuretzat araudi bat atarateko, baiña tamalez, erdibituta gertauten gara. Zelako negar mal-koak ikusi ziran igandean Iruinako enparantzatan. Mutil gazteen begietan negarrak ikusten ziran. Zergaitik ziran? Gazte areik ziran benetan euren erria maite dabenak, areik eukoen biotzetan geure aberriaren sua. Eta anaiak banandurik ikusteak min egin eutsoen. Alkarri besotik oraturik itz atseginkorrek esaten eutsoezan, urrengorako indarra euki egientzat.

Abertzaleak negar, baiña ezkertiarrek eta iraukitzaleak barre. Zelan batuta egozan Nabarraren etsaiak, uzkurtzaren ardura barik.

Eta non ziran Araudiaren izenean aukeratu gebazan aldunak? Non ziran Beunza, Aizpun ta

besteak? Araudiaren alde eurak an egingo ebela, ta igandean batzarrera eldu be ez?

Olantxe atzipetu gabez aldun barragarri oneik. Euren eginbearra au zan, igandean batzarran egon bear izan eben, baiña doillorak egi-ten dabena egin eben. Aldendu ziran. Lotsarik baleukoe, ez eben egingo olakorik, baiña lotsea zer dan ez dakie, antxe ikusi zan legez.

Gaurtik ezin iraun leike «Minoría Vasco-Navarra» deritxon alkarte orrek. Alkartasun ori apurtu bear da arin be arin. Zer aldeztuteko egongo dira geure aldunak orreikaz? Espaiñako bakaldunak ekarteko? Espaiñako laguntza arazoak zuzenduteko? Espaiñako iraukitzaleak lagunduteko? Ez dogu bear orreikaz batasunik.

Eta orain bakoitzak zer egin dauan oldoztu bear. Gero aldi txarrak etorriko diranean, ez begiskue otsik egin.

Baiña orain beste bide bat aztertu bear geunke. Iraukitzailleak, saltzailleak Fueruak gura ei dabez. Tira ba, araudiak jaurti dagiguzan bai? ta Fueruak billa joan gadizan. Zer erantzungo dabe saltzailleak? Orain amabost urte Pradera saltzaille, doillor, zitalak esan eban: Nabarrak ez dau

gura Furerorik, antziñako lagiak diralako. Gaurko-
an beste lagi batzuk bear dira. Eta orain Fueruak
bear ei dira. Oneexek dira Espaiñaren morroiak,
geure erria salduten dabizanak. Makoentzat sarri
itz egiten dogu, baiña euzko seme saltzailleen
aurka itz geiago egin bear geunke.

1932-VI-19

Iruiñako batzarra

Igande goizeko «Azalpenak» olantxe amaitu gebazan: Euzkadiren batasuna udalengandik jatorkula diñoenai, Euzkadiren batasuna ta gaizkatasuna abertzaletasunetik.

Eta gaur Iruiñan jazo dana ikusi ostean, igandeko itzak barrero azalduten doguz. Geure aberri gaixo onen batasunik ez da etorri beste iñondik be. Abertzaletasuna sendo zabaldu, guztiai euren jaioterria erakutsi, abendearen etorburua azalduten deutzogunean, Euzkadi bakarra izanen da.

Nabarrakoak erru andia daukee jazo danagaitik. Baiñ a damututeko ordua be elduko jakoe. Erriak ez dauke larri ibilli bearrik. Geldiro be euren elburura elduten dira. Ezkertarrena izan dala errua? Eskumatarrena? Alderdi bietakoena. Batzuk eta besteak agertu dira euzko erriaren etsai. Baiña errurik andiena eskumatarrena. Beste bein entzungo bagendu alkartasuna bear dogula eskumatar doillorrokaz, zer erantzun jakingo dogu.

Orreik ulertu bear ebezan zelako onurak irabazten ebazan uzkurtzak araudi orren bidez, baiña jauntxokeriak itsutu dauz. Ondorengoak be jasan dagiezala. Araudi alde egiteko autu gebazan aldunak, baiña saltzailleak egiten dabe-na egin deuskue.

Iñoiz ez geiagotan batasunik orreikaz, Euzkadiren saltzailleak diralako. Baiña ezkertarrak be bardiñak dirala erakutsi eben Nabarran. Oneik be polito iges egin dabe araudiaren aldetik. Benetan gura izan balebe, ez zan galduko auteskundetza.

Ez da jazo dan au iñoren adorea kentzeko lain. Abertzaletasunak aurrera ekingo dau au gora-beera. Baiña Nabarrako abertzaleak zer ikusi andiak daukez, igandean jazo zana bide. Zelan jokatu bear dan igarriko eben. Tamalgarria dogu igandeko gertaerea, biotzak ez dira kikilduten baiña. Ez, Euzkadi gizonen doillorkeriak, sapokeriak eta lupukeriak baiño gorago dago. Iñoren bekaitzak, ikusi eziñak, jauntxokeriak ez dabe zapalduko.

Jagi ba euzko semea; gaur ez dana lortuten, biar lortuko dau. Itxaropena baiño ez da bear, besterik ez.

Zenbat bidar ementxe esango dogu: abertza-leak ezin alkartu geintikez iñogaz be. Orain esaten dira leengo itzak. Sarri asarre ziran asko, itz areik zirala ta. Baiña abertzaletasunaren itzak egiazkoak dirala, geroago ta argiago dakusgu.

Euzko Araudi barria egin? Ez dago txarto, baiña abertzaleari ezin emon dagikio poztasun andirik asmo orrek. Geuretzako gauzarik onena beste bat zan. Nabarra geureganatutea, odolez anaiak garanok bananduta gabiltzalako. Irabazte batzuketik, ertzaintza, gudaltza ta abar ez dira geure niniko, beste batasun ederra baiño.

Ez dakigu geure buru diranak zer erabagiko daben. Baiña areik esaten dabena egiteko, beti prest izango gara. Adore andiegiaz artuko dabetik orratiño, ez dogu uste.

Lau autarkiren aldakuntza baiño ez da izan Nabarran. Iraukitzaleak edo tradizionalista deritxoena pozik egongo dira, baiña laster ikusiko dabe zer irabazi daben. Udal orreik ez dira egon-

go eurai begira. Abertzaletasunak ostera, aurre-rakuntza andia egingo dau.

Ortik jokatu bearko dabe guztiak. Nabarran ez da egin bear zan lana. Oraindik itzaldi asko, neke asko igaro bearko dira, errietan aberria ezagutuazo arteragiño.

Leringo saltzailleak jarraille onak izan dauz. Pozik egongo dira, baiña jauntxoan azkena laster elduten da. Iñork uste ez dauan orduan. «Diario de Navarra» bat, «El Pensamiento Navarro» beste bat, eta gero jauntxo batzuk izan dira, euren zapokeriak iraunazoteko, araudi aurka jarri diranak. Begoz euren izenak euzko semeen biotzetan, betiko dongetsi dagiguzan.

Eta araudi alde barik, euzko batasunaren alde autarkia emon dabenak. Eta orain lan egiteko prest. Biotzak gora, ta Nabarra abertzaletu arte. Aldiak etorriko dira. Batasuna eskatuten etorriko jakuz, baiña gaurkorik ez dogu aaztuko. Ezin aaztu izango dogu!

1932-V-21

Guzurak

Askoren bidea zein dan ikusi dogu. Umeak illargia eskatzen dauanean, ezin emon izaten jako. Baiña tira, umeak ez daki zer eskatzen dauan. Parkatu dagiokegu.

Umeak ez diranak, barriz, illargi antzeko ezer eskatzen dabenean, zigorkadea merezi izaten dabe. Oraingoak illargia ez ei dabe eskatuten, gizonak buru-argiak diralako.

Izan be, ume antzo agertzea ez da bidezkoa. Ganera illargiak ez deutsoe jaten emoten. Baiña illargia baizen gaitz lortuteko diran gauzak eskatuten dabez.

Olakorik egia danentz? Ez da izango ba. Neu burusoil nazan legetxe. Zin andia egin dot geure, neure ulerako ziña esan dot eta. Nortzuk diran olako gauzak eskatuten dabezanak?

Argiontzia ez dozu ixotu bear izango. Txaidez txaide dabiltz. Orreik ikusi gurako zeunkez?

Erdu neurekin. Ronda txaidean dagoz olako batzuk. —Ene, Ronda txaidean, txikito bana artzeko edo? —Ez, txikitorik ez dot artzen.

Abelgorriak lakoxe gizonak dagoz or, Ronda txaidean. Sartu gadizan etxe onetan. Etxe zaa-rra, ezta? Atadia be illuna. Gaizkiñak estalduteko toki bermia. Gaizkiñen tokia da izan be.

«El Nervión». Etxe onetan izparringi antzeko orri loi ori argitalduten da. Artezkari jaun bat ei dago. Jaun dan ez dakit. Katoliko zintzoa. Emen dagozan gizonak ikusten dozuz, ezta? Ara ba, oneek umeak legetxe lortu ezin daiteken gauza bat eskuratu nai dabe.

—Zer da gauza ori? Kapeladun gizonak orren zoroak dira?

—Zoro ta erdi. Abertzaleak zapaldutea gura dabe. Euzkadi osoan abertzale garau bat utzi barik, garbituko ei dabez.

—Umeak dira oneik edo zoroak?

—Ez, ez dira umeak, baina zoroak be ez. Don-geak dira, lotsabakoak, gaizkiñak.

—Itz gogorak diñozuz.

—Itz gogorrik ez dago, pizti txarra zapaldute-ko. Oneik gaizkiñak legetxe erail bear dira.

—Oben andia egin dabe edo...

—Bai, oben andiena. Uz Kurtza maite dabela esaten dabe. Katolikoak dirala be azalduten

dabe. Beti ona egiteko prest ei dagoz, baina guzurrez, lodarkeriz, zapokeriz ta kerri guztiakaz abertzaleen aurka lan egiteko ez daukoe lebarik. Ikusi dozu orain argitaldu daben idaztiñoa? «Judaismo, Nacionalismo, Comunismo» idatzi dabe azalean. Eta barruko izki loiak, lizunen baten semea danak idatzi dauzan lerroetan, euzko abertzaletasuna judatarren txindiz ta laguntzaz zabalduten dan galbidea dala dirausku.

Doipuruaren itzak artzen dauz geure aurka, ta gero, gizonik dongeenak idatzi dabezan itzakaz geure alako txarrikeria konponduten dabe. Izenik ez dauko ori egin dauanak. Egia esateko, aitearik daukon ez dakigu. Iruñako ertxadonetan salduten izan dabe.

Zergaitik olako idaztiñoak? Ezer beste bide batetik ezin eta orra jo dabe gaizkiñok. Abertzaletasunaren aurka ez daukoe ezertxo ta, galduta dagozen oneik guzurrakaz urkoa atzipetu gura dabe.

Baiña illargia eskatuten dozue, lotsabakook. Errezago lortuko zeunkee goian dabillen artobero edo illargi ori, abertzaletasuna zapaldu

baiño. Uzurtza zaleak dirala azalduko dabe gizon oneik. Iñori izen ona kentzea ez da katoliko baten lana.

Agirretar Joseba Andoniren aurkako itzak beba dira. Siongo irakasleak ei dira aldun onen botu emoilleak. El Nervión-en argitaldatu dabe idaztiño ori... Eta Prensa Catolica-tzat artuko dabe izparringi ori emakume biotzbera daukenak.

Beste biderik ez daukoe geure aurka egiteko ta guzur bideetatik dabiltz. Geure bizitzan dedurik onena, katolikotasuna daukogunen aurka orrelako zapokeriak diñozanari burua kendu ta kito.

Baiña zertarako larrituko gara. Arro goaz geure bidean. Aurrera goaz ta txakurrak atzean geratzen dira ausika. Ezer ezin dabe egin ta guzurra, bekaitza ta doillorkeria batzen dabez geure aurka. Ondo dagoz!

1932-VII-11

Joko barria

—Yo-yo barik zatorz? —itaundu deuste. Baiña batere barik ez naz etorri. Ondartzetan beste gauzarik ez bada ikusten izan! Zer dan?

—C'est le yo-yo —ots egiten eban oraingo ume madari batek. Bere ondoan speaker bat eroian. Eta onen itzak dancing barruan entzuten ziran bitartean, praka zuridun jersey oztindun gazteak jolas eragion yo-yo bati.

Zura edo ool bi erditik lotuta dagoz. Zura orrein erdikoa, burdiaren ardatza edo gurtzillaren antzekoa da. Lokitxo bategaz ardatza lotu ta dantzarazten joko ezerez dan ooltxoari. Atzamar baten bidez lokiari eragin eta zura ikotika dabil.

Gauza erraza dala esan beariko. Baiña zail egiten da, asieran beintzat. Gizonezkoak eta andrazkoak, zaarrak eta gazteak beste zeregiñik ez dabe izan.

Edonon yo-yo bat ikusten zan. Ondartzan erdi billozik ziranak bere, joko barri au erabillen. Nork esan orregaz jolastu daikenik? Eta olakoxea dozu gizakumea.

Gizonaren gogoan biurri asko aurkitu gurarik ibiltzen gara, baiña ez dago ume baten bakantakuna baiña. Loki zati bategaz eta zuratxo bigaz, ederto jolastuten izan dira ondartzako notiñak.

Eurentzat beste buruko miñik ez dago. Latorriak nora jo ez dakiela, batzar lebadunak egiten ibilliko ziran. Lan urritasunari bide bat emoteko ustez, beste asko neketuko ziran. Baina yo-yo bat artu eskuan eta udea igaroten izan diranak, jolas ta jolas egon dira. Zertarako buruak neketu? Joko au nondik sortu dan be ez dakie. Zer egin ez dakiela edestia idazten asten diranak, yo-yotzaz idazten ekingo dabe. Japondarrak asmau ei eben.

Olako joko gatz bakoak ostera, edonon dira. Aldia igaroteko joko bat edo arazo bat bear izaten doguz. Garrantzirik ez badauko, obeto. Oraingoan elburu bati dagoz geienak: ondoen zelan orduak igaroko dabenentz.

Eta orretarako batzuk artaziakaz ingiak eba-giten dagoz. Beste batzuk ondartzako areaz pilloak egiten, gero ostikada bategaz dana eze-reztuteko. Lokarnon batzen dira gizon bizardunak bere besterik ez dagie. Aldia olantxe igaro-

ten dabela ondoen, eta an dagoz. Laterrietako goraberarik ez dabe aztertuten, baiña eurak ederto egunak eta gabak igaroten dabez. Aldakuntzarik ez dago yo-yo bategaz jolastuten diranen eta beste gizon ben-ben onein artean.

Gizadiari onik ez dakartsola yo-yo batek? Bai, arranotan. Oldar edo une baten zoriontsu badira ainbat zaar eta gazte jokotxo onegaz, naiko onurarik ekarri dakar.

Bizitzea naastu gura deuskue batzuk, baiña bakantasunera joten dogu. Gauza argia baiño argiagoa dalako bizitzea. Aal danik ondoen igaro unea ta kito. Akeita-etxean aspertuten dira batzuk eta idaztiak egiten doaz. Ez daukoe neke andirik. Beste batzuk bakean egon eziñik, errietan dabiltz. Baiña iñork ez dau bere izatearen aurkako lanik artuten.

Zeure jolaskide izan dala beste gomutarik ez dau izango. Eta yo-yo jokotxo au goralduteko dantza-eresia bere egin deutsoe. *Le yo-yo stop* ots egin eta ereslariak asiko jatzuz soiñu utsean.

Emakume lodikoteak bere etxera eroaten izan dabe irakasle bat. Yo-yo jokoa ikasi gura eben. Mackinzie irakaslea Biarritzen izan da.

Europako gizonik ben-benenak antxe egozan begiak zabalik, loki baten dantzan ebillan ooltxo-ari adi-adi. Oraingo artegatasuna edo ikusten eben jolas orretan?

Yo-yo bat erosteko aolkua guztiontzat. Nekeko ordu luzeetan, zer egin ez dakizuenetan, jolas ori artu ta aldia igaroko dozue.

Beste zeregiñik zer daukagu ba? Bazterretan gosea dala? Ara izparra. Ardurarik ez deust orrek. Aberri bat iñoren menpean datzala? Kendu, kendu olako oldozkunak eta artu yo-yo bat eta jolastu zadi. Jolas ordu guztietan eta egun osoan. Bizitea jolas bat baiño ez dalako.

Ondartzan etzunik eta yo-yo bategaz ibilli diranak, joango ziran euren etxeetara. Goserik igaro ba daben edo ez, gomutan ez daukoe. Jolastu dirala oster, gomutan daukoe.

1932-X-5

Auteskundeak

Auteskundeak ei daukoguz ate joka. Zabalduko deutsegu? Alajaiñetan ez datortzak mutil txarrak! Aulen aulez bidean ilgo ete dira gero? Espaiñako laterria laterri ona da, baiña askatasunik ez dau gura beretzat baiño.

Antziñako aren antzera. Askatasun zalea ei zan axe bere, baiña berak legez pentsaten ez ebanari, burua kenduten eutsen. Eta zergaitik ez dira egingo auteskunde osoak? Ez dakit ba, baiña sunda txarra susmatan dot. Ea, esan argi, Espaiñara zelan etorri zan erkala edonork daki, auteskunde bidez etorri zan eta. Oraingo errizale edo demokrata oneik orduko auteskundeetan idoro eben euren gurendea. Orraitiño orduz gero amaikatxo lelokeri ta papaukeri egiñak dozuz.

Orduan eurekin euken erri osoa, gaur ete daukoe? Or dok minbizia. Uzkurtzale ziranai esaten eutsen: errelijiño deunari ez jako ule baten ikutuko. Geu baizen uzkurtzalerik ez dago. Baiña geroko oillarrak beste kukurrua egin deusku.

Orduan eta gaur zulo batetik ez dabe zimaurre egiten.

Erkizale ziranai be agintza andiak. Eta euzko-tarrai? Uste izan ez dozuezan eskubideak emongo jatzuez. Eta zer emon deuskuen ondo dakigu. Elebitza? Bai zera! Araudia? Ona jagok orren begira jagokana, beste janaririk ez bajok. Egunean-egunean zortzi gizon espetxeratu deuskuez, amaikatxo izun lepalduta udalak kendu. Zelako barrabaskeriak ikusi doguzan, ikusi.

Eta antziñako agintzeak igasi diran ezkeron, notiñak bere ez dagoz lotan eta, beste alde batera begiratuten dabe. Auteskundeak? Etorri bediz, guzurrez ibilli danari ostikada bat emoteko.

Au guztiau igarri daroe bai? eta bildur dira. Bildur galanta. Orregaitik ogetabederatzigarren atalki bidez aukeratuak izan ziran udalak baiño ez dira barriztatuak izango. Uri txikitxoetakoak bada ezpadan bere.

Datorren illean mitin gurena egiteko asmotan dozuz geure ezkertarrak, ezkertar jaioak. Arro-arro au, bestea, urlia ta zereko zera etorriko diralakoan. Ondo jagok. «El Liberal»en oldar-

keriak ez dira edozelakoak, andiak baiño. Neure leitean oster, erantzun bat aurkitzen dot. Itzal-di guren orreri erantzuna illaren ogetairugarre-nean emongo deusogu. Bizkaiko udaletxeetan idoroko dabe erantzun argiena.

Auteskundeak ez dira ezer geuretzako. Esku-ma aldekoen zarateak eta deadarrak entzuten diran uneetan, barre egiten dogu. Abertzaletasunari ez jakoz ardura. Geure elbururako bide bat baiño ez dira, elburua bera ez dira ezelan bere. Arean bururik daukonak ez leuskioe garrantzi lar emon bear.

Bizkaiko udaletxe geienetan, zalantza edo ezpai barik, geurea dogu gurendea. Eta zer? Udaletxeak baiño maiteago doguz batzokiak, baita bearrezkoagoak bere.

Bizkaian izango diran artean kanpoko guber-nadoreak, atzerriko agintariak, ezer ezin dagikee egin. Eskuak lotuta dagozan udalak ez doguz nai. Gaurkoak oster eskuz esku lotuta dagoz. Irakaskintzean zer dagikie? Euskeraren alde zer?

Uzkurtza gauzetan be amarrauta dagoz. Askatasun laterri batean udalak eta aldundiak nai izango geunkez, baiña gaurko egunetan eze-

tarako ez dabe balio. Au egin dabela? Jaurlaria-
ren lumea zorroztu bai? eta kanpora. Bermeon
eta Mundakan jazo zana...

Espaiñako erkalaren gogoia betetuteko ez
gagoz. Zenbateraiñoko indarra dauken neurtu
nairik, auteskunde osoak barik erdiak egin gura
dabez. Emakumearen autarkia noren aldera
dagoan jakin nai.

Indiako kuizak ez gara, ba. Uri andietako
auteskundeak betorz eta gero aldundirako.
Baiña «gestora» dotoreak ondo bizi dituk. Ogia
non jan eta patxada ederrean bizi dozak eta...
Bosteun laurleko illero-illero ez dozak kale mus-
turretan topauko.

Auteskunde txatxar oneik jolaska legez artu
bear doguz. Baiña lorik egin gabe, ez gurendeak
gura doguzalako, geure indarra erakusteko
baiño. Ekingo dogu.

1933-III-31

Batzarra

Gaur batzarra izango dogu, abertzaleak egingo daben batzarra. Bilbaoko basurde andiok erabaki bat artu eben bai? eta erabagi ori ez jaku begikoa.

Espaiñarrak iragi eben Josu Biotzaren irudi bat Gran Via txaidean. Oindiño gomutan daukogu zelako poztasuna jariatzen eben espaiñarrak. Abertzaleai irain bat geiago egin euskuen.

Biotz donea maite izango dabe edo? Ezetzik ez diñogu, baiña asmo auxe erabilli eben: «Reinaré en España con más veneración que en otras partes». Eta Bizkaian be irudi ori iragi bear da. Txindia emon ebenak, irudia egin ebenak, onetsi zan egunean etorri ziranak, guztiak espaiñazaleak ziran. Beraz ezin goraldtu dagikegu. Egun aretako abestiak eta ikurriñak gogoan doguz. Antziñako «Marcha Real» abestuten eben, espaiñarren ikurriñak an-emen ziran. Eta ango itzaldiak itzaldi gogorrak ziran, gogorrak abertzaleontzat. Primo de Rivera, Bakalduna eta abar etorteko ziran. Azkenean ordezkook eldu

ziran. Bilbaotar Estepan jaunaren itzaldiazaz oro gara.

Abertzaleok abegi onez begiratu ete geinkio irudi orri? Ez, ba.

Zergaitik orduan gaur izango dan batzarra? Irudi aren alde ez gagoz, baiña ezin jasan dagikeguz Josuren aurka egiten diran gauzak. Uzkurtzaren aurkako erabakia izan da. Eta geure kalteztz irudi a iragi bazan be, orain alde batera jaurti daroagu egin jakun iraiña ta Kristoren dedua ta aintza zainduten doguz.

Batzar onek garrantzi geiago dauko, beraz. Eskumatarrak, espaiñazaleak irudi orren alde itz egin nai izatea edo zalapartaz jagitea arrigarria ez litzake izango, baiña abertzaleak uzkurtza baiño ez darabille begi aurrean. Beste gogai batek ez dauz igituten.

Itzaldian au, ori ta bestea esango dira. Ezker tarren aurka gauza andiak entzungo dira. Ez dago txarto. Baña itzak aizeak daroakez. Beste asmo bat guztiak atera bear dabe, asmo sendoa. Euzko abertzaletasunean baiño ez dago geure uzkurtzaren babesa. Olako egunetan deadar

andiak eta gero espaiñazaleen adiskide ibilteak, ez dira gauza onenak.

Kristoren irudirik ez zan kenduko abertzaleekin nagusitzan balira. Nok lagundu deutse ezker-tar orrei? Bakaldundarrak ez ziran euren adiskide kutunenak? Geure aurka egin naiez, zelako alkartasunak ez ebezan egin guztiok!

Oraingo negarrak ez doguz ulertuten. Ogasunakaitik edo ez ete dira gero? Erderaz bost izlari mintzatuteko dira. Euskereak ez dau balio edo... Eta abertzaleak gara... Baiña izan be Josu Biotza-ren alde itz egiteko erdereak langorik ez dago...

Gauza andiak entzungo doguz, txalo ugariak. Eta pelota tokitik urtengo garanean, guztiok bazkari onena jaten. «Taberneruak» irabaziko dabe. Itzaldiak barik beste zeozer egin bear dogu. Itzaldi lar darabilgu. Kristo geure jaunaren alde ezer egin nai badogu, geure biotzak garbitu daiguzan, geure erri au kristautu daigun.

Abertzaletasuna zabalduten jardun gadizan, baiña neke barik. Jel ikurritzean asmo guztiak batu daiguzan.

Ondo asi gara: arerioai adibide ederra azalduten deutsegu. Eurak geure aurka egin ebena

aaztu ta Kristoren alde jarduten gara. Irudiagaitik ez gabiltz, Kristoren aginpideakaitik baiño. Etxean eta atera, eskubideak daukozalako guztiak buru izateko.

1932-XII-4

Euskerearen kaltez

Atzerrikoak gorrotauten gaituela ba genkian, gaurko leloa barik antziñakoa dalako. Euzko usaiñik darionari ala andia deutsoe, gorroto bizia. Bilbaoko udaletxean ikusi dogu ikusi, baiña itzakaz barik zigor bategaz zentzunera etorri erazoko bagenduz, baretuko litzakez.

Kokolo-mokolo egiñak gagoz bai? eta gura dabena egin daroe. Eroapen larregiko erria gara eta eroapen larregikoai zer jazo oi jakon edonok daki: euliak sur puntan aginka.

Eta orixe egin daroe geure etsai zitalak. Zertan? Gauza guztietan, emeko ezeri itzalik ez maitasunik ez deutsoelako. Bilbaoko udaletxean jazo zana ez da lelokeria.

Zein edo merkatu ederren bat daukogu. Base-txeetako emakumeak be eurrez etorten dira, batzuk euren arrautzatxoak, besteak lukainkak, arakoak azeak, onakoak barazkiak. Zenbat eta zenbat emakumetxo ikusten doguz.

Euskeraz baiño ez dakie, lantzean-lantzean tranpatxo batzuk egiten be ba dakie gero. Ezetz?

Ezetz? Bai bein! Bilbaoko saltoki edo dendatan arrautzak erosten dabez eta merkatura doaz. An oster, amaika edo amairu arrautzatzo atera otzaratik eta jartzen dabez ikusteko moduan.

—Ara ba, oneexek baiño ez dabez egin aste onetan eta presko-preskoak dozuz.

Nongo emakumeak siñistu ez, basetxetik ekarrikoak ez dirana? Baiña leenengo eroslea doanean, beste amairu edo amaika aterako dabez. Ederto atzipetu daroetz! Baiña oben andirik ez da. Ganera orretan arean be ez dogu idatzi nai, euskereari egin jakon laidoatzaz baiño.

Bilbaoko merkatuan emakume asko bere asko izaten dala edonork dakus eta emakume oneik euskaldunak dirala bere bai. Orain arte merkatu orren zaindari ertzaiñak egoten ziran eta euren zaindari txapel kondordunak bildurgarriak ziran.

Ertzaiñak kendu ta «conserje» antzeko batzuk jarrea otu jake. Ez dago txarto asmauta, ertzaiñik ez dalako bear. Ogei konserje bear badira, barriz, euretariko lau edo bostak euskeraz jakin egiela abertzaleak eskatu dabe. Illargia eskatu dabenik ez dogu esango, ogeirak jakin

bearko leukeelako. Baiña gitxiaz konformatan gara, geure etxean gogozan arren.

Udaletxeko batzarrean gai au gora-beera erabilli ebenean, geure ziñegotzia dan Abando jaunak eskatu eutsen eskari au, baiña basurde edo basurdekumeak barre egiñaz kontentu gertatu ziran.

—Esperantoa obe —ganorabako bat dan Aznar edo kalabazeak erantzun eutsan. Gizontxo onek zer ete daki emeko gauzetaz? Ez ete da bear euskerea geure basarrietako emakume gaxoakaz itz egiteko? Milla andra diran tokian bos-teun edo seireun euskaldunak badira, konserje bat edo bi euren elea dakienak euki aal izatea, ez da gauza andirik ba. Baiña olakoxe burubakokak dira españarrok.

Euren aberrian jazo balitz jakozun au, zerue-taraiñoko deadar egingo eben; baiña Euzkadin jazo dan ezkerro, barre purrustada batzuk egin eta kito.

Eta olako astokilloakaz batuko ete gara Estatuto edo araudi bat eskatuteko ustez? Onak jagozak! Oneikaz begiko pistarik be ezin eskatu geinke, ezer ez dakienak diralako.

Egun baten au, bestean ori, euskereak eta aberriak lotsagarrikeri galantak jasan daroaz, ez gara gorrituko? Ardurarik ez deuskula dirudi, baiña egunen baten ardureak joko gauz; barruraino sartuten jakuzan gauza oneik aldeztuteko, ikaragarritzko gauzaren bat egingo dogu.

Ezkertarrak eurak be damutu ei dira udal-txean egin ebenaz. Ez dago txarto, baiña gizona erail ostean damututen bagara be, ari ezin izango deusogu arnasarik emon. Euren damua azaletikoa baiño ez da, auteskunde aurrean lotsaz geratu ez ete dirantzat. Euskereari deutsoen maitasunak ez deutse eragiten, agintari izan naiak baiño. Baserritarrai itzaldietan esaten jakenean «arrotzak zeuen arerioak baiño ez dira», barre egiten dabe. Siñistu gura ez. Baiña alako asko jakingo dabenean, zabalduko dabez begiak.

Ainbeste lanbako diran ordu onetan, euzkotar batzuk sartuko genduzan merkatu orretan, baiña arrotzak gura ez ta ezin. Orain igarriko dabe nork maite dauan baserritarra.

Euskereak ez dau ezer balio, esperantoa obe
ei da. Espaiñar batek esateko gauza andirik ez
da!

1933-IV-8

Egin-nai onak

Bizkaiko lurrean sartu oi diran jaurlari guztien leenengo itzak itz onak izan diran arren, geroko eginkizunak aurrez aurre egoten izan jakez. Jarlekuan jesarri diranekoxe, esan deuskue: Iñoren-ganako gorrotoak ez gauz igituazoko. Mota guztietako alderdiak ibilli bediz lagiaren neurritz, eta geure laguntzaren utsik ez dabe sentiko.

Baiña zuzentza edo justiziarri eskua emon guraz datozenok, sarri atzea emon deutse. Orain artekoak noragiño eldu diran dakigun ezkerok, aurrerantzakoak zer egin leikien susmau daroagu.

Zuzentzaren jagole izan naiak, egin-nai onak dira. Agintari batek ez dauka beste zeregiñik, zuzentzaren zeregiña ez bada. Ondo irozota dagoan gizarteak ez dauko neurri bat baiño, oke-rra egin dauanari lepaldu bere zigorra. Gizonak bakean bizi izango badira, bakoitzak besteagana-ko mugeak zaindu bear dauz. Geure askatasu-naren mugea amaituten jaku urkoena tinkatuten dan toki bertan.

Agintaria dan agintariak, txorimaloa ez bada, muga orreik jagon bear dauz, bestela zuzentza-ren arerio bat baiño ez da izango. Guztiontzak bardin-bardiña izan bear da lagia. Baiña gomutan dot antziñako ipuiña. Bakaldun bati otu jakon egin-nai ona. Bere bakalderriko gizonak bardingeak izan ez dirantzat, bakaltseiñengandik asi ta txiroekanaiño bizikera bardiña barreiatu gura izan eban. Goiak eta beeak jo ostean, ezer ez jakon bururatu.

Bakaldunari ezer ez jakoe bururatuten, iñoren agindupean aziak diran ezkerro, urkoaren buruz oldoztuten dabelako. Dei oni ta ots ari, bakaltseiñak inguratu jakozan. Gizontxo orreik baizen kakanarrurik ez dago, beti drogetan ibilli dabilzalako.

Bere asmoa bakoitzak azaldu eragoion bakaldunari. Goikorik ez beekorik ez dedin izan, lagizko kaiola batzuk asmau daiguzan, euretariko batek esan eban. Lagizko kaiola orrein barruan gagozalarik, bizikera bardiña eukiko dogu, askatasun bardiña. Ule arrorik, ez ule motzik ez da izango.

Asmo au ondatu eban geure bakaldunak. Bakaltseiñen ardurapean itzi eban kaiola orrein eginbearra. Eta kaiolak egin ziran. Sendi bakoitza ondo bizi aal izateko lain ziran eta bakalduna bera be bai gero, menpekoen neurrian bizi gura ebalako.

Leenengo egunetan ondo baiño obeto egon zan eta zoriontsuak ziran, bata baiño bestea ez dalako andiagoa. Baiña olako baten ikusgarria ikusi eben. Baratzeko lorak itzulastuta egozan, zugatz kimeak apurtuta. Nor ibilli ete zan ibilli bertan? Bakaldunari joan jakozanean, esan eutsen: Lagi bardiña dozue bai? eta zuetarikorik ez zan izango. Kaiola orreik burnizkoak diran ezkerro, iñork ezin urten daike.

Baiña egunerik egunera ezbear andiagoak jazoten ziran. Bateko baratza ondatu, besteko iñoren etxeak erre. Bakalduna ikaratuta egoan. Eta leloa ez zan ezkerro, gau oso baten begi zoli geratu zan. Kaiola guztiak itxi ebazan eta giltzak gorde. «Gabeon ez da ezer jazoko» iñoan kolko-rako.

Gaberdia eldu bazan, eldu zan. Kaiola batzuren burdiñak edo barreak lagatu ziran eta gizon

batzuk lagizko kaiola barruetatik urten ziran. Zer zan a! Aske ebiltzan gizonak bakaltseiñak ziran. Arranopola! Zelan izan eikean? Erraz bere erraz! Kaiola areen ageak bardingeak ziran; bakaltseiñen kaiola ageak gomazkoak, noiznai zabalduetako erakoak; beste guztienak, ostera, burdiñazkoak.

Atzipe au gorde eban bakaldunak. Bere otseiñen bildur zalako. Ordutik ona esan daroe: Lagiak moeta bitariko ageak edo barreak daukaz, gomazkoak eta burdiñazkoak.

Beste onenbeste ez dala jazoten bertan be? Baietzean gagoz. Abertzaleontzak burdiñazko lagiak egin daroez, besteentzat gomazkoak. Jaurleri onek zelakoak egingo dauzan ez dakigu. Guztiontzat bardiñak egin badaroaz, poztuko gara. Baiña batzuk mailla bateko gizonak diran artean eta besteak beeragoko maillakoak, gauza onik ez dau izango.

Itz onak eta egin-nai ederrenak entzun doguz entzun aspaldiko urteotan. Baiña itzak putsa baiño ez dira, arin galduten dira airean.

Iskanbilla guztietan nortzuk atxillotuak diran ondo dakigu. Abertzaleontzat baiño ez dira

Españako lagien zigorkadeak. Besteak nasai bizi dira. Jaurlari onek zuzentza egin gura badau, eragozpenik ez dau aurkituko geureketz.

Laneza arteztuteko asmo onak be azaldu deuskuz. Garatz arazoetan jakintsua ei da. Bizkaian diran lanbako guztiai jaten emoten badeutse, Jaurlari txarra ez da izango.

Egin-nai guztiak argitaldu daroaguz, gero egingo daunaren bidez neurtu daigun. Udabarriko loren antzekoak ez bediz izan itzok.

1933-V-16